

A I T A   O N A I N D I A

**L a r r e a**

**e t a**

**K a r m e l d a r r a k**



Eten barik gogora ekarri dozu —beti poz-atsegiñez— zeruko Erregiña, jantzi zun' ía koroí ederrez apaindua. Eskapularioaz karmeldar zara-ta, zuk Bera daukazu Karmen'go Erregiñ anditzat be. Kristo darakusgu ezkerreko besoan, eía urrezko makilla —karmeldar Kutuna— dakar eskuman.

Argi biziáz jantzi dau eguzkiak. Baiña ederrena Aren biotzak bialtzen dauan dizdiza dozu. Ta ibilkera? Zoragarria! Aren oin zuriaren otsa enízu-nik, Libano"ko gain edurtua ía Karmel tontorra bera dardaraz daukazuz.

Zelai ía landetako lorak, ederrak dira, udabarria agertzean. Arek larrosa ta krabeliñez beterik daroa bere mantu zuria. Ta Amaren mantu orren gerizpean, mardul ía alai, bere seme-alabak azien dira.

Jainko-maitasunak sortuáiko liliak! Amaren magaleau beroa, argia ta bizitza aríu dabenak! Nazaret baratzeko lorarik ederrenak, Amak bere esku bigunez Karmei tontorrera aldatuak!

Len ía orain, izan be, nor karmeldarrak beste Andra Maria goratzen alegindu? Nok, areik aiña, zeruko Erregiñaren aintzak abesíu? Nok obeío Aren kondaira biztu-azo? Ez, eztau iñok, karmeldar ordeneak besíe, Andra Maria maite izan.

Karmeldarrak ditu bere seme: Karmel tontorreatan, Palestina'n, Europa'n, Afrika'n, Asia'n, Ameriketean., Lur-bazíer guztietan ditu seme zintzoak, kapa zuridunak, Berari gorte egin-miñez, eta egiten gau ta egun.

Baita Larra'ko muna onetan be. Ona etorri yakun beiñola, txairo ta oinarin. Emen dauka bere Erregiñ aulkia, sortaldeko gaiñ lerdenean lez. Emen dauko euskaldun jentea.

Karmen'go Ama! Artu egizu Larra'ko txoko au zure maníupe gozoan! Orain eta beti! Zaindu egizu Euskalerría! Zaindu egizu mundu osoa!

# Karmeldarrak Euskaleman

## I.—Karmeldarren gurasoak

Elias, Testamentu Zarreko igarle dogu. Karmel mendi zoragarriaren gainean eukan, geienik, bere bizilekua. Bakar-zale zalarik, antxe bizi zan nairerara; Jainkoa ta bere barnea, ez eban beste ardura ta kezkarik. Noz edo nozkoren baten, egia esan, atsegin yakon bakartegia itxi ta erregeak eurak be, bere agoko su ezpataz astindu ta dardaraz erabiltea. Ikastuna deritxon liburuak, onela: «Sua lez jagi zan Elias igarlea, ta aren itzak zuzi batek lez erreten eben. Gosetea erakarri eutsen, eta bere eskuz erriko semeak gixitu zitun. Jaunaren aginduz ortzia itxi ta irutan zerutik sua eratsi eban» (Ika., 48, 1).

Bein, izan be, Akab erregeri esan eutson: «Ala Jauna, Israel'go Jainko bizia! Nik esanda izan ezik, ezta urteotan iruntzik, ez euririk izango» (1 Erre., 17, 1 ). Sumin-sumindua ebillen, bai, israeldarrak euren Jaungoikoa itxi ta Baal'en sasi-igarleen esanetara makurtu ziralako. Igarle areitatik mordoa il ondoren, errukitu zan bere erriaz. Jatera ta edatera joan zedilla Akab'i esanik, Karmel tontorrera igon zan bera; ta an, lurrean auspsz, euria eskatu eutson Jainkoari. Morroiari dirautsa: «Igon gorago, ta begira itxasorantza». Morroiak, begiratu ostean: «Ezta ezertxo be agiri». Eta Elias'ek: «Zoaz zazpitan». Zazpigarren aldian, morroiak diñotsa: «Ara, giza-esku beteko odei bat itxasotik gora». Eta beingoan, zeru-azpia odeiez ta aizez illundu zan, euri-zaparrada gozatsua jausirik.

Odei ta euri gozatsu areik Elias'ek egiñiko otoitz-eskarien emoi ta frutu izan ziran. Eta une atantxe, israeldar erria egiatzko Jainkoagana biurtu zanean, amaitu zan iru urte ta sei illebeteko legorte ikaragarria. Eta antxiña-antxiña Karmen'go kondairagille batek, Jerusalem'go Juan'ek diñoskuna ontzat arturik, karmeldarrok auxe diñogu: Mediterraneo itxasotik jagitako odeitxo atan, Andra Mariagazko misteri oneik agiri izan yakozala Elias igarleari: 1) Sortze garbia; 2) Garbitasunezko eskintza; 3) Mesias'ek bere erraietan izango ebalá sortzea, ta 4) ezkutapen au noiz jazoko zan.

Liburu santuetan, sarri samar aitatz dator «odei» itza. Ta, dakigunez, Jainkoak bere erri autua gizaldiz gizaldi arteztu ta eskolatzen erabilli zitun tresna ta biderik asko, Kristo ta onen inguruko gauzen antz eta iduri besterik etziran izan. Odeiko ikuskari ontan Elias'ek, igarle-arnasaz bizkortua, Jaungoikoaren Ama begiz jo eban lanbroan lez. Eta, ain zuzen be, Ari egokionez, au da, Karmen'go Lagundi edo Ordeneari, Andra Maria'ri osoz eskiñita, jarri eutsozan oiñarriak. Ortik, mendi a santua dala —sacra est— esan oi dogu. Maria, graziaz beterik, odei gaiñean daukagu euzki ditziratsu bai'litzan; eta gu, aren biran eta ingurumari, ezipal igar antzeko gara, aren

euri premiña gorrian. Elias eta bere lagunak, an bizi izan ziran, urteak urte, Andra Maria'ren inguruan, zugatz-muskiltxoak tantai biran lez.

Karmeldar Ordenea andik dator, Karmel menditik. Eta oin-arri edo sor-tzaille bi daukazala, autortu geinke. Andra Maria bata, ta Elias igarlea bes-tea. Andra Maria, odeitxo zurian Elias'i agertu izan yakona, ereduaren sor-bide da; Elias igarlea, ostera, Eliseu ta beste padar-zaleak batean sortaturik, lekaide bizitzari eustazpi ta zimetarriak ipiñi ta karmeldar Lagundia eregi ebana dogu. Andra Maria da, ba, len-eredu ta Elias, ertilari; Andra Maria egin-gai, ta Elias, egingai ori begipean ebala jauregi ederra jaso euskuna. An-dra Maria gogai, pentsamentu dogu —verbum mentis—, eta Elias itz egiña —verbum oris—; odeitxoak ezer esan ez arren, itzez beintzat, Elias'ek ira-garten dauskuz ari dagokiozan edertasun guztiak, eta abagune txit erazkoan iragarri be,

Elias, Karmen'go aita dogu, gure Ordenea lekaide-gorputz lez berak bai eban jarri ta indartu; Andra Maria, bere aldetik, Ama dogu. Onek emon eu-tsan, ba, karmeldar Lagundiari barruan daroan kemen ta adorea, ezpiritu bizia. Ta, orixegaitik, bizitz-gai beiñena, berarizkoena ezpiritua dalakto, ez dauskue deitzen Elias'en Ordenakoak, Karmen'go Amaren Ordenakoak baiño.

## II.—Izpi zuriak

Antxe, itzaltasun andiz jantziriko tontor txukunean sortua dozu karmel-dar Ordenea. Tontorra eder, izadi txanbeliñez; Ordenea ederrago, Amaren arnasa beroz. Ontzi txikian usainki ona lez, antxe bizi izan zan lenengo, bakartade latzean. Antxe daukaz bere kondaira susterrak. Noiztik ete? Padar eta bakar-zaleak, gitxi-asko, beti izan dira gizaldiz gizaldi santu-usaiñez as-tunduriko mendi zoragari artan,

Illunpetan dardarazo nairik lez dogu ango len-istoria; baiña bada an zerbait bizi clana be: Andra Maria'ganako maite-sua. Antxe izan dauz ainbat eleizatxo mendi-erpiñean, aldiak indarrez sitsak jantzia lez janak, beera eratsiak, eta bertako bakarzaleak beso maitekorrez barrero jaso ta txukun apainduak. Urteak aurrera, Kristo gizon egin da; Nazaret'en bizi da, bere Amagaz. Biak joan oi dira, sarri samar, Karmel'go txuntxurrera, ango bakartiak ikustera. Kristo il, biztu ta zeruratu ondoren be, bertan jarraitu eben askok; beste batzuk, Apostoluen lagun, mundura zabaldu ziran, Kristo'ren fedea leia biziz giza-biotzetan erein bearrez. Areik naiz oneik izpi zuri, Kristo'ren birako.

Urteak joan eta urteak etorri, aldiak kate luze bat osotzen dau. Ta kate orren oboetan, antxe diraue beti Andra Maria'ren semeak, otoitz-bizitzan errime murgilduak. Jainkoa ta arimak dabe elburu. Antxiña bateko eleizatxoen orde, beste barri ederrago bat jaso dautsoe euren Amari, biotz-ikara gozoz. 1175'garreneruntz, gurutzetarrak ara eldu ziranean, antxe aurkitu ebezan jainkozale trebe areik, goitiko bizitza beroan arazotuta. Eleiza nagusiaren inguruan ainbat etxetxo daukiez, eta antxe bizi dira, ixil ta barru-\*nin, bakotxa bere gela barrenean. Andra Maria'ganako maitasun eta eraspen gartsuan emonak ebezan, XII ta XIII'garren gizaldiak batez be. Bertako eremutarrak, ao batez, Karmen'go Amaren Anaiak deitu oi eutsen.

### III.—Kanneldarrak Europa'n

Gauza on guztiak, baiña, ekaitzak izan. Karmeldarren kontra be, laster naspillazi ta jausi ziran euri-jasa biurriak, Karmel mendian bertan. Orixe-gaitik, mendi-gandor aretako abi laztana itxirik, Europa'runtz abiatu ziran ango basamortu-zaleak. Itxas-ifutsiak jota zeruak zear doan kurrillo aldea zirudian. Eurakaz eroien, ez bakarrik jantzia ta izatea, baita batez be, eren-



tzi eder antzera, beti garretan eukien Amaganako maite-su itzali-eziña; bai, ezin ukatu, praille areik tokiz aldatu ta egonez geratzen ziran leku guztietara eroien euren padar-su apartekoa.

Gurasoen etxe ta gauzak izan daroen gar au, giza-atxiki au, lenago an-txiñatean, gora ta inportantzi andikoa zan. Gizonak zer santuari arreta andia eutson. Eta zaintzaille lez ebanari eutson eraspina, gaur gauza pirtxilla iduritu arren, Erdi-aroan garrantzi andikoa zan, lena eta oraiña lokarri sendo alkarkorrez estutuak egozan eta. Ordukoen eritxiz, alkarte bat ausi-eziña osotzen eben zaindariaz. Karmeldarrak be, orretakoz, naiz-ta Europa'n bizi, oso batu ta lotuak egozan Andra Maria'gaz eta Karmel-tontorreko eleiza ari eskiñiaz. Eta Europa'n be —geroago mundu guztian— Andra Maria'ri eskin-tzen eutsoezan jaso oi ebezan ia eleizarik geienak.

Ez gero eleizak jaso bakarrik. Karmeldarrak, Europa'n eta nainun, beti iragarri izan dabe Andra Maria'ren semetzakoa. Orrela deitzen ziran. Baiña, au ez izan begiko askorentzat. Garai atan Ordena ta lekaidetik naikoa zan Europa'n, eta geiegi ugaritzea etzan antza egoki; ezta izen eder orregaz ager-tzea be. Ortik, ba, karmeldarrak askotan gogor burrukatu bear izan eben izen ori gogoko ez yakenen aurka. Eztabaida, istillu ta katramilla baclaez-padakoak luzaroan izan ziran, azkenean berezko lotsaz ta zarpillez jausi arte.

Karmel, alan be, Andra Maria'ren jaubetza zan, eta da. Karmeldar La-gundia, Berarena osorik. Zergatik, batez be? An-or, bakartadean berariz, jaso oi ebezan eleizak Berari eskiñitakoak ziralako; eroien izena ta jantzia Bere-ak ziralako; egunean-eguneango eskari ta otoitzak Berari zuzentzen eutseze-lako. Ezaugarriak gaur baiño naikoa ardura geiago eban Erdi-aroan; eta aitaturiko oneik naikoa lez ziran Karmel-ordenea guzti-guztiz Andra Maria'-rena zala adierazo, baietsi ta sendo egiteko.

Andra Mariak berak, gaiñera, sarri aitzen emon euskun bere semeak gi-ñeala. Agiririk? Ona bat. «Artu, seme —esan eutson Simon Stock'i, eska-

pularioa emonaz—, zeuretzat eta zeure semeentzat ezaugarri ziurra». Ta Ordeneak, izan be, ezaugarri ontan ipiñi izan dau urteetan zear bere Amaganako eraspen beroa, zati aundi bat beiñik-bein. Karmeldar Lagundiak, bere lan ixil ta iraunkorraren bitartez, egiazko goi-bizitzan azi ta aberastu nai ditu bere seme-alabak; eta au ezin daiteke izan, jakiña, azaletiko sasi-eraspen bat, deboziño utsal bat, barru-barruko suaren ezaugarri berezia baiño. Eskapularioa, sakramentu antzeko bat dogu-ta, jainkozko bizitzan eta daroanaren barne-maitasunean sustraituta dago, edo beintzat egon bear leuke. Geiago, begiz ikusten dan ezaugarri bat izan bear dau, biotzean su gori dagon maitasuna kanpotik erakusten dauskuna. Orrela, beraz, gutunaren balioa ezta edozelakoa be.

Noiztik ez ete da legezko barruan nabaitzen dan maitasuna ikurrez ta ezaugarri ez aragitzea? Karmeldar itzak esan nai dau, eskapularioaren bitartez naiz lenengo, naiz bigarren, naiz irugarren ordenakoa naiz kofradikoa izan, oroz-gain bere bizitza Jainkoari Kristo'gaz batera ta Andra Maria'ri eskiñita dagoala, ta gero, jantzi onen bitartez, Karmen'go Amak Lagundiari emon dautsola bere aparteko laguntasun-babesaren ezaugarri berezia.

Ezaugarri aberats onek, ezin daikegu ukatu, eguzki eder baten antzean ainbat mesede, esker eta ontasun ixuri ta zabaldu ditu arimen onerako. Ez gizaldi edo zertzelada batzuetan bakarrik gero, len eta orain eta beti baiño. Eta bidenabar, eleiztarren artean, txit arrigarrero zabaldua izan da karmeldar jantzidunak, edozein maillako izan, Jaungoikoaren Amari dautsen goimaitasun leial gartsua.

#### IV.—Barriztasun bideetan

«Eleizea —niñoan beiñola— Kristo'ren jarraitzailleok osotzen dogu. Ta Eleizeak ba-ditu bere goraberak; obeto esateko, eleiztarrok batzuetan kemen

**biziz** egin oi **dogu** Jainko-bizitza, beste **batzuetan** epelkeri-lezan narrastu **oi** gara. Amaseigarren gizaldian ba-zan **olango epel-aldia**, ta Eleizeak **Batzar Nagusi** bat **euki** eban **Trento'n** —gaur Batikano Bigarrena lez—; **Batzar** aretan asmo **ta** erabagi **sendo** eraginkorrek artu ebezan an baturiko gizon **jakitunak**: Eleizea, barru **ta** kanpo, erabarritu ta obeto antolatzea zan **orduko elburu beñena**. Ta, ain **zuzen** be, **Batzar ospetsu** arek **frutu** ederrak ekarri ebazan ondoren. Barritarik ondu ta zindotu naiezko giro berebizikoa **sortu ta garatu** zan gizartean, batez be eleiztarren gogo-biotzetan» (**Onbidea, Sarreran, 7**).

Teresa ama, «itxas-ertzeko ondartzza baizen biotz andikoa», Avila'n bizi zan **lekaime**. An ekarren bizi-modua, baiña, etzan Eleizeak nai eban aiñako artez ta barrenkoia. Karmeldar Ordeneak be barriztau bearra eukon; **ez bait** zan **aspaldi** baten Karmel-mendi tontorrean bakar-zale areik **eroien** antzekoa, **gorputzez latz, gogoz bero**. Beste aldetik, Eleizea areriaz **inguratuta egoan**: lutertarren alderdia —Eleizearen adar ausia aurki— aurrera joian bere **triskantz**a, naste **ta** gaiztakerietan. Ortik, «ezta lo garaia» diño Teresa'k. **Lanari** lotu bear, ba, barriraztasun bidetik ekiñaz.

Eta etzan emakume argi ta kementsu onen lana, edozelangjoa izan. **Bein**olako karmeldar alkartasunari —Trento'ko **Eleiz-batzarraren** asmoa **zanez**— indar barria erantsi eutson, lengo zugatz-ondoari egiazko kemena ezarririk. Urte gitxi barru, antxiñako enbor **zarra or** agiri **yaku** adar barri ostodunez **gaiñezka**. Ta karmeldar Lagundiaren birloratze **au** —Joan XXIU'garrenak diñoskunez— «**lozez jori** ta usainkiz gozo, udabarri antzera izan zan **Eleizearentzat**».

Laba gori **zan** Teresa'ren biotza, Jaunaganako maitasunean **sutua**; karmeldar Lagundiak lendik **eukazan legedi** ta ames-ereduak alik eta zeatzen bete **gura** izan ebazan. **Asmo** ori mamintzeko, lekaime **gazte batzuk** alkartu ta, Jainkoak berak **zuzen-azorik antza**, moja-bizitza barri bati **asiera** emon eu-

tson. Nun baiña? Bakartadean; gizarte-zarata utsal ta artu-emonik ez eban gura; bakartegi-altzoan Jaunaren mirabe zintzo izanik, otoitzari ekin, atsedan ta samurtasunezko jardun ixillean bizi; Eleizeari lagundu, tnixiolari izan. Teresa'k maite eban Jauna ta maite ebazan Arenak ziran arimak, eta dnak zerutar nai zituan. Kezka ori yakon biotzean akuillu.

Buru-ukapena ta otoitza, baruz, soin-ilduraz ta penitentziz nastean, gogozko bizitzearen oiñarri. Teresa'k ba-ekian au; ba-ekian zenbateraiñoko indarra euken oneik arimak zeruratzeko. Ta oiñarri bikain onen gaiñean eratu eban berak bere ixil-bizimodua. Ta ori dabe zutoin gogo-bizitza eratu ta indartu naiez dabilzan aren antzeko beste guztiak be. Ortik kanpora, len ta orain, autsa alperrik astintzea, jokabide badaezpadakoa litzateke. Teresa'renak, ostera, or zelako bizitasun jori eraginkorra daukan; arrigarria da, bai, Teresa'k orain lareun urte ta geiago arnasa barriz azkortutako karmeldar Ordenak zelako indarra dauan gaur Eleiz-altzoan, batez be lekaimen artean.

Barrikeria ez yaku, lenengoten beintzat, ezelan be atsegin, eta olako zerbait egin bear danean bertatik jagi oi dira eragozpen larriak. Orrelaxe Teresa'ri be. Emakume kementsu au, alan be, naiz-ta eragozpenok mendi antzekoak izan, etzan sekula gogo jausi ez kikildu. Ez, orixe! Bere bizitzan, jo ara ta jo ona, amazzpi lekaimetxe jaso zituan; amazzpi usotegi —gozoki esan oi dabenez—, uso zuri Jainko-zalez bateak. Geiago: emakume ez-eze, gizaki bulartsu be ba-zalako, gizonezkoen artean be, prailleen artean, barruan eroian su-txingar ori ixetu ta, oraindik bera bizi zala, prailleak be —Gurutzeko Joan deunaren eta Aita Grazian'en laguntzaz batez be— amabost komenturaino jaso ebezan, Teresa'k arnas barriagaz jantziriko legedia bizimodutzat arturik.

Eta gaur, bai monja bai praille, millaka ta millaka dira mundu guztian zabaldua, legedi erabarritu aren babespean bizitza daroenak. Eta Teresa ama-

ren barne-muiñetik berotasuna artuak? Aren arnasaz arnas dagienak? Aren Ordena barriztautako kimu ta adarrak? Zenbat ete dira oneik? Konta-ezin ala,

V.—Teresa ama ta euskaldunak

Teresa ama, beldruxera ta kezkatu zala, etzan bere ibillaldietan Euskalerriraiño eldu. Etzan, baiña, urriñetik ibilli: azkenengo komentua Burgos'en jaso eban, eta andik laster, bera ilda gero, beste bat Iruña'n; urte geiago bizi izan balitz, emen genduan ziurrik asko, euskaldunok be bere Jainkozaletasunean ixiotu bearrez. Eta ez eban aren biotzak pozaldi makala izango.

Dana dala, Teresa'k oso maite ebazan euskaldunak. Bere bizitzan euskal odoleko askogaz artu-emonan izan eban, eta oneik etziran aregaz uzkur ez muker ibilli. Karmeldar kondairak arakatu ezkerok, euskaldun ugari daurkiguz Gaztela bideetan Teresa amagaz topo egiñak. Asko aurkitzen dira bere moja ta prailleen artean, bere autorleen artean, diruz asko lagundu eutsoen famili txit adiñon eta erakoen artean. Mojen artean ba-ebazan euskaldunak: Jesus'en Madalen bat —Salazar eta Arbieto—, Orduña'ko alaba, 1555-11-26'an bateatua; guraso aberatsen alaba bakarra, ogetabi urtegez umezurtz; Teresa amak Valladolid'eko komentuan artu eban, bere eskuetan 1581-11-5'an profesia egiñik; Kalaorra'ra joan zan irasle lez 1598'an, eta Valladolid'en il zan 1614'an. Beste lau edo bost be, euron artean Jose deunaren Juana, Jesus'en Katalina ta Arteaga'tar Mari, bizkaitarrak ziran. Oneik zirikatuta edo, iñoiz erakutsi eban Teresa'k Orduña aldean komentu bat eragiteko guraria.

Autorleen artean euskaldun bi aitatu bear ditugu, naitaez: Aita Araoz eta Baiñez. Euskaldunak biok, bata jaiotzez eta jatorriz bestea. Araoz jesuita zan, Baiñez domingotarra. Antonio Araoz aita Bergara'n jaioa gendun, 1516'an. Teresa, barru-kezkaz baterik aurkitzen zala, 1555'garreneruntz, Avila'ra joan-

zan, Jesu'ren **Lagundikoak** an eukien **Ikastetxea** ikertzera; Teresa **aregaz** autor-tu zan, eukazan kezka **uxatu** ta ezialdi ederrean itxirik. **Garai** artan **Palentzia'n** **gotzain** egoan **Martin Axpe jauna** be —Artiñano'k dirauskunez— **zeanuristarra** **zan**, Teresa'ri ainbat mesede **egin** **eutsozana**.

**Aita Domingo Baiñez**'en **aitaita Arrasate**'koa **zan** **semez**; bera **Valladolid**'en **jaio** **zan** **1528-XI-29'an**; bere **gurasoak**: **Juan Baiñez Artazubiaga** ta **Frantziska Lopez Paldon**. **Aita Baiñez**, **alan** be, **gure lurraldean** **jaioa** **izan** **ez arren**, **euskalduna** **izan** **zala** **esan** **gengike**: **bere idazkera** **arin** ta **laburragaitik**, **euskalera** **berez-berezkoa** **yakola** **diñosku** «De Fide» **deritxon** **bere liburuaren itzaurrean**. **Euskalduntzat** **joten** **eban** **bere burua**: «mondragonensis», **tnondragoitarra**, **esatea atsegin** **yakon**. **Avila'n**, **San Jose** **konbentua** **Teresa amak jaso ostean**, **erriko agintari guztiak** **aren** **kontra jagi** **ziranean**, **euskaldun dominiku** **au** **izan** **zan** **batzar** **erdian zurtasuna**, **bakea** ta **legezko** **bideak** **are** **eskatu** **eutsezana**. **Eskerrak** **berari** **etzan** **betiko suntsitu** **Teresa amaren** **karmeldar** **barrikuntza**. **Batzar atan** **zan** **beste eusko-abizendun** **praille** **bat** **be**, **Agirre**'tar **Martin aita**, **Avila**'ko **prantziskotarren** **nagusi garai** **aretan**.

**Saso** **aretan**, **baita ba-ziran** **Madrid**'en —eta **noiz** **ez?**— **euskaldunak**, **erregearen inguruan**, **ango arazoetan sartuak**. **Ona** **bi oso ezagunak**: **Juan** **Idiakes** eta **Esteban Garibai**; **gipuzkoarrak** **biak**. **Eta**, **gaiñera**, **Felipe II**'garrenaren **eskribauak**. **Idiakes**'ek **diñoanez**, **Felipe II**'garrenak **oso** **maite** **eban** **Teresa ama** ta **asko lagundu** **eutson** **bere egikizunetan**. **Garibai**'k, **ostera** —bere **Oroitza**-**penetan dakar**—, **bi aldiz Toledo'n** **Teresa amagaz** **itz** **egin** **eban**. «**Asko poztu** **nintzan** **beragaz** —**diñosku**—, **baita** **Teresa** **bera** **be**, **ni** **ikustera** **joan** **nintzakolako**».

**Teresa**'ri, **bere bizitzako azken-egunetan**, **pozaldirik andienak** **emon** **eutsozana** **be euskaldun** **emakume jainkozale** **bat** **izan** **zan**: **Tolosa**'ko **Katalina**. **Orduan alargun**, **bere seme** **bi** ta **sei alabatxogaz**, **Burgos**'en **bizi** **zan**; **ez da**

kigu ziur zein errikoak ziran, ez Katalina ez bere senar Muntzaraz'tar Sebastian; kronika zarrak batzuetan gipuzkoarrak zirala diñoskue, beste batzuetan bizkaitar egin oi dabez. Baiña ba-dakigu merkatari aberats zirana.

Teresa amak bere azken egunetan, Burgos'ko komentua jasotean, ainbat buru-auste ta zoztor izan ebazan; danak eukazan kontra. Katalina argiak, orraitino, diruz ta adorez laguntasun ederra emon eutsan; etxe barrian gero biziko ziran mojatxoak bere etxean euki ebazan lenengotan; jan be beretik jaten eben Teresa'k eta bere mojatxoak illebeta osoan beintzat. Teresa amak, zelan edo alan esker ona erakutsi nairik, ona zer diñoan bere Lekaimetxeak deritxon liburuan: «Alargun santua, bizkaitar au; bai penitentziz bai otoitzez andia zan, eta aren onoiemenak esanaz asko luzatu naiteke, limosnaz ta goimaitasunez eder, adimenez ta adorez jator» (XXXI). Gero, Katalina'ren seme biak praille egin ziran, alabak, gaztetxo il zana izan ezik, moja; azkenez, amak berak be, 48 urteko zala, karmeldar abitua jantzi eban, Palentzi'ko komentuan, 1588-V-13'an profesa egiñik. 1608-VII-13'an il zan.

Maitasuna maitasunez ordaindu bear. Teresa'k maite ebazan euskaldunak. Eta euskaldunak Teresa ez ete? Oba ez! Gaur oindiño ikusi zelako jaiak ospatu oi diran bere egunez, Larrea'ko ta Markiña'ko komentuetan batez be. Bai, euskaldunak beti izan dautso olako jaiera berarizkoa. Ta ez erriak bakarrik. Aren gorpuzkin edo erlikiak asko zabaldu dira Bizkaia'n be; mirari andiak dagiez. Bizkai'ko Lege-etxeak, ori dala-ta, oizko idazkiak bialtzen dautsoz Erroma'ko Aita santuari, 161 I-IV-24'an, Teresa altaretara jasorik, santutzat jo egiala eskatuaz. Gernika'ko Batzar nagusiak be iñoiz artu ebazan olako erabagi txalogarriak, euskaldunontzat Teresa amagana laguntza eske jorik; 1676'garren urteko bagillaren 20'an, esate baterako, bosteun dukat bialdu eutsiezan Alba de Tormes'ko lekaimelai, gizaldiak zear an gurtzen dan gorputz santuaren aurrean gau ta egun, iñoiz itzungi barik, iraungo eban lanparargia euki egien.

Larra onek, ostera, aldioro erantzun izan dautso Teresa'ren maite-su bizi orri. Ezta edozelan be. Orain urte batzuk, 1963'an, karmeldar Lagundiaren barriztatzearen lareungarren urte-burua zala-ta, makiña bat eleizkizun, itzaldi ta batzar eder egin zan. Bere besoa be, Espaiña'ko lurralde guztietan, erriz-erri ta uriz-uri ibilli yakun, txalo gogoangarri ta eresi-jote bizi artean. Onaiño be eldu zan, eta geuk dakigu bakarrik euskal erri osoak zelako arrera berotsua egin eutson, eta Larrea'ko komentu onek bereziki.

Eta, izan be, beiñola Larrea'ko jaunak, eurak jasoriko eleiza zardaiña —Bizkai'ko Eskorial deitua— karmeldarren eskuetan iztean, erregu auxe egin eutsen: Teresa amak be, Karmen'go Amaren alboan, bere altara ta dedu berezia izan eizala. Ta Larrea'ko lekaretxeak beti bete izan dau jaun leiñargi arein guraria: Teresa ama, gizaldiak zear, dedu ta maitasunez omendua izan da beti bere txoko zoragarri ontan. Ementxe dauko, guztiz antxiñatik, altara txairo bat; urte barruan, ementxe daukoz bere oiñetan ainbat seme zintzo; ementxe egin oi yakoz, batez be bere jai-egunean, ospe andiko eleizkizun eta berbaldiak.

#### VI.—Ainbat komentu Euskalerrian

Aspaldi samarretik dira Euskalerrian karmeldar komentuak or-emen, usotegi antzera, zabalduak. Naparru barreneko Tudela'n asirik, Logroño'tik, Araba'tik, Gipuzkoa'tik eta Bizkai'tik zear, Kantauri itxas-ertzeraíño, 1835'garrenean, P. Mendizabal'en legeak prailleak uxatu ta komentuak utsik itxi ebazanean be, amabost bat ba-ziran.

Gero, urte mordoska ondoren, gauzak bake-bidetik eratu ziranean, barriro eskuratu ebezan apurka apurka; baiña guztiak ez: uxatze doillor aretan Tudela'n, Logroño'n, Lazkau'n, Balmaseda'n, Erandio'n eta Bilbao'n karmeldarrok geunkazan komentuak etziran gero, egundo be, gure eskuetara biurtu. Barriak jaso bai, ostera,





Larra'ko komentua ta jauregia Gernika'rako trenbide ondotik



Larra'ko baratza ta jauregia, 1936'ko gerra aurretik

Eta gaur prailleenak, Naparru'ko karmeldar Probintzia derítxogunaren barruan, oneik daukaguz: Naparrua'n iru, Iruña, Korella ta Billakranka; Logroño'n bi, Logroño ta Kalagurri; Araba'n bat, Gazteiz; Gipuzkoa'n iru, Donosti, Eibar ta Altzo; Bizkaia'n lau, Markiña, Larrea, Amorebieta ta Begoña; Santander, Hoz de Anero ta Soto-Iruz. Asko be asko, osterá, Probintzi ontako euskaldun praillez orniduta, Ameriketako Errepubliketan, Txile'n, Peru'n, Kolonbia'n, Panama'n eta Guatemala'n; ainbat Portugal'en, eta India'ko mixiño-lur zabalean eta Afrika'ko Malawi'n.

Karmeldarrok, gaur, mundu osoan gabiltz Kristo'ren fede-ereille. Emengoak ezkara gitxi, ludiko bazter guztietan baitira aurkitzen euskaldun karmeldarrok, Karmen'go Amaren goi-arnasa ta Teresa deunaren biotz-isi beroa giza-semeen barneetan sartu ta erne-azten. Ez, ortik doazanakaitik ezin esan daikegu: «Asmoak eder, egiñak lander». Eztira asmotsu soil, egikizun ederrik be, ba, ba-darabille bazterretan, Kristo'k irakatsia barriatu ta sendoazo nairik. Zenbat gazte, asmo bikaiñez josiak, doazan mixiño-lurretara! Ta ango lan egin bearra! Elias igarlearen, jantzi zuridun Amaren eta Teresa deunaren seme gartsu diran ezkeroz, ezin iñolaz be besoak gurutzetuta geldirik egon!

Eta euskal lurrean, zazpi probintzi oneitan, lan dagienak? Anclra Maria ta Teresa deuna, maitasun biok eskiñi ta eskatu, or ibilli yakuz gizaldiz gizaldi, ta ibilliko be bai Euskalerría euskal erri dan bitartean. Ez dakit, ziur-esateko, ezkutuko ala agiriko lana daben txalogarriago; baiña ba-dakit, ziur-ziur dakit, ezkutuan, euren lekaretxe barruetan, buru-ukapenez, soin-ilduraz eta otoitzez, atertu barik, lan mesedegarria dagiena; eta agirian, erriz erri izlari irakastegietan eta autortegietan mixiolari, garizuma barruan ez-eze, urteko jai egun guztietan be, lan txit onurakorra dagiena. Testigu dozuz ortan Iruña, Donosti, Logroño, Markiña, Eibar, Zornotza, Begoña...



## ANDRA MARIA'RI

*Euskaldun baratx zoragarrian  
lore Hrain bat kantari,  
jantzi marroi ta mantu zuriaz  
apaindurik ameslari,  
maitasuna ta usain goxoa  
eskeiñi naian danari.  
Baratz guztiko ama laztana  
Euskalerriko zaindari.*

*Eguzkiaren lenengo brintzak  
sortaldean agertzean  
urre-zidarrez apainduta  
estalki baten antzean,  
lóre argiak, umil ta garbi,  
semexoen baratzean,  
Jaungoikoari otoi dario  
ixillean, biotzean.*

*Karmen'go Ama dogu lorea,  
Euskalerrria baratza.  
Karmen'go Ama gure zaindari,  
gure alaitasun utza.  
Loren lorea, izarren izar,  
biotz garbien biotza,  
edertasunen edertasuna,  
zorion danen jaiotza.*

*Euskal semeak ain Ama orux  
ta garbia ikustean,  
maitasun osoz koroi eder bat  
jarri nai dautso soiñean,  
bere aurrean auspezturikan  
esanaz danak batean:  
tAma zaitugu, seme gaituzu,  
gorde gaituz magalean».*

*Ama, zeruan guk baiño leno  
koroitu zinduzan Jaunak,  
zuri emonik bere edertasun  
ta grazirik sakonenak.  
Danon Erregin jarri zinduzan  
guztion jaubea danak;  
ordutik gure Ama zaitugu,  
gu zure seme kulunak.*

*Jaunak koroitu bazaitu, Ama,  
zertan guk barriro egin?  
Ez ete gagoz, Ama, konforme  
Jaunak egindakoakin?  
Bai, pozik gagoz Jainkoak zuri  
jarritako koroiakin,  
baiña biotzak eskeintzen gatoz  
koroa barri onekin.*

*Zeru ta lurren Ama zaitugu  
goiko Jainkoak egiña;  
Zeuk arinduten dózu gizonen  
atsekabe ta samiña.  
Euskal semeok maite zaitugu  
ain zara garbi, apaiña!  
Ori dala-ta jarten zaitugu  
koroiduna, Erregiña.*

*Ez dozu bear koroirik, Ama,  
Erregiña izateko;  
ez dozu bear urre-zidarrik  
garbi, apain egoteko.  
Baiña ar zazu maitekor, alai,  
zuregan, Ama, betiko:  
koroi orregaz zure semien  
biotzak dagozalako.*

Abegi ónez arlu egizu,  
Karmen'go Ama Maria,  
gure biotz la bizitzarekin  
bat egindako koroia.  
Zeuria dozu Euskalerrria,  
euskal semea zeuria,  
Zeu izan zaite elbururaiño  
euskaldunen gidaria.

Euskalerrrian zagoz, Maria,  
euskaldun erri minduan;  
askatasunik bako errian;  
miraben erri gaixuan;  
kontzientzia ta justizia  
galdurik dagon lekuan;  
iñoren menpe bizi diranen  
negar-zotiñen onduan.

Begira, Ama, Euskalerrira,  
begira euskaldunari,  
malko artean itotzen dagon  
euskal seme minduari,  
eta eskatu beso gaiñean  
daroiazun semeari:  
ttgure poza ta askatasunai>  
eskatu, Ama, Berari.

Sendi zintzo ta bero baten lez,  
Ama, zeugaz alkarturik,  
zorionean bizi gaitzezan  
Jainkotasunez beterik,  
baratz ontako bedar txar danak  
atara eta jaurtirik,  
bake santuan bizi gaitzezan  
geureagaz jaubeturik.

Zure ezpaiñetan beti daukazu  
irripar goxo, garbia,  
biotz zabala ta begirada  
samur, goxo ta argia;  
urrezko ule ta aurpegian  
dizdizkari eguzkia;  
zelan ez maite gure biotzak  
zure moduko loria?

Gure abotsa ez bei ixildu  
zure aintzak abestutzen,  
gure burua ez bei nekatu  
bear dan lez Zu ezautzen,  
gure gogoa ez bei aspertu  
zure asmoak betetzen,  
gure biotza ez bei asetu,  
Ama! Ama! Zu maitatzen.

Jon Enbeita

# Larrea, gizaldiak zear

## I.—Zornotza, len eta orain

Urte mordotxuz bizi naz Zornotza'n, eta ba-dakit bertoko barri. Lur-aldez txit zoragarria danik ezin daikegu ezik emon, begi-lauso danak be errez daku-sana dogu-ta. Ibai ta mendi arteotan sarri sortu ta kokatu oi dan beeko lainoagaitik, bein edo bein entzun izan da Zornotza ez dala biziteko leku egokia. Baiña, batez beste, ibar au be osasuntsua da. Jentez, ostera, lengotik asko ugaritu yaku azken urteotan, danetik ugaritu be, emen inguruko eta kanpotik bertoratukoz. Auzo errietakoen antzera ez dabe izen-orde gaiztorik; baiña durangoarrai naiz larrabetzutarra zornotzarrak zelangoak diran

ítandu ezkeru, **au** erantzun oi dabe: «Zornotzarrak **epel ta maltzur, gizon-legez** ondo bizi izaten dakienak». **Eta ba-dakigu, esakun oneik** beti be ez tira izaten intxaur-oskol, **mamiña** dabenak baiño.

**Juan E. Delmas'ek**, orain eun urte **lez —1864'an—**, bere **Guía del Señorío de Vizcaya'n** Zornotza'ko kondaira-zeaztasunak emoterakoan, **au** ziñoan: «**Bere muga-barruak luzean legua** bi artzen ditu, **zabalean** bat eta erdi ta itzul-inguruka bost eta erdi; **ta** eurotan **larra** onez beteriko mendi-sail **ugariak dagoz**, baita **metal-ur gozoak** eta iru **auzunetan zabaldua, au da, Oudea'n, Boroa'n** eta **Zubiaur plazan, 2.517 arima. Zubiaur auzotegi au plaza** eder batek eta etxe-moltzo bik osotzen dabe, **ta plazatik zear** doa Bilbao'tik **Gernika'rako** bidea **ta** etheen artetik **zear** Bilbao'tik **Durango'rako**; **plazara** eldu baiño **lenago** dagoanetik, barriz, Zornotza'tik **Lemona'rakoa, Txilboketa izenez geiago ezagutua**».

Zornotza'k **antxiña parroki** bi eukozan. **Gaurkoa, guztiz txairo ta ederra,** Kortezubi'ko semea **zan** Iturrieta'r Domingo maixuak **asi** eban, **1555'garren** urtean, andik **urte** mordora, **1608'ko garagarrillaren 5'an,** Korpuzti egunean, lenengo mezea esanik. **Udaletxea plazan** bertan egoan, baita **neska-mutikoen-tzako eskolea, espetxea ta beste etxe-zisku batzuk** be; **ta gaixotetxe bat, Basozabal ta Belaustegi andra-gizonak jaso**; onez **gaiñera, iltegi, ostatu, botika, denda, aragitegi ta tabernak.** Errota, burdiñola ta olakoak be **antxiña-antxiñatik ziran** oso **ezagunak,** eta geroago, oneik gitxitzen **asi** ziranean, **Astepe'n** egin **zan** burdin-pabrika eder bat, **Juan Jose Jauregi'ren** pentzutan.

**Inguruetako solo-landa, zelai ta basoak ez dira aberastasun bakoak. Garia, artoa, indaba ta era guztitako garau ta aleak** artzen dira, **naikoa ugari;** egurrak, ikatzak eta etxegintzarako **zurak, urreko azoka ta saldu-tokietara, errez doaz** nainora, **andik-emendik** dituan bide erosoetan **zear.** Uretan be oso **aberatsa da, ta** or agiri bikain bat, erriak **Zubitxea'n** daukon **lau txor-roko iturri zabal** andia; **edaska ta abel-iturri bereziak** be ez dira **palta, ta ingurumari** beste ur-sorbururik **naiko; batzuk urats** edo beroak be bai.



**Erriz** be **Zornotza** ezta **atzo goizekoa**. **Erdi-aroan** bertan ba-eban bere **garantzia**; **Bizkaia**'ren **biotza lez da-ta**, ez da **arritiekoa**. **Gaur-egunean antxiña** atako etxe ta **jauregi asko**, mendiotako **egur-motak iduri**, betiko **suntsitu ta joanak dira**. «**Antxiñakoena** —diño **Delmas**'ek—, entzuna danez eta kronikak diñoenez, **Andrandegi deritxona dogu**»; **Aldana, Zornotza, Garai, Zubiaur, Jau-regi, Kanzelada, Belaustegi, Ibarra ta Berna** datoz ondoren. **Gaur auzuneen izenak doguz** oneik.

**Zornotza** eritxona **XH**'garren gizaldi erdirantza **jasoa zan**, eta ementxe **bizi izan zan luzaro** samarreen bertoko **ibar-jauna** edo baillerako **epaikari nagusia**; **gero, 1445'an**, **Kastro**'ko **bildur-gudari «prailleak»** deituak **Pedro Abendaño**'ren menpeko **ziralarik, iñoren pentzura au erre ta a sakabanatu** ebiltzanak, **su emon** eta **kiskaldu egin** eben. **Abendaño** onek **Zornotza**'ko **aide nagusi batzuekaz burruka gogorrak** euki ebazan, eta urte-mordo baterako **naikoa ondaturik itxi eban ibar guztia**. **Geroagoko urteetan be, prantses-gerratean eta karlatarrean, burruka** leku bete-betekoak **izan ziran** inguruetako **mendiska ta trokarteak**.

**Lenago, Madalena egunez, abere-feri eder bat egiten zan. Gaur, domekaz** geienetan, **azoka ta plaza** egin oi danez.

**Ogeta** bederatzigarren **jarlekua artzen eban Zornotzak, Gernika**'ko **Batzar**-tokian.

**1808**'garren **urteruntz, Napoleon Bonaparte**'ren **gerratean, burruka** leku egokia **izan zan Zornotza**. **Inglaterra**'ko **Blake jeneralak** eta **Prantzi**'ko **Lefebvre** mariskalak **Durango ta Zornotza** bitarteko **ibar-lauan, Euba** inguruan nunbait, **aurrez aurre** ipiñi zituen euren **gudari-saillak**, **bakotxak bere indarrak** neurtzeko **asmoz**. **Lefebvre**'k **21.000 guda-mutil** eukazan eta **Blake**'k ez **asko gitxiago**; **baiña ez arek ez onek ez eben adorerik izan** alkarri **eraso ta oratzeko, gogorrean** beintzat. **Saio txiki batzuk egin** ondorean, **Blake**'k **bada-**

ezpadan, gitxiago be ba-zala-ta, Bizkargi'rantza jo eban eta andik Bilbao alclera, ta inglesaren jokabide au oso txalotua izan zan; Lefebvre'k, bestetik, ariñegi ta iñori ezer esan bagarik jokatu ebala-ta, Napoleon eta Jose erregea bera naikoa atsekabetu ta asarre-azo ebazan.

Baita geroago be, entzute andiko egin zan Zornotza, 1872'gko maiatzaren 22'an, Serrano jeneralaren eta karlisten foru-batzordearen artean izenpatu zan alkar-artze edo bakezko egiuneagaitik. Karlata'rrak, garai atako foru-zale zintzoak ezin uka, euren alderdikoak gero ta jausi-aulago joiazalata, Orokieta'n, Mañari'n eta Oñati'n izaniko triskantza, matxura ta ezbearrak biotzean bizi-bizi ikutu ta zirrara galanta emon eutselako, bakezkoak egiteko gertakizunak antolatzen asi yakuzan. Baita egin be, batetik Serrano jenerala ta bestetik foru-batzarra osotzen ebenak Zornotza'n batuaz. Egia esateko, egiune ta alkar-artze ontako baldintza ta kondiziñoak ez ziran ain latz gogorrak izan, baiña batzuk, Velasko'k euren artean, ez ebezan orduan be iskilluak itxi nai izan. Eta burrukeak ez eban amairik ikusi. Toki batzuetan beintzat aurrera egin, bai, ilketa ta gaiztakeri ikaragarriak alkarren artean egiñik.

Azkenengo gudatean, barriz, orain ogetamaika urte, emen bizi izan giñe-nok dakigu bakar-bakarrik zclako dunbotsa izan zan alderdi bion artean emengo mendi-bizkar, muiño-egai eta piñudi tringuetan. Gizona beti anker, Kristok irakatsitako alkar-maitasun beroan bizi ezin dana!

Era ontakoak, ziurki, lenagoko Zornotza ta zornotzarrak. Eta orain? Eguzkiak arrezkero sarri egiña dogu bere sar-urtena, Torreburu'tik Saratzu'ra bitartean. Aramotz, Mugarra, Anboto, Udalaitz, Oiz, Bizkargi ta Lemoatx edurjantzi dirdaitsuz sarri apaindu izan dira. Arte orretan Zornotza erria, etxez ta jentez ugaritu ta azi egin da. Kaleak eder, bideak nasai; auzunak, batzuk

azi, beste batzuk, utsitu. Aldiak bere etenbako ibillan dakarrena, aurki. 1937'an, anai arteko gerra naskagarria zala zuzu ta bultzagai, etxerik asko erre ta kiskaldu ziran zearoan.

Gaur barriztua daukagu, dotore ta moduzko, kale zabal ta etxadi apain jagiakaz. Oraintxe amazazpi bat urte Etxano udalez Zornotza'gaz batu zan, edo, egi osoa esan nai izan ezker, batu-azo eben. Gaur Zornotza'k eta Etxano'k, bion artean arima mordo clabe: amabi milla inguru, or-or. Udaletxe ederra, erri bat txukun, artez ta egoki euki al izateko bearrezko diran tresna ta gauza guztiakaz; urrutizkin, urrut-idazkin, bidal-etxe, azoka, denda, jatetxe ta ardagela ugariz betea; orain ogetamar urte egozanakaz gaiñ, ainbat lantegi ta pabrika barri egokitu ta bertakotu dira.

Or Ibaizabal be, alboetako erreka ta latsez azia, Durango aldetik, len garbi ta orain loi, datorkigun ibai zearkalaria, ezker-eskuma zugatz orlegiakaz estalduta. Ara nai ona aldatzeko be aukera benetakoa damoskue Donostitik eta Bermeo'tik Bilbao'ra datozen trenak eta ainbat erritik berton zear dabiltzan tarranta ta beribillak. Zazpi bide nagusi daukaz plazan, Bilbao'ra, Lemona'ra, trenaren geltokira, Durango'ra, Etxano'ra, Gernika'ra ta Garaitondo'ra eroso garoezanak. Auzunak lengoz gaiñera ugaritu egin dira Astepe, Boroa, Ibarra, Dudea, Larrea ta abar; inguruetan, erri-zulotik urten-nairik, konta-ezin ala etxetxo zuri dakusguz edatuta. Auzune oneitan eleizotxorik bada: San Lorentzo Ibarra'n, San Millan eta San Antonio Euba'n, San Bizente Bediaga'n, San Migel ta Aita pasionistak Dudea'n eta Orue'n, Santa Krutz Izarango'n, San Martin Arano'n, San Juan Ofrendo'n, Gomuzio'n eta Ergoien'en, Sorkunde Garbia Astepe'n, San Pedro Boroan, San Ixidro Garaitondo'n, San Juan Bateatzaillea Larrea'n, Santa Luzia... San Iñazio Belatxikieta'n..

Eta bertoko zerua? Delmas'ek lenago: «Zornotza'ko zerua, Bizkai'ko ederenetarikoa dogu». Gaur be, nik uste, sasoz naiz sasotik kanpora, euri ta

izotz, giro txar ta eguzki eder, orrelaxe dala. Ta bertan bizi ziranakaitik **au** ziñoan: «Erritarrak, izatez, bizi ta pozkorak dira». Oraintxe be, len **esana** ukatu barik, alai ta txorbel dirala autortu bear.

Eta barruko bizitzan zelan jokatu oi dabe? **Miin** gaiztoak diñoenez, onetan otz **samar** dabilkiguz. **Egia** ete? **Osoan**, ez beintzat. **Ez dira** gitxi, **goiz-argiz mendi-azala** zidartzean, maindire artetik **jagi** ta euren arima **arazoak** eleizan egin daroezanak. **Egun barriak** kezka barriak ekarten ditu. **Igande** ta jaietan be, gitxi **gorabera**, **enparau errietakoen** antzera egingo dabez kristiñau bete-bearrak. **Ortik** ba, zornotzarrok, **albo** errietakoakaz euren erlejiño indarrak neurtu bear **ba'leukiez**, ez **litzatekez**, nire eritxiz, atzenengo **geratuko**, **Unekada** ontan, **igarri** barik **lez**, **Euskalerrri** osoan **gainbera goaz** erlejiño egikizunetan; **baiña gainbera** ontan ezin daikegu **esan** Zornotza **aurrelari** doakigunik.

## II.—Muiñorik bilkaiñena, Larrea

Larrea dozu **Zornotza** bailerako tokirik **jaiki**, **alai** ta pertxentena. Lenago, **jauregi** edo torre-etxe bat eta Doniane Bateatzailleari eskiñiriko **eleiz txairo** bat egozan bertan; **gaur**, 1712'tik, beti **bizitza** sendoz, karmeldarren lekaretxe **zuri nasaia** be, antxiñako eleizeari **dautsola**, **nai** andik **nai** emendik **so-egin**, **gutziz jaseko** ta **segail** daukagu.

**Ezta** diñodan **au** itz **utsa** bakarrik. Toki **zoragarriagorik!** **Ikuspegi** ta **paisaje** bete-betea! Zein goitik begiratu zein beetik, nekez aurkitu gengike begibiotzai zer **goza-nai** eskintzeko bazter ta **gaiñ-alde** egokiagorik. **Euskalerrri**an **ba-doguz**, eta **Bizkaia**'n batez be, lur-barru ta **itxas-ertz**, toki ederrak; **baiña** orrein artean, **lenena lez dogu** Larrea. **Esan au** geiegikeri dalakoan ontzat artu **nai** ezpa-dozu, **zatoz zeu**, irakurle, **udabarriz** **nai** **neguz** toki orvtara, ta **ikusi zeuk**, begi biak **zabal-zabal** egiñik. Nik **neuk**, mutiko nintzanetik,

**berarizko** begiramena dautsot **gaur** Karmen'go **Amaren usotegi lillurakor** dan **euskal lur-zati** oni. **Urriñetik agiri** da, **gau** **ilargitsu** baten maitagarri billera **lez**, edo-ta **gatzelu zar** sorgindua iduri.

**Ikusi**, **esan** dot. **Bai**, **ikusi**, **Larra** bazterra **ikusgarriz** aberats **dago-ta**. **Baiña guztiok** ikusten ete **dogu ezker-eskuma** bizi-bizi **ereiñik** **daukagun** **eder-tasunaren** dirdira? **Or untzea!** **Gauza** batera errez **ekandutu** oi **gara**, ta bertan **aspalditik** bizi **garealako** edo, beti **gauza** bera ikusteagaitik edo, **askotan ez gara** jaritxi oi **ingurumari doguna** aintzat artzen. **Begitu** arren ez bai dakie **danak ikusten**, **bear** dan **lez** beiñik-bein. Ikusten jakitea, **izan** be, **arima** **sentikor** leunena **dozu**. Ikusitakoari barruan **dauan gun** **ixilla** **atera** bear yako.

**Izadia** berez da eder. **Giza-semeok**, trebe **gareanez**, eder ori **jaso ta gaiak** **alkar** korapilloturik, **eder barria** be sortu ta **antola** geinke, **arte-lan** **bikaiñak** buruturik. **Baita trauskildu** be, ez **gitxitan**. **Gaur-egunez**, **lur-zati** oni berez **izan** bear geunskion **maitasuna** erdi-galdurik, **diru-zalekeri** bizitan, **ez dau-tsagu lur-alde** ontako edertasunai **kasu** andirik egiten, eta bertoko bide, etxe, kale, ibai, mendi ta bazterrak **ez daukaguz** bear baizen garbi ta txukunik. **Dirua irabazi ta bizi-gura** larregiak errime loitu **dauskuz**, zori **txarrez**, **bazterrik** asko. **Baita Larra aldea** be, etxe barregarri batzuk **jasoaz** baitik bat. **Ikuspegi ta paisajez** bakarrik **ez gareala** bizi? **Egia**. Gizonok arima ta **soin gara**, ta geure barruko eder-gosea **asetua** izan dadin, bizitzari **ames-itxura** emoteko, bear da zerbait. Jainkoak ereiña **eurrez dogu** izadian, eta **gure euskal lur** onetan bereziki. Gizonok **asmatu ta egiña** be, bedi **albaitanez** eder ta txukuna.

**Aspaldiko** gizaldietan **Larrea** deritxogun muiño-bazter **au ezta leku txarra**, ez lurrez, ez **auzoz**, ez **osasunez**. Ona **XVIIH'**garren mendeko kronikalari batek diñoskuna: «**Larrea, Bilbao** uritik **iru leguara dago** iparreruntz, eta bira **Durango**'tik eguerdi aldera. **Muiño jagi** samarrean **apatz jarrita** **daukagu**, ta **augaitik** edo, bertoko giroa **arras osasungarria** da; ta onelan, **amairu** urte

bizi dira bertan karmeldar prailleak, iñoiz be olako gaixo andirik izateke; txakil samar ona etorritakoak, ostera, osasuna jaritxi izan dabe. Mendi artean egoteko zeru zabal ederra dau toki onek; mendiok, baiña, urrin samar dagoz, eta kalte baiño edertu geiago dagie bertoko inguru dana. Errekazto ugariak datoz goitik beera —Arazosa'koa ta Garaitondo'koa—, ta ez da emen urterik legorrenetan be urik palta izan. Malats ekartsua da bertoko lurra, ta jakera oneko ortuariak eta fruta gozo-gozoak artzen clira. Inguru guztiak larra ta mendi diralako, ezta gari ta arto askorik ikusten; larra-mendiok, izan be, lur zuriak baiño egoki ta onurakorrago yakez bertokoai; oneik landu ta zainzen neke gitxiago dabe, ta eurotako ekarria burdin-olak ikatzez orniduteko».

Ori lenago. Gaur naikoa galdu dau antxiña bateko basa-edertasuna. Len etxe banaka batzuk baiño etziran lekuan, gaur etxe ta txalet dotoreak dakusguz; txiki ta andi, era guztitakoak. Zornotza ertzean, txoko baketsu bat, zugatzez eta loraz pitxituta. Bertotik doaz bide zabal bi, bata Garaitondo'ra ta Bizkargi'rantza bestea, solo-beresi, zelai-landa ta piñadi artetik zear. Ziñemintzak aterateko, bai leku eder! Gernika ta Bermeo'rako tren bertotik dabil, aspertu barik, sagasti ta trokarroetan zear. Eskumenean lez agiri da erriko eleiz nagusiko torrea, beti itzal andiko; ta, begien aurre-aurrean Zornotza osoa, etxe, jolasleku, ibiltoki ta pabrikaz gaiñezka.

Eta ikuskizun zoragarri onen erdian kokatua, erestun biribilleko pitxi antzera, antxiña bateko Larrea jaunen eleiza ta geroago eregi zan karmeldar komentu zuria. Aurrez-aurre Torre-etxea, ta zugatz-mota ugariz jantzitako baratza. Euskalerrian ba-daukaguz onako baratzak, ez gitxi; baiña ni neu Larra'ko auxe ederrenetarikoa zala-ta nago: eritxi au ezta arritzekoa, ikasle kaskar nintzala bost urte beintzat bertoko zedru, izai, magnoli, adelpa, lore ta osto artean emona nozu-ta.

Azkenengo gerratean Larra'ko komentuak eta eleizeak ez eben ezer izan, kañoi-zartako ta bala-markaren batzuk atera ezker. Torre zarrari, baiña, ez

eutson zoriak lagundu. Auzoko mendietan ebiltzan gudaroste kontrako biak alkar jazartzean, suaren alegai izan zan. Andik laster, gerra amaitutakoan, gaiztakeri andiago egin zan oraindik: Jauregiko orma zar ederto landuak eta baratzekeo zugatzak oso-osorik eratxi ta, baratz ta etxe-zoru, dana solo biurtu. Zori oneko dirua ta bizi-bearra!

### III.—Larrea'ko patrioiak

Bederatzigarren gizaldiruntz eta, Naparrua'ko erreñuak Bizkaiaren biotzeraiño luzatzen zituan bere beso giarrak. Oraintxe be ba-da Zornotza'n, plazatik eleizara goazala ezkerretik, lau-bost etxek osoturiko auzunea, Nafarroa deritxona. Ta ementxe, Ibaizabal ondoan, eleizarako zubitik berreun bat metrora egon zan sartuta napartar erreñuko mugarria, 1150'gko urtarillaren 28'an bizkaitarrak, alkar arturik, azpikoz gora jarri eben arte. Baita, bein baiño geiagotan, bizkaitarrak napartarrai lepoa berotu eutsen ementxe, eztabaida ta tika-mika latzean; Bedia'ko Lope Ortiz'en egunetan, batez be, eundaka napar ta arabar jausi ziran berton matraka ta muturka bizian.

Idazki-kopi zar batek diñoanez, Larrea'ko jauregi edo arretxia, Iñigo napar erregeak 877'garren urtean eregia da. Zornotza'n eta Etxano'n ba-zizan beste jauregi batzuk be, entzute andikoak, baiña guztietan ederrena auxe zan nunbait. Jabetza zabala eukan inguru oneitan, eta dana, etxea ta jabetza bere alpez nagusi zan Lara'ko Iñigo'ri emon eutsan ondorez; jabetza aiatuaz au diño idazki-kopiak: «ibaitik ego aldera Kantabria'n Arabamendi deitzen dautsen mendi alturaino». Arabamendi au ez dakigu nun egoan. Gorbeia'ko Arrabalanda bear bada?

Arretxe oni, jauregi oni, zelai ta larre-leku ederrez inguraturik egoalako edo, erregeak berak ipiñi eutson Larrea izena. Oi legezko gauza askotan eskubide bereziz ornidu eban, Torrea bera ta biraka eun besartada kalteren

bat egindakoentzat be **igesleku lez** jarririk. **Eta** ez bost **urterako**, beti-betiko **baizen**, erabagi **onen** kontra **iñok ezer egingo ba'leu**, Jainkoaren **asarrean jausirik**. Abarkak oiñetan eta **aizkora** gerrian ebiltzan **jauntxo** areik etziran edozelakoak.

Larrea'ko **etxe-jauregi** ontatik urtenak dira seme **argi pilloak**. **Amaika gizaldi lez** ditu **bere** bizitz-edestian, eta **urte-sail** onetan ez **dauz** seme gitxi sortu bai jakituriz, bai **iskilluz**, bai burubide apartekoz **ospatsu izanak**; euro-tatik **asko ta asko**, gobernu-arazoetan, **plaza ta** idazkaritzetan, **España** barruan eta mundu **zabalean** be bai **auztegi ta** kantziller **zeregiñetan aundi ziralako**, ainbat ikur eta **ezaugarri** bereziakaz **apaindu ta** omenduak. **Lope Gartzia Salazar** istorigilleak diñoskunez, **Santxo Santxez izan zan Larrea abizena** lenengoz eroan ebana, **ta Santxo au Bizkai'ko jaun**en odoletiko Fortun **Santxez** Fresnedo'ren seme **baten alabagandik etorrena zan**.

Urtez urte, **onako** beste oiñetxeak **lez**, sarri **suntsitua izan zan**, eta barrero **jasoa**. Zornotza'ri orain, agiri **ta** paperetan beintzat, Amorebieta deitzen **dautsagu**, **naiz-ta** erriak oraintxe **bere** antxiñako izenez **ezagutu ta** deitu.

**Amorebieta au** nundik datorren ez **dakigun** izena da. **Eta**, **ziurrik asko**, beste toki **ta** erri-izen **askogaz** jazoten **yakuna jazoko da onegaz** be: **agiririk ez daukagula gaur**, ez **izkuntzan** ez edestian, oneik **azaltzeko** errazto **ta** biderik. Iturritza'k, Berriz'ko seme argiak, bere Bizkai'ko kondairan diñoanez, **Palastro'k** beiñola Zornotza inguruan **liskar gogor azpiratu zituan buruzagi** edo **kapitan** kementsu bi, **bata Amore ta Bieta** bestea; ortik ei dator izen **ori**. **Baiña** ez **dau** susterrik **antza** berriztarraren **esanak**. Agotik **agora** datorren beste ipuin **lako au** be askotan entzuna da: **Dima'n** bizi **ziran aizta** on bi **Etxano'ra** etorri oi ziran **meza** entzuten, emengo eleiztar ziralako; **baiña** **batzuetan**, bide **luzea** ibilli **bear** eben **eta**, **etziran sasoiz mezarara** eltzen; **ainbat** bider **meza** entzun barik **gelditzeaz** minduta, **sagarako kanpaia** geienik entzuten eben **lekuan eleiza** bat **jasotea** erabagi **eben**. **Ta aizta** biak **alkar** txit maite ebelako, **maitasun biren** tokia edo **Amorebieta** deitu eutsen.



**Dana dala, Peña Galdotxa**'k edesten **dauskunez**, Larrea'ko **jaun** batek, Zornotza baillerako **jabe zalarik**, oso **txeratsua ta miiñ-labana** berau, bere alderdiko **egin zituan laster Larra-jauregiaren** kontrako ziran **Amorebieta** eritxen **buruzagi** biren aide ta senidartekoak. Amorebieta **buruzagi** biak, **au ikusiaz**, euren adiskidetu ta **alkar** arturik **iskilluz Larrea** kapitanaren kontra **joan** ziran. Oni lenengo torre-etxea erre eutsen, eta **gero** berau ta ezeren **susmo txar** barik etxe **barruan** egozan emazte, **iru seme ta sendiko guztiak** il ebezan. **Garai** artan etxetik kanpora bere senidartekoakaz aurkitzen **zalako**, Larrea kapitanaren **12** urteko **alabatxo** bat **salbau zan** bakar-bakarrik.

Len naikotan **lez**, or orain be erroz-gora **torre-etxea**. Goian **aitatu** dogun **Palastro**'k, Larrea kapitanaren **anaiak**, ezin zoritxar ori **ikus**i. **Triskantza** **ikaragarri**gia zan **gaizto** areik **egiña**. Ta ezin eban doillorkeri ori, **ezegaitik** be, **bengantza** barik itxi. Ta Larrea'ren senidarteko **guztiak** **alkar** baturik, Amorebieta **buruzagien aurka jagi** zan, **Zornotza'n** berton, ibai **zabal** ondoan **sekulako** burrukaldia, **galdu** ta irabazi, eukirik. Alderdi bietakoak **luzaro** jokatutu eben orrela, **odol-jario**; azkenean, **Palastro** kementsuak urten eban **garaille**, Amorebieta biai ta arein **jarraitzaille** geienai eriotza emonik. **Garaipen** onen ostean **Palastro** **geratu** zan, ekaitz ondoren tantaia **lez**, ibar **ontako nagusi** bakar. **Seme-alaba ospetsu** asko euki zituan, eta beronen odolekoz eta Larrea'ren alderdikoakaz bete ta **ugaritu** ziran emen **inguruko** etxerik **aurrenengoak**.

#### IV.—Larrea eta Argomanitz

**Antxiñako gauza oneitan** ezta errez **argi** egitea. Are **gitxiago** belaunez **be-laun** bertoko istoriari **jarraitzea**. **Gaiñera**, ori ezta nire **asmoa** be. Bete-betean beintzat. **Goialde laiñotsu** oneik itxiaz, ba, **goazen** istoriak **argi**ago darakus-**guzan** alderdi errezagoetara.

Etxe ontako Larrea'k Araba'n be agertzen yakuz, jatorriz lez. Iru guda-gizon argitsu bai beñik-bein, irurak Juan izenez ezagun, XVI'garren gizaldian nabarmentzen dira. Lenengoa Alemani'n il zan, Duxa'ko erasoaldian, eta be-raugaitik Karlos V'garrenak esan oi eban: «Españiar obarik ezta Alemani'ra joan». Bigarrena, Peru'n, Blasko Nuñez Vela errege-ordezkoaren ikurrinpean, aginterri itxaropentsu a lurra jorik itxi eben alkar-arteko eztabaida ta gal-zorien erdian be, beti Erregearen ondoan zintzo ta leial jokatu ebana. Ta irugarrena, azkenez, Gazteiz'en jaioa, Flandes'ko gerraldietan nabarmendu zan; baita onen anai Pedro, Portugal'koetan be.


Istori-egunetan aurreratu ala, Zornotza'ko Larra-etxearen etorkia gero ta argiago ikusten da. Emen ondo dakusgu, bai, Juan Larrea, perutarra, Felipe IV'garrenaren denporako Juan Larrea legelariaren osaba aitaita izan zala. Sor-terria garai atako uts-bete ta gorabereetan bizi zan, dudarik bage, ta Larrea guda-gizonak be, eguzkitik eguzkira dizdiz-azo zituen ezpatak zorreratu ta XVI'garren gizaldiko atsedeen-tokira batertzen dira, XVII ta XVIII gizaldie-tako jakitun eta errege-jauregitar izan ziran Larreatarrai leku egiteko. Ta orain be, esku-idatzi zarrak diñoskuna gogora daigun: «Etxe leiñargi onek gizaldi guztietan sortu dauz iskilluz (armaz) eta jakituriz aundi izan diran semeak».

Gorago aitatu dogun Juan Larrea kapitana Peru'n aundi egin zan; eta antxe eukazan etxaguntza galanta ta lur-zati ikaragarriak. Onen loba bat, au da, Rodrigo Larrea, Katalina Ibarra'gaz ezkondu zan, eta senar-emazteok sartu edo jarri eben etxaguntza, maiorazgua Zornotza'n, 1506'garren urtean. Ez-kontza ontako seme bat Argomanitz'en bizi izan zan, eta 1600'ko aprillaren 17'an Argomanitz'en jaio zan Juan Bautista Larrea ta Larrea'ren aitalena.

Argomanitz Araba'n dago, Burgo deritxon udal-erri altzoan. Erri lez ezta gauza andirik; baiña bere txikian, toki ederra dala ezin ukatu: andiki-kutsua ezarten dautson muna batean dago, areizti ederrakaz inguratuta. Bertan, erri-



Larrea'ko jauregia, antxiña egoan lez



Larra'ko komentua Ategorri'tik eta eleizearen saietsa sarkaldetik

tik ur samar daukagu Larrea deritxon auzunea be. Ogei bat etxe ditu guztira, ta danen gaiñetik dotore agiri da, zaindari begi lez, kanpantorre apaindura andi bakoa. Ta, zerbait beratxoago, baiña beti nagusi ta gailen, Larrea jau-regi perkatxa. Aren balkoietatik begitu ezker, ikuspegi nasaia dastatzen dogu: lenengo lerroan lez, Estibalitz mendi-kumea, istoriz beteta; bekoz beko ta laiño artean urturik lez Gazteiz'ko torre-gaillurrak; eta, ipar-alderantza, emengo inguruetan andi ta altsuena izan zan Gebara'ko gaztelua, bere azken-ondakin aintzatsuak erakusten.

Jauregiaren aurrekalde arlandu zurizkoan eta arri ondo landuzko teillatu-ertz-pean, birritan dator zornotzar Larrea'ko eleiz-aurrea koroatzen dauan ezkutu edo armarria: zugatz bat bost panela edo zumar-ostogaz, zuzki edo aspazko egal-apaindura, 1227'an, San Andres egunean, Baza'n izandako burru-kaldiaren gomutaz; eta guzti au duke-koroiaren gerizpean, Koroi-jaurlaritzak bai emotsan ortarako eskubidea; bira-biraka be, lau alderdietatik, beste apaingarri asko daroaz.

Armarri berau aurkitzen dogu Argomanitz'eko parrokiaren be, Kataliña deunaren eleizatxo izan zanaren ate gaiñean, gaur itsututa dagonarren. Erri-an bertan, jauregia baiño lenagoko beste etxe baten, arriz ta ladrilluz egin-dakoan, eta burdin-sare askogaz dotoretutakoan, argi-argi agertzen yaku an-txiñako ezkutu au, Zornotza'ko torre-etxeakoaren anai, ziuurrik asko. Alde ta diFerentzi onegaz: Argomanitz'eko ezkutuaren buru-oskol edo zelada esku-mara begira dagoala.

V.—Juan B. Larrea jauna

1600'gko aprillean Argomanitz'en jaioa dogun Juan B. Larrea ta Larrea'k Salamanka'ko Ikastetxe nagusian ikasi eban gazte-gaztetatik, bertako katedra batzuetan arako ta onako gaiak erakutsiaz. Gero, Granada'ko errege-

Kantzilleriko entzula izentatu eben, eta Diru-arazoetako Aolkuko. Azkenez, Felipe IV'garrenak Gaztela'ko Aolku (kontseju) nagusiko ministrutzara jaso eban. Santiago'ren zaldun alkorgoko be ba-zan, edozertarako trebe agerturik beti ta nun-nai; adimen argiko ta biotz zabal, burubide ta eginpideetan oso trebe; jakituri andiko gizon, legelari azkar, diru-goraberetan zur, garairik estu neketsu areitan be. Oroz gaiñetik, baiña, legelari; idatzita liburu mordtxoa itxi euskun, letrau ta auzi-gizonak begiko dabezan liburuak: «Ale-gaciones fiscales», «Decisiones Granatensis Senatus», «De foederibus principis christiani», «De auctoritate magistrorum seu ministrorum publicorum», «Commentario in ordinationibus», eta gaiñerakoak.

Larrea jauregiko maiorazguaren jabe zala, 1650'garren urteruntz, beste gauza askoren artean, Zornotza'n be, gizaldiz gizaldi entzute andikoa izango zan leku santu edo jauretze eder bat laga euskun: zaldun argi onek, bere oiñetxeari buruz-buru, bere diruaz eta pentzura jaso ta KrisHo'ren aurrelari Juan Bautista doneari eskiñirik, Larrea'ko etxaguntzari gaiñetu ta erantsi eutson eleiza jagi apaiña. Eleiza onen zaindari bere ondorengoak izentatu ebazan, 1651'garrenean kapellau birentzat errenta ugarizko kapillautza bi be jarririk.

Zein urtetan jasoa ete zan lenengo eleizatxoa? Ez dakigu. Onetzaz ez diño ezer Larra'ko kronikak. Ramon Iturritza'k 1705'an izan zala dirausku; baiña istorigille a oker dago antza, eleiza au 1651'garren urterako, Juan Larrea zaldunak aitaturiko kapillautza biak ipiñi ebazaneko, jasorik egoan eta. Larra'ko kronikeak be, au diño: lenengo eleizea txarto egiña ta txikiegia zalako, 1695'garreneruntz beera bota ebela, ta Juan Larrea ta Henaio'k, lenengoa jaso ebanaren lobeak, toki aretan bertan, beste bat zabalagoa ta ederragoa moldatu ebala. Iru gizaldi igarota be, ain larden eta eraiña ta jaseko gaur be agiri dana. Lenengoa, beraz, beste dokumentu batzuetatik atera geinkenez, 1640'tik 1648'ra bitartean eregia zan.

Juan Bautista'ren arreba bat, Mariana izenez, Argomanitzfen bizi zan Juan Perez Larrea ta Henaio'gaz ezkondurik; eta ezkontza ontatik jaioa dogu Juan Larrea ta Henaio, Felipe IV'garrenaren ministru izan zanaren odol-loba, ain zuzen. Osaba altsuak ez eukan seme-alabarik, eta bere etxe ta jabetzarako ondorengo barik aurkitzen zala ikusiaz, Madrid'era eroan eban bere loba, ta an, loba gaztea buru-argi, trebe ta ernai, edozertarako gai zala ikusirik, bere ondasunen jabegai izentatzea erabagi eban. Era onetan, osaba aberats azkarra il zanean, Juan Larrea ta Henaio'k artu ebazan Larra jauregia ta bertoko eleiz jaikiaren zaindaritza.

Jaun au, esan dogunez, Argomanitz'en jaio zan, eta eleiz-paperai jaramon egiñik, 1642'gko zezeillaren 26'an bateatua izan zan. Zoria irripartsu agertu bai yakon umetatik, Zornotza'ko Larrea'n eukan erentzi ugariari bere jaiote-txeko ondasun oparotsuak gaiñetu eutsozan. Osabagandik arturiko politika erakutsiak, barriz, kontsejulari leber ta moduzko egin eben; eta, eskerrak oni, errege-etxeko begipeko bizkor, andigura ta goi-goserik asko bere inguruan euki zituan arren, beti iraun eban ak kargu garrantzi andikoetan. Kalatraba'ko zalduna, Guda-batzarreko Aolkulari, Karlos II'garren erregeren Indikamarako, Laterriko idazkari, ta azkenean, erregearen arazo guztien arduradun. Erregeak oso maite ebalako, au Neubourg'eko Mariana andera gurenagaz bigarren aldiz ezkondu zanean, erregeak berak aukeratu eban zaldun au, ezkontzea legezko bidetik zuzen-azo egian.

Juan Larrea'k maite eban Zornotza'ko baztera. Madrid'en andra andiki bategaz, au da, Teresa Frantziska Mudarra ta Herrera'gaz ezkondurik eta Korteko arazo ta gauzai lotu-lotuta egon arren, etzan sekulan aztu euskal lurrean eukan txoko zoragari onegaz. Ta, izan be, ementxe zitun bere momenturik atsegingarrienak, emengo basa-aizea arnastuz ta bertoko baserritar onakaz alkar-izketa ta autu gozoak eukirik. Madrid'en biziagaitik aukera ta ezti, sorterriko lurak saka egion, maitasun bizitan, euskal azalera, Iparra-girre'k lez esanik: «Baiña biotzak diño: Zoaz Euskalerrira!»

España'n errege-jatorria edo dinastia aldatu zanean, Juan zaldunaren izar dirdaitsua beerantza asi zan; Karlos H'garren aginpideko azken-egunetan gero ta motelago ikusten zana, gero osorik itzali zan Felipe V'garrenak aginpidea artukeran. Austria etxeko morroi zintzoa izan zan, eta etxe au aldatz bera astean, aregaz batera jausi zan, aurreko erregearen beste zerbitzari asko jausi ziran lez. Gorriak ikusi bear izan zituan antza, lenengo espetxean eta gero Bizkai'ra jaurti ebenean; emen, Zornotza'ko oiñetxea izan eban preson-degi. Erbesteratze au, alan eta guzti be, goiak naia izan zala dirudi, Jaunak ementxe erakutsi eutson beiñik-bein, Larra'ko eleizearen ardura ta zaindaritya Karmeldar prailleai emotea gura ebala. 1712'an osotu eban goitiko gurari au.

Ekaitz arteko euri-jasa igaro zanean, Juan zalduna Madrid'en agertzen yaku barriro be. An il zan 1713'an, Valdeiglesias'eko San Martin'en. Eta berak nai izan eban lez, «egitan zaldun diranak zaldun iskillotu oi diranez, armaz ta iskilluz jantzi ondoren», Uriko Sorkunde eleizan lurra emon eutsoen. Ez euskun testamenturik egin, baiña emazteari ta ordun Avila'ko eleiz nagusian kanonigu zan Prantzisko bere anaiari, bene-benetan eskatu eutsen, bete egieia bere azken borondatea. Ta, dokumentu luze batean agiri danez, olantxe egin eben biak. Biotz andikoa zan Larrea jauna, ta guztientzat dau zerbait: adiskide, morroi, arma-mutil, gelazain, ezta iñor be ezer bagarik geratzen. Errukizko egintzetan izten dauanak paper-sorta apartekoa osotzen dau.

#### VI.—Jauregia ta eleizea

Aldi laiñotsuetan artzulo ta lauburupean bizi zan euskal erriak ez eban beste asmorik bere ibar, mendi ta zelaietan askatasuna zaintzea baiño. Baiña onen maitagarri yakon askatasuna erromatarren oinpean edo arrisku aundian ikusirik, bertoko guztiak alkar artu ta gizartean bizi bearra izan eben, etxeko jaunen artean erri-arazoak artez eroateko gauza zan buru bat be aukeratuaz.



Baita laster oartu ziran, erromatarrek euren irabazi ta ondasunak torre-etxe ta gazteluetan burua gordeta jagoten ebezala. Arein irakatsia beingo baten zabaldu zan eusko nagusien artean be, ta arein antzera euren bizitzak eta etxeak zaintzen saiatu ziran, ortan gerra-gai guztiak ontzat artu ta erabillirik. Orduan sortuak doguz torre-etxeak, jauregiak eta gazteluak.

## **F**

Torre-etxe, jauregi ta gazteluok geienbat, auzunetatik urrin samar, menditxo gaiñetan egozan, burrukarako edo norbere ondasunak zaintzeko toki erosoan. Gordeleku oneik jasoteko oitura, egia esan, euskaldunak albo errietakoak erakutsita ikasi eben. Kastilla bera -ortik yatorko izena: gaztelu, Gaztela olakoz bete-beterik geunkan garai baten. Eta XIII, XIV ta XV'garren gizaldietan kontatzea be errez eztan aiña torre-etxe, jauregi, gaztelu ta olako jaso ziran gure artean, Napar-aldean eta Araba'n batez be; Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n ez ainbeterik. Emen be, an-or zabaldua, ba-ditugu Oiñatz eta Ganboatarren aldikoak baitik-bat. Baita badira gure lurraldeetan, Espaiña'ko -Medina, Coca, Segovia, Cuellar, Simancas, Almazan ta abar- ederrenen antzekoak be: ikusgarriak nunbait Butroi'koa ta Arteaga'koa.

Larra'ko patroien etxea ezta gaztelua; ezpaitauko arri-morko andirik, ez almenarik, ez ertzetako torretxorik, ez barbakanarik, ez kañoi-zulorik, ez leio esturik, ez zubirik, ez mear-biderik, ez argi-begirik. Larra'ko au oiñetxe ta jauregi eder bat dozu. Ori bai, ederto baiño edertoago egiña, lau alderdiak guztiz apain landurik; are-arrizkoa. Aurrekaldea eguzkira begira dauko; erclian, iru leio zabal balkoidun; goian, lau leio txikiago, erdiko biak balkoiakaz; eta onein azpian patroien ezkutu andia; sarrera bi beian, burdinsarez itxita, albo bietan zaldi-okuilluak ditula. Eskumako atartetik gora joian mailladi zabal lenengo ta bigarren oiñera; lenengo oiñak saloi eder bat eukon aurretik eta alboetan gelak, bigarrenak be bardin saloiak, aretoak eta gelak, eta leioak lau aizetara. Teillatu-ertza, oso jagia. Alboan eukan, sarkalderuntz, gorago aitatu dogun baratza, era askotariko zugatzez eta igali-arbolaz beterik. Egundoko atsedentokia, ziñez!

Urteak urte, **erentziz lez, Teofila Agirre**-ren eskuetara etorri **zan**. **Eta azkenengo jaube** onek, **1903'an, Anjela Caminero, Ustara** zanaren **alargunari saldu** eutson, **jauregiak** zitun ondasun eta **lur-sail guztiekin**. **Jabe** barri onek, ostera, bere eskubideak zorrotzegi **zaindu gura-ta**, eztabaidarik naikoa **izan eban**, eta azkenik, **gogaituta**, osorik, berak erosi eban lez, bere koñetu **Rikardo Ustara**-ri **saldu** eutson. **Ustara au**, barriz, Larrea'ko **jauregia** erosi **ta laster gexotu zan**, eta **inguru au** bere osasunerako **etzala egoki** ikusirik, **jauregia saltzeko erabagia artu** eban. **Orduan Larra**'ko komentuan **nagusi zan Aita Jeremias**'ek, Zornotza'ko semeak, erosi eutson. **1915'garrena zan**.

**Prailleak** ba-eben **Larrea'n, 1907'tik asita**, latin eta eleiz-karrera egiteko bear ziran **gaiak** erakusteko Ikastetxe txiki bat, bertoko **Aita bi maixu zirala**; **kanpoan jan** eta lo, prailletzarako **naiz** abadetzarako **ikasten** eben. Lenengotan, sakristi osteko **salea** eben erakus-toki; **baiña** ikasleak **ugarituaz joiatzalako, txikia zan** ainbeste gazterentzat. **Eta** aurreko **jauregia** erosi **zanean** -ortarakoxe erosi **zan**, batez be-, **araxe aldatu** eben aitaturiko ikastetxea. **Jauregia**-ren barruak egokitu ziran ortarako, baita atzekaldean ikasleentzako **logelak** eta ikas-tokiak barritik egin be. **1916-17'garreneko kursoa** ementxe **asi zan** orduko eskolak eskatzen ebezan **aurrerapide guztiakaz**,

Gero, **1919'an**, barrukoak, **au da, praille** izan nai ebenak be artzen **asi ziran**. Lenengotan, **18** ziran; urrengo urtean, **baimen guztiakaz** legezko ikastetxea jarri **zanean, 26**. **Orrelaxe** joian gero **ta geiago** **ugarituaz: 72 gintzazan gu 1925-26'garreneko kursoan**. **1921'tik 1924'ra** bitartean **etxe-apainketa** **ta** barrizte **geiago** egin ziran, **Aita Apolinar nagusi zala**; **frontoi zarratua Jesus Aranzeta**'k osotu eban, eta **ikasle** gazteentzat lotoki **zabala gaiñean**. **Alan eta guzti** be, **leku** ederra izanik, ainbesterentzat etzan naikoa, **ta** orduantxe **asi** ziran bertoko karmeldarrak beste **leku** baten **billa**, erazko ikastetxe **nasai** bat jasoteko **asmotan**. **Eta, ara ta ona jo ta eragozpen asko azpiratu** ondoren, **1930'ko apirillaren 30'an** jarri **zan** lenengo arria Ikastetxe barria --**gaurkoa**

noski-- jasoteko. Zornotza magalean, erri osoa begipean daukan zelai eder bat dozu, erri-plazatik eleizaraiño doian antxiñako Kalbarioa aurrez aurrea dauala.

Jauregi zarra, ainbat urtetan abegi beroa emon ebana, gazte urduriak alde egitean, emen geratu zan bakarrik, ama-kumeak sapuzturiko abi antzera. Olan egon zan urte batzuetan, ixil ta misterioz beterik. 1936'garreneko garagarriaren 18'an sortu zan anai arteko gura bizia. Eusko-Indarrekoak emen jarri eben euren gudaletxea, muniziño ta lerkai askoz gaiñezka. 1937'ko maiatzaren erdiruntz, emen ziran inguruko mendietan aurkako gudaroste biak, eta berton egozanak, jauregia ustutean, su emon eutsoen. Eta or antxiñako saloi, gela, orma landu ta guzti, barru ta kanpo, dana kiskalduta. Gerra-pistiaren ikur.

Ta, asto joan ta mando etorri. Anlik lau bat urtera, jauregi ta baratz zarrean geratzen ziran ondakiñak oro, prailleak eurak eratsi ebezan, ormetako arlanduak eta baratzeko zedru ederrenetaraiño gurtia saldurik. Aurreko eleiza ta komentuak ez eben kalterik artu gerrate ortan, baiña Larrea'ko patroien jauregiaren amaia ortxe datza. Len aurrez aurre, eder ta zoragarri, egozan tegi biotatik, bata betiko suntsitua da, bestea gaur be Karmen'go Amaren etxe bikain dogu. Jauregiaren aztarrenik be ezta ozta-ozta, baratza esitzen eben 15 tarteko burdin-sare luze dotorea ta ate bi, burdiñezkoak oneik be, ta jauregiak aurrekalde erdian eukan armarria, gaur be orma-ate baten gainean egokitua, bere buruaz lotsaturik lez dagoana, kendu ezkeroz. Aurreko zelaian egozan zugatz zar ikaragarriak be, gerizpe geiegi egiela-ta, orpotik ebagi ta beste batzuk —platanu, leizar, ezki ta Indi-gaztaiñak— neurrira ta erreskadan ipiñi ziran; baita inguruz inguru oinbide ta espaloiak atera be.

\* \* \*

Juan Larrea askotan konturatu zan bere aurretikoak, Juan Bautista'ri eutsen eraspenagaitik jasotako ermitea beera etorkiola ustekabea; eten bako barrizte, apain-lan eta konponketak egiñik be, ezin eikean luzaro iraun zutik. A zala-ta, 1695'an, lengo zarra eratsi ta aren lekuan beste errime ta txairo bat eregiteko asmoa artu eban. Eta, egiazki, eder-ederra, aberatsa ta maixurik onenak be miresteko modukoa zuti erazo eban. Barru ta kanpo, ikusgarria; ezin leikegu iñok ukatu.

Gatx da berak daukazan edertasun guztiak, diran lez, azaltzea. Ortakoz ez gara luzatuko aren orma zut-biribillak, ustaiak, ertz-apaindurak, armolak, trebetasun aundiz egizturiko goi-beak adierazo ta zeatz emoten. Barrutik eta kanpotik, dana da are-arri ederto landuakaz egiña; arte-saillean barroko-erak dagi geienik dizdiz. Kanpotik aurekaldearen erdian patroien ezkutua dau, oso jagi ta eder; lerro ta kizki ta eraztunak, jaso andikoak dira; gaillur aldeari batez be batasun apaiña emonaz, goi-zale dirudien torretxo liraiñak daukoz. Gaur oraindik guztiz miresgarri agiri dira zertzelada danok.

Barruko aldeari dagokion apainketa be itxuraz ta buruz egiña da. Atarte andia dau, sarreran, orri biko burdin-ateakaz, ate bakotxak zazpi barra ditua-la; alboetan leio luze-zabal bi, amaika burdin-barragaz, ta goian, bai ateak bai leioak, illargi-erdi antzeko burestuna apaindura naro ta ugariz bitxituta. Oinkada bi eleiz-barrura ta, ezker-eskuma, korura igoteko karakolmailladi bi, bide erdian lez argi-zulo medar luzangakaz. Eleiz-barruak, luzeran, 21 metro daukoz, eta 8 zabalean; erdiko besoetan, barriz, 16. Iru altara zitun lenengotan: nagusian Juan Bateatzaillearen iduri ederra egoan, eta eleiz-besoko bietan, Andra Mari Gizakundea'rena ezkerretik eta Ecce Homo eskumatik. Zortzi leio zabal ditu, ta erdi-erdian, goian, zeru edo labera biribilla, zortzi zatitan banandua; azpiko lau petxinetan, gaur beintzat, lau iduri margoztu agiri yakuz. Erretaula nagusian, albo bietatik dingilizka, Juan Larrea'ren armarriak dagoz. Altara nagusi aurrea, zabal ta perkatxa da, lenago patroia'ren

ezkutu bigaz jantzitako burdin-esiaz orniduta. Eleiz-erdian, sartu ta eskumetara, pulpitu eder jasekoa. On Juan'ek, Espaiña'ko pintorerik onenak ekarri zitun, eleiz ikusgarri au margoztu ta dotoretu egien.

Eleiz au, baiña, ez dogu orma ta altara bakarrik. Bertan daukaguz baita urrezko ta zidarrezko bitxirik asko, patrioiak berak eleizeari emonda, ta jantzi ederrak, kolore guztietakoak, urrez ta zidarrez pitxituak; maixurik aituenak be naiko ederrestu daroen Juan Bateatzaillearen burua; kustodi andi bat, arrikoskor zintzilizariz betea, gaur be Korpuzti egunean ateraten dana; sei zidar-argimutil eta gurutze baliotsua. Erlikiak be asko ta gurenak dira. Orain, alan be, eguzki deuna (kustodia) daukagu bakar-bakarrik. Nun ete dira besteak? Aita Doroteo'k onela: «Bost urteko prantses gerratean ostendu ziran antza, edo-ta Mendizabal'ek 1836'ko zezeillaren 19'an emon eban eleiz-ondasunai buruzko legea bide, gobernuak ostu ta saldu ebazan bearbada» (Monografía del Santuario de Larrea, 14 orr.).

Au naiz a dala, etziran balio txikikoak eleiz onek orduan eukazan erlikiak. Kalahorra'ko gotzaiñak birritan galazo bear izan eben, eleiza ontatik ez erlikirik ez beste gauza baliotsurik ez aterateko aginduaz, eta ori latae sententiae deritxon exkomuniño nagusiaren azpian. Bide batez, 40 eguneko induljentiak ezarri eutsezan emengo iduri batzuei.

Eleizea ta gauza guztiok zaintzeko, Juan zaldunak eta onen emazte Teresa Mudarra'k, lengoakaz gaiñera, beste kapellautza bi ipiñi ebezan, diru ta errenta geiago emonik. 1704'garreneruntz amaitu zan gaurko eleiza au, ta bertan geratzen ziran abade bi, kapillau legez, astean zortzi meza esateko obligaziñoaz.

Era onetan, laster zabaldu zan Bizkai osora eleiza ta inguru onein entzutea. Bertoko pitxiak ikusi ta erlikiai mun egitera, toki askotatik etozan, eta orrela txoko oni lotuak geratzen ziran ikusle guztiak. Orduantxe asi zan, bai, gaur be Bizkaia'k Larrea'ko bazter zoragarri oni dautson maitasun sua piztu ta sentiduten.

## VII.—Berreun urte geroago

Juan Larrea'ri atsegin yakon pixkat adierazten alegindu garean eleizea; bai, bere gustura egiña egoala esan zeikean, diru ta izerdi bere pentzutan buruturiko otoi-lekua. Ain txukun ta garbi ikusirik, bertora eldu oi zan sarri, beretzat eta beretarrentzat erregu sutsuan Jaungoikoari eskatuaz; diñoenez, ortan emon eroiazan ordu luzeak, Andra Mari Gizakundekoaren aurrean auspez. Eta munduak ekarri daroaskuzan zorigaitz, naigabe ta gorabera estuak gogotan erabilliaz, malko-jario esan oi eban ordurarte ez ebala bizi izaten jakin, ezta lur-azalean onena danaz arduratzen be; au da, arimeak zelako balioa dauan konturatu barik bizi izan zala.

Orregaitik, naiz-ta bere bizitzaren amaieran, zeozer egin bearra eukan. Goiak argituta edo, onako zerbait barruak emon eutsan: berea zan eleiz ederraren inguruan egoki letorkela praille etxe bat. Prailleok izango eben eleizea garbi ta eder ukiteko ardurea; gaiñera, bere alde ta gizartearen onerako Jainkoari otoitzean eskatuko eutsen. Edozenbat obari ikusten zitun onetan: egunik egun Jainkoak artuko eban kultu ta gurtza, prailleok arimen onerako egingo eben lana, pekatuak parkatzen, Kristo'ren itza zabaltzen nai geixoi ilzorlan laguntzen. Eleizeak eukazan bitxi ta erlikiak be, iñok baiño obeto, lekaideok zainduko eutsezan; beraz, praille ordena bati emongo eutsan Larrea'ko eleizearen ardurea.

Zein ordena, baiña? Zeintzuk praille izango ziran bere gogoko? Noruntz jo autakuntza ontan? Madrid'en bein, egia esan, karmeldar bategaz Gogo Jardunak egiña zan: aretxeri iragarri eutsozan bere barruko kezka ta zeaztasun guztiak; ordutik etorkion, batez be, munduaren ezaupena ta onen zorakeri guztien izte ta nardatu naia. Andik Bizkai'ra alde egiteko egoala, praille arek esan eutsonera makurtu zan zintzo-zintzo, ta dudarik bage On Juan'ek ba-ekian orduko nortzui emon Larrea'ko eleizea. Aitzen emon eutsan bere emazteari ta onek —zeozergaitik eritxon Teresa— ontzat artu eban senarraren

erabagia. Ta bien artean, **bizi** izateko orduan **atan** be errenta **asko** bear **zala-ta**, diru ta errenta **geiago** batzen **asi ziran**, prailleak **erosago bizi** eitezan.

Patroien **asmoa** jakitean, beste ordena batzuetakoak be **laster** urreratu ziran **Larra'ra**, **emengo** eleizearen **uzian**. Prantzisko deunaren semeak **izan** ziran **gogorik** biziena **agertu** ebenak. Zer **zala-ta?** **Eleiza** ontan aurkitzen **zan** **Asis'tarrak** erabillitako zurdatzaren erliki bat, eta iñok izatekotan **eurak** eben eleiza onen **jabe** izateko eskubidea. **Jesus'en** Lagundikoak be jo eben, **eskarika**; **sarreran** burdiñezko ate **gaiñean** **JHS** ikusirik, eurak **zirala uste** eben aren **jaubetza** berez **jagokena**, **ezkutua** be ortxe, ate gaillurrean eukiela-ta.

flñoiz **zalantzan egon** ziranarren, **Larrea** senar-emazteak eginda euken **aukeratzea**. **Gitxi-asko**, beti makurtu ziran karmeldarren alde ta **oraingoan** **eurekaz egozan** osorik; onetxek **ziran**, euren eritxiz, aukerakoak euren eleizea **zaindu ta** Jainko-aintzaren onez lan egiteko. **Garai** aretan, **izan** be, **ospe ta** entzute anditan ebillen karmeldar **Lagundia**: **Teresa** amak ezarritako **su-txin-garrez** bizturik, txit **zabal** aurkitzen **zan Espaiña'n** eta **Euskalerra** osoan.

Karmeldarrak eurak be begi onez ekusen **au**; ta, bai **batzuk** bai **bestetzuk**, **asmo** bardiñak eraginda ebiltzala, **171 l'garrenean**, **Markiña'ko** karmeldar **Aita** bat, **egun batzuk** igarotera Zornotza'ra etorria, noizean bein **Larra'**raiño igoten **zan**, mezea esateko **asmoz**. Senar-emazteak **Aita** orri **agertu** eutsoen **euren guraria**, baita **Aste santua** gain etorrela-ta, **Markiña'ko** komentutik praille bat **bialdu** egioela eskabidea egin be. Olantxe egin **zan**; **Aste santuz**, **ango nagusiaren** baimenez ona etorri **zan Prantzisko aita**, praille ona ta txeratsua; **gogoko izan** yaken **jaunai**, ta berari **eskiñi** eutsoen **Larra'ko fundaziñoa**, ortarako bear ziran **gorabera guztiak** berak atondu egizala eskaturik.

Eta karmeldarrak olan, **1712'ko** maiatzean **ospatu** **zan** Lekaide-batzar **nagusian**, ontzat artu eben komentu barria **jasotea**, ta **patroia** eskerrak **emo-**

nez, ortarako lanetan asi ziran. Eskriturak Madrid'en osotu ziran, 1712'ko maiatzaren 27'an, Larrea senar-emazteak Valdeiglesias'ko San Martin'en aurkitzen ziran eta.

Arrezkero, Karmen'go Amaren semeak izan dira Larra'ko eleiza ederraren jabe. Ta or daukagu, bai, arrezkero, Karmen'go Ama, Juan Bateatzailleagaz batera, eleizako nagusi; kanpo ta barru ba-dira oindiño jaun arrosko ta diztiratsu arein ezkutuak, baiña Karmen'go Ama daukagu aspaldi ontan bertoko Ama ta Erregiña. Ta zerutar Erregiña onek, antxiñako jaubeen alizatea garaitu ta Larra'ko inguru onei dizdizera barria ezarri dautsela esan geinke. Ta karmeldar santuak, an eta emen, baita eleiz-besoko oial margoztu meietan be, Karmel mendiko Erregiñari inguruna osotu nairik, eder ta duin estutzen dira.

Ederrak derakar. Eta beroa atxikitzen. Egun areitan asita, Larra'rako joera gero ta ugarituago egiñik joan zan, urterik urtera. Eleizkizun ederrak ospatzen ziran, eta dira. Goiz-arrats, izlari ta autorle, ementxe jardunak dozuz karmeldar prailleok, euren Amaren magalpe gozoan. Larra'ko muiño zardain ontatik, Iruña'koak naparraldean lez, Donosti'koak Gipuzkoa'n lez eta Gazteiz'koak Araba'n lez, Zornotza'kuok, len eta orain, aspertu barik, Bizkai osora zeru arnasa bizia ixuriten daragoioe.

Eta urtez-urte Karmen'go Erregiñaren babes-giroa Bizkai guztian sortu da, ta or-ango eleiztarrak, karmeldar zaleak, bere jai-egunean eta urrengo domekan batez be, konta-ezin alako erreskadetan datorkizuz. Urrindik eta urretik, bertoratuaz, Larra'ko eleizan, Karmen'go Amaren eta karmeldar santuen aurrean belaunikatzen dira guztiak, siñismen zintzoz eta uste benetakoz indarturik. Auxe bai da mesede-toki aberats. Semeak amari dei egitea, berezko ez ete? Amak, oster, laguntasun barik semea itxiko ete? Larrea'ko otoiz-etxe au izar atsegingarri da Bizkai osoarentzat.



I

Ogena munduan nagusi

Nundik dator abots ori  
mediz mendi?...  
Leize-kolkoak intziri luze,  
beren erro-giltzetatik.  
Nork gordeko ote gaitu  
neguko ótzetatik?

Basoak soil, itzal gabe;  
mundu-jabe,  
ogena jeiki da lepo-arro,  
arrokeri-labe,'  
sasi biurtu dira  
belardi ta larre.

Elorri-txarak itoa,  
giza-soraa,  
larrak artu du, arantzak jan du  
basa-bideko gozoa.  
Negarrez dago umezurtz  
gizadi gaixoa.

II

Gizadia umezurtz

Amarik gabeko etxe,  
izotza-aterpe;  
bere uberka galdua duan  
erreka agórraren oge;  
zeruak soiñeko beltz,  
izarrik gabe.

Norantza joko ote digu  
biotz-buru,  
amaren gose-egarri degun  
gizadi ta mundu?  
Jainkoak sendagairik  
guretzat ote du?...

Pekatu-larrak joa,  
ene Jainkoa!,  
maitasun-etxe biur zaigusu,  
Ama gozoa  
eskeñiaz lurrari,  
kabi beroa.

III

Erromes-galtzara

Gizarle mindua bidez,  
otoilz miñez,  
arrenka ari da sóiñeko beltzez,  
Amaren magal-billa  
doala erromes.

Oi, Jaunaren miraria!  
Goiz-argia  
or dator gure illuna argituz.  
Badator bizi berria!  
Lore apaiñez jantzi  
zaigu elorria!

Lar artean argi xotil,  
Ermita ixil...  
Jaunak jarri du bere Amaren  
egon-leku, zeru-istil.  
Kristauak izango du  
bere Ama bipil.

Erriz-erri, auzoik-auzo...  
illun zegoen  
mundu legorra, zeruko Jcaina  
ari da pozez alaitzen,  
Andre Mari elizez  
lurra txipriztintzen.

IV  
Larrak lorea

Araba'ko lur zelaian  
Argomaniz;  
Larredtarren odol garbidun  
leiñargiak andik diz-diz;  
Bizkai aldean bota  
du ernea berri.

Larrea'n len larra zan  
mendiko nagusi.  
Txara itsua, sasi-arteak  
artua zeukan itxusi.  
Nork an beste emaitzik  
orduan ikusi?

Baiña zeruak ba-daki,  
nun ebaki.  
Ama bear zun Zomotza aldeak  
la izango ere egoki.  
Larrea'n larrak eman  
zìgun Lore argi!

V  
Semeak Amaren etxean

Jaungoikoaren eskua  
indartsua;  
bere Amaren etxetarako  
Larrea du autatua.  
Umezurtzen negarra,  
onela ixildua,

Karmeldarren jantzi txuriak,  
ain argiak!  
ez dute beren Ama utziko.  
Bizkai aldeko erriak,  
aldare orian jarri  
dituzte begiak.

Nundik dator abots ori  
mendiz mendi?...  
Aingeru-soiñuz betea degu  
lengo inguru basati.  
KARMEN'GO AMA MAITE!  
iguzu erruki!...

VI  
Erregin koroatua

Bizkai osoa zutikan,  
biotzak galdatan,  
jeiki da bere Ama goratzen.  
Ezta negarrik etxetan,  
Larrea'n gure Ama  
degula aldaretan.

Lorategi biurtu da  
basa-bidea;  
áiki gorean jarria degu  
Erregin Ama maitea.  
Larrea'n larrak or du  
agiri Lorea!

Lore ederí Ama gozo!  
Erri ta auzo,  
Zugana gatoz. Gure eskariak  
Jaunaren alkira jaso!  
Zuredk baitira oso  
legor eta itxaso,  
SEME TA GURASO!

N Etxaniz

## Karmeldarrak Larrea'n

### I.—Lekaretxe barria

Idatzi dogunez, 171 l'garreanean artu eben karmeldar prailleak, lenengo kapellau lez, Juan Bateatzaillearen eleiza ta bertako zer guztien ardurea, ta urrengo urteko maiatzean emon eutsen Larra'ko patrioiak beragaz legez jabetzeko baiezkoa. Onako gauzetan, jakiña, beti jazo oi da zerbait, eta orduan be sortu zan eragozpenik, eta danak azpiratu bear izan ebezan.

1713'ko zezeillaren 3'an, bertoratu zan Bernardo deunaren Aita Jose, nagusien aginduz, eta eleizako giltzak artu ebazan eta bertako biixi, erliki ta gaiñerako guztien ardurea, Larra'ko jaunen eskuetatik eta testiguen aurrean,

bertako gauza dan-danaz zerrenda apartekoa egiñik. Andik lasterrera beste lagun bat, Aita Damian, etorri yakon. Eta emen daukaguz Larra'n karmeldar bi, lenengo komentuaren oiñarri.

Praille biok lenengotan patroien jauregian bertan bizi izan ziran; baiña laster, Juan Larrea, 1713'garrenaren azkeneruntz, il zanean, batez be, aren emazte Mudarra'tar Teresa andra begiratuak, karmeldarrok euren bizileku egokia euki egien, gelak eta komentu batek eskatzen dabezan beste etxetune batzuk jasotea ontzat jo eban, eskriturako paperetan agintzen zanez. Ortan asi eitezana, andra eskuzabal arek berak eskuratu eutsezana berak etxean eukazan arri, zur ta kare naikoa, baita dirua be etxegai barriak erosi al izan egiezan. Gogo bizia zan lanari lotu ta zerbait aurrera aterako, ta orrelaxe, 1716'ko bagillean aldatu ziran gure prailleak euren bizileku barrira.

Baiña, ona zoztor barriak. Praillerik geienak garai artan eskean batuten ebenagaz bizi ziran, eta ez yaken begiko ez abadeai ez beste ordenetakoai prailleen komentuak ugaritzerik. Errazoi au bide zala, sarri biztu oi ziran egundoko eztabaida ta aitu-eziñak. Orduan be, bai andik bai emendik, naikoa gogor jokatu eben Larra'n sartu barri ziran karmeldar prailleen kontra, ta kontra-egite muker samar onek naikoa luzaro iraun eban, zoritxarrez.

Baiña apurka apurka ba-joian errotu ta sendotuaz Larra'ko lekaretxea. Lenago Bizkai'ko Jaungoaren baimena naikoa zan komentuak jasoteko, baiña abagune ontan Kastilla'ko erregeagana be jo zan; eta, 1724'an, errege-baimen ori be lortu ondoren, beingoan egin zan dana: eleizara Gure Jauna andiriko aldatu, klausura ipiñi ta komentu bat jasoteko bear diran beste zeaztasun guztiak ornidu ta gero, karmeldar Ordenako lege-beteteari asiera emon yakon.

Astiro, baiña ba-joian komentu- mukulua be gora, eleizeari eutsolarik; bertan inguruan lur-zati batzuk be erosi ziran, ortutzat. Urte bi barruan oso aurreraturik egozan lanak; eta komentu barriaren zatirik beiñenak beintzat



Larra'ko eleizako altara nagusia



Goian, Ixar aldeko txopoak.  
Beian, Arnabate, Autzagane'rako bidean

jasorik eta amaiturik egozan ezketiño, beste komentuetan lez karmeldar bizi-modua bere laztasun guztiaz jartea erabagi zan. Aitaturiko auzi ta eztabaidak luzaro iraun eben, baiña, 1754'an, egiune bat osotu zan karmeldar prailleen artean eta Zornotza-Etxano'ko abade-erritarren artean. Tika-mika ta istilluak amaitu ziran, komentua egiña egoan 1766'rako, ta karmeldarrak eleiza ta inguruko zer guztien jabe gelditu ziran orduantxe.

Antolaketa luze ta nekegarri onegaz bateratsu lez, au da, karmeldarrak sustraiak egin ta sendotzeaz batera, beste zer bat be azi, biribildu ta kas-konduaz joian: santutegi eder ontan, Karmen'go Amak, bere bakaulki edo tronu dizditsuan, lekua artu ta ñirñir egian euzki-betetze apaiñean. Etzan arritzekoa karmeldar aitak euren berez-berezko izakerari egokionez euren bizi-moldea mamintzen saiatzea, ezta kultuari buruz euren Ama laztana to-kirik eder ta agirienean agertazo nai izatea.

Alan eta guzti be, patroien eta prailleen artean izenpeturiko eskriturak eskatzen ebanez, orduko patroien baimena bear zan edozer barrizte ta aldaketa egin al izateko. Komentutik eleizara joateko be, kanpotik ibilli bear eben, eta barruko ate bat edegiteko, au da, komentua eleizeagaz batuko eban atetxo bat edegi al izateko be zortzi urteraiño itxaron bear izan eben. Naikoa zeregin eta buruko min, bai, euren otoitz eta eleiz-arazoetarako ozkarbitan ibilli bearra! Baiña barne-suak edozetarako kemena emotsen.

1724,garrenaren amai alderuntz, jadetsi zan eskritura bat, patroiak berak izenpetuta, eleizan barriztatze batzuk egiteko baimena emonik. Barriztatze batzuen artean bat auxe zan, antza: eleizeari kanpoko aldean, sarrerako arrizko ustai gaiñean nitxo bat edegitea, ain zuzen be Larrea'ko patroien ezkutu azpian, uts-une artan Karmen'go Amaren irudi bat ipiñirik, karmeldar ordenearen elburu lez eta lekaideok emen daben komentu-ezaugarritzat. Karmeldar semeentzako, egia aurtortu nai ezkeru, esan-gura andia eban onek: Karmen'go Ama zala bertoko zaindari, bikaintasun eta gordeleku.

Orrezaz gaiñera, aitaturiko agiri-paperak, komentuko sarrera ate buruan Teresa ama deunaren irudi bat jarteko be baimena emoten eban. Eskuturik eta ez, ostera, patroiena ta Larra'ko jauregiarena izan ezik. Gure ordenako babesa ta jomuga guztien indar Karmen'go Ama dan ezkeru, irudi berau dogu ordenako ikur eta ezaugarriker eder ta beiñena be. Errazoirik ez dakigun arren, sekula be etziran kanpoko aurrekalde ortan irudi biok ipiñi.

## II.—Eleizea urtez urte

Eleiz-komentuai buruz, egi osoa adierazo nai izan ezkeru, patroiak egokiro, edo esku zabalez beintzat, egundo be ez eben jokatu; beti agertu yakuzan, karmeldarrak, urteak joan urteak etorri, 1915'an jauregi zarragaz be jabetu arte guztian, naikoa zur eta zikoitz. Erraietaraiño susterra botata egoan ordun jauntxoan agindu naia, ta Larra'ko patroiak be ez ebezan osorik itxi gura antxiña batetik eleizan eta komentu barrian eukezan eskubideak. Eskribau aurrean egiñiko paperak iñoana izan ezik, ez egozan ezer lagatzeko.

Gorago aitatu dogun eskrituran, adibidez, eleizan barriztatze batzuk sartzeko baimena emotean, koruaren erdian, beste komentuetan lez, Karmen'go Amari tronu polit bat jarri egioela erabagi zan. Baita koru artatik ainbat otoiz eta eskari eder zerura bialtzen eben kapa zuridun karmeldarrak, guztiz egoki ta txairo, euren Erregiñari eraiki ta atondu be. Andra Maria'k, Ama eskertsu zanak, antxe, koruan eukon ba bere jarleku santua. Olan esan zeikean: «Nire bizilekua zintzoen batzartokian».

Gauzak, tresnak eta etxeak berez, arduratu ezik, aldiaren agintxikatuz, ondatu egin oi dira-ta, zaindu ta jagon egin bear. Orixegaitik Larra'ko patroiak beste eskritura bat zin-agiriz onartu ostean, eleizan barrizte-lan batzuk, garrantzi andiagokoak, egiteko baimena emon eban. Bat auxe: eleiz-beso bietan egozan altarak, au da, Gizakundekoa ta Nazaretarrarena, eleiz-



gorputzera aldatzeko baimena, ta orrela, Gizakundeko altarea egoan lekuan prailleak aterpetik ibilli ta eleiz-birarako sarrera emotson bebarru edo klaus-trorako ate nasai bat zabaldu zan. «Beste aldean, Nazaretarraren altarean geratzen dan zuloa iduri batzukaz apainduko da, ta onein artean, Juan Bateatzaillearen burua izango da bat, kultu geiago izan dagian; bertan, gaiñera, lekuak emongo ba'leu, mezea esateko aiñako altara bat eratuko da. Alboetakoak deritxegun saietsetan, altara barri bi jaso bear dira, Urkiza maixuak maratu ta karmeldar Aita nagusiak izenpeturik dagozan legez», diño eskrituraka paperak. Mutur guztiak lotu oi ziran, ba, onako baimen-emokeretan.

Urteak geroago, 1766-69'ra bitarteko kronikeak, antolatze ta zar-barriketa oneik era ontan egin zirala diñosku: «Eleiz-besoko alde bietan egozan Ecce Homo ta Gizakunde erretaulak aldatu ta eleiz-gorputzean ipiñiak izan dira. Bebarrura doian atea edegi da. Baita iru erretaula barri egin be, alboetako biak eta Teresa gure atna deunarena. Albo bietarako, Karmen'go Amaren iduria ta San Jose'rena be, barriak egin eta margoztu dira; Karmen'go Amari gaiñera Erregiña koroia ipiñi yako, ta San Jose'ri, buru-ailla; ta biok besoetan daukezan umeai, al-izpiak, danak zidarrezkoak. Baita antolatu da Anjelo deunaren iduria be, Karmen'go Amaren altara-erpiñean dagoana aurki. Teresa ama deun bat eta Jon Gurutz bat be bai, biak andiak, soin osokoak, altara nagusiaren alderdi bietan aurkitzen diranak, izan be».

Beti be, kondairak eralgi dauskunari begitu ezkeroz, iru altara barri ziran egindakoak, alboetako biak eta eleiz-besoan bestea, asmotan erabillia beintzat, lenago Ecce Homo egoan tokian. 1769-72'ko kronikeak onela darrai: «Eleizan, Jose doatsuaren iduria margoztu da. Urrengo irurte-aldian, ostera, au lerrotzen da: «Eleizan erretaula bi urreztu ziran, au da, Andra Maria'rena ta Teresa gure amarena». 1775'an, beraz, barriak egin, margoztu ta euren lekuetan jarriak geratzen ziran iru opamai, Jose doatsuari, Karmen'go Amari ta Teresa deunari kirian-kirian eskiñita.

Komentuko kondaira liburuak, **1876'an** karmeldar lekaideen **ordenea Espaiña'n** bir-ezarri ta leneratu **ostean** bertoko **jazoera ta goraberak** idazten **asi zanak**, ezer **baño** len aurreko urteetako istori-laburpen bat **dagi**, **Larra'ko** komentua **jaso** zanetik **asita**; eta, **1766'garren** urteko goraberen bilduma **egiterakoan**, **argitasun au** aurkitzen **dogu** bertan: «**Orain** albokoak dira **Jose** doatsuarena ta **Teresa** amarena, ots, **Gure Jauna dagoan** altarea, ta **irugarrena**, **Jon Gurutz deuna dagoan** lekukoa; **1882'raiño**, **bada**, komulgatorian aurkitzen **zan** Karmen'go Amaren iduria, **gaur** **Teresa** **amak** daukon **altaran**; **au**, **ostera**, **gaur** **Jon Gurutzekoak** **daukon** altaran **egoan** len».

**Egia**; «orain» itz **onek** ez diñosku **ziur zein** urteri **buruz** diarduan; kronikalaria, aurreko urteetako **jazoerak batu**, edatsi ta adierazten **dabilkigu ta** ez diño zein urtetan idazten **dauan**. **Baiña** kronikan **jarriaz** **doan** **zeatzasunen** arira, iru erretaula barriek **jaso ta** gero **azalduko dogun** 1822'garreneko barrizatze **era** batekoaren aurretik be, irudi-aldakuntza barriren bat egin **zan** **ziur** asko. Ondo **eajagutzen** ez dogun **aldikada** baten, Karmen'go **Amaren iduria**, Komuniñoko altaratik **Teresa** deuna egoan lekura **aldatua** izan **zan**, eta **Teresa** deuna **a** egoan **saiets-altaran** ipiñia.

**Noiz** egin ete **zan au?** Kronikeak ez dau **jakin-erazten**. **Bear** **bada** **1828'garrenean** egin **zan**, urte ortako **datuak** aitatzean ondo-mokor **au** bai damosku: «**Teresa** deunaren **iduri** bat egin **zan**, **bere** altararako». Irurogetak **aurretik** **Teresa** deunarentzat landutako altareak, bere iduria eukan, **eta** barria egite **au** gertatu **zan** urrean, **Teresa'k** komuniño **altaran** eukan tokia Karmen'go **Amari** itxi eutsonean, bera alboko altarako orma-konka txikiago batera aldeaturik.

### III.—Karmen'go Ama bere aulkian

**Ortaz** zeatz-zeatzean dakigu **noz jaso** izan **zan** altara **nagusira** Karmen'go Amaren iduria, **Teresa** deunarena lendik berak komuniñokoan eukan lekura

itzulirik. 1882'ko urtarrillaren 26'an lekaideak eukiriko batzar-agiri batek dakarskunez, orduantxe onartu zan eleizan barrizte batzuk egitea, ta barriztatze onein artean sartzen ziran altara nagusiko erdiko nitxoan aurkitzen zan Juan Bateatzaillearena, ta Jon Gurutzekoarena.

Orduan ziran ospatzeko Teresa amaren eriotzatiko irureungarren urteko jaiak; au zala-ta, Larra'ko prailleak eleizan eta komentuan barrizte-lanik asko egin eben, garrantzi andikoak atan be, barruan eta kanpoan. Larrea'n egun areitan ospatu ziran jaietaz Eujenio Arantzabal'ek idatziriko kronikan au irakurten dogu: «Karmen'go Ama altara nagusian ipintea joan dan urteko urrillaren amalauan egin zan; eta aldaketa au zala bide, oraiñarte aren icluriak eukan altarea Teresa deunarenak artu eban». Kronikea, Zornotza'n izenpetua dago, azillak 4, 1882.

Onek aitzen emoten dauskunez, bada, 1882'ko urrillaren 14'an igon eban Karmen'go Amaren iduriak altara nagusiko nitxo garaienera; eleizea jaso zanetik bertan egoan Juan Bateatzaillearena, barriz, nitxo orren gaiñekaldean ipiñi eben, gaur daukagun legez. Teresa deunaren iduria, esan dogunez, kumulgatorioko altarara biurtu zan, eta Jon Gurutzekoarenak Teresa amak izten eban ezker aldeko albo-altarea artu euskun. Eskumakoan Jose doatsuarenak jarraitzen eban. Eta gisa onetan, Juan Bateatzailleak altara nagusian eukon bere omenezko tokia Karmen'go Amari izten eutson; lenago be, ziurrik asko, bere zainpean eukon eleiza karmeldarra itxi eutsen.

Uste izan daikegunez, Kristo'ren Aurrelari kirmenak, bere bizi-moldeari oso ta bizi lotua, pozik itxiko eutson bere erdiko aulkia, berak apalago bat artu bear izanda be. Kristo'ren begietan au esan eban: «Egoki da A (Kristo) aztea, ta ni beratzea». Kristo'ren eta gure Ama danaren aurrean be erabat mintzatu zan: «Artu daiala amak nik neukan tokia; nik apalago bat be nai-koa **dot**».

Eta Karmen'go Amak, Kristo'gana zeinbat arima erakarriko ebazan zerutar Erregiñak, bere aulki edo tronu jagi dotorea artu eban. Juan Bateatzailleak be, egia esateko, ez dauko toki baldarra. Ta orrela biak daukaguz eder eta dizditsu Larrea'ko eleiz zoragarri onetan, bakotxa bere aulki apaiñean. Alde onegaz bakar-bakarrik: len Juan Bateatzaillearen tronu txairo zana, orain Karmen'go Amaren otoitz-leku ta santu-etxea biurtua dala.

#### IV.—Jantzi zurizko koroia

Ta bakarrik ez dago bere ezarleku ederrean. Karmel-mendi gaiñean beti izan dan lez eleizatxoren bat —gaur be bai— eta karmeldarrak Amari inguramena egiten, Larra'ko eleizan, koruan eta komentuan be berreun eta berrogetamar urteotan, karmeldar prailleak ez dira iñoiz nekatu Ama maitatu ta goresten. Maite-sua dauan biotza ezpaita nekatzen maitearen aldezko lanetan.

Ementxe dauko bai Karmen'go Amak bere jantzi zurizko koroia, gorputz eta arima Berari eskiñitako karmeldar semeak osotua. Amaren bizitoki eder au, txeraz ta biotz-beroz bai dabela zaintzen! Ez zaindu bakarrik, santutasunezko frutuak ekar-azo be bai. Sor ta lor, arri egiñik geratu ziran ingurueta-koak, Larra'ko kanpaiak gaberdiko otoitzera deiez lenengotan entzun ebezanean; eta gero, goizaldean, eta eguerdian, eta arratsaldean eta illuntzean... Kanpaiok, izan be, samurbera durundu egien emengo troka ta mendi-kolkoetan. Gaur arte guztian orrelaxe, urterik urte, aspertu barik. 1726'an erreza ziran lenengoz Larra'ko komentuan gaberdiko maitiñak eta, au gogoratuaz, Aita Silberio'k, etxe onetako kondaira osotzean, au diño: «Kanpaiak, gabeko amabietan, inguruko mendi ta ibarretan maitiñetara deiez; egunak eta urteak joanaz, amaika biotz lokartu itxartu zituen grazi-bizitzarako».

Eta kanpaiakaz batera an eukazan Karmen'go Amak bere semeak, zintze ta kirmen, lenengo baten koruko aulki inguruan gogozko otoitzerako, Eleizarrenak esateko, azterketa egiteko; gero, altara nagusiko toki dirdaitsuan naiz mezea emokeran naiz zapatuz Salbea abestukeran, ezti ta irripartsu agiri yaku, oiñetan daukazan seme leialen biotz-zauskadak pozik artu ta artu. Amaganako maitasunak bultz-eraginda, Larrea'h beti eroan izan da bizikera latza, zintzoa, zeatza. Silberio aitak, onetaz: «Larrea beti izan da gure Lagundiak daukazan lege ta aruak zeatz bete izan direan lekua; auxegaitik, antza, izlari ta autorle, beti zindo jokatu dabelako, bertoko karmeldarrak oso maitatuak izan dira emengo inguru guztian».

\* \* \*

Zatika jaso zan komentua. Gauzak patriiakaz atondu ostean, prailleentzat gelak eta etxe batek bear dituan beste tokiak eratuten iñarduen. 1725'-garren urteko aprillean egin zan, beste zer batzuekaz batera, komentu barrutik korurako igarobidea; baita urte ortako irailerruntz, beste lan batzuk be, jantokia, eskaratza, komentu-atartea, koru aurreko otoitz-lekua ta amar gela barri, lendik egozanakaz amaseiraiño. Ortu zati bat be ormaz esitu zan, bai prailleak nun egurastu bai ortuariak nun artu izan egien.

Eta orrez-gero, komentuko zati beiñena amaituta ikusirik, prailleentzat ainbat gela ta lantegi-ofiziña geienak gertu, ordenako legeak eskatzen daben eran gauzak jarri ta legeak beteten astea erabagi eben. Eta, 1726'ko irailaren 8'an, Andra Maria'ren Jaiotz-egunean, orrela egin zan, eguneko maitiñak gaberdian abesturik. Ori ospatzeko, garai atan Probintzia'ko nagusi zan Aita Prantzisko bere idazkari lagunagaz etorri zan. Lege-betetze zearozkoa amar aitak eta anai batek asia geratzen zan. Kanpokoen eragozpen jarreak ez ziran oindiñokarren amaitu, ta lenengotan beintzat, zar-jana billatu bearez, gorriak ikusi ebezan nunbait; eta Sorkundearen Aita Paulo jeneralak,

1729'n ona etorri ta estu samar aurkitu ebazanean, Larra'ko prailleai be ordenako ikastetxetan egin oi zan bizimodua eroateko baimena emon eutsen.

1733'ko aprillaren 26'an Pastrana'n ospatu zan Batzar nagusian Bernardo aita atera eben Larra'ko nagusi. Egiazko indarra ipiñi eutsen onek karmeldar bizitzeari, bera ta bere menpeko guztiak, leia bizian, legeak alik eta zeatzen beteten danak alegindurik. Lege-betetze zintzo onek, ostera, berez dakar goitiko intza: Jainkoak eta Karmen'go Amak agirian laguntzen eutsen limosnaz ta mesedez; gisa orretan nagusi adoretzu arek, menpokoai bear lez jaten emon ez-ezik, apainketa batzuk be burutu ebazan eleizan eta komentuan. Arexek ipiñitakoa da, gaur emen daukagun orduari andia, orduak joteko kanpaitxoakaz, komenturako ta albo-baserrietarako, len beintzat, balio ebana.

Amar prailleok, baiña, zer egiten ete eben? Komentuko itzalpean bizi bakar-bakarrik? Bai zera! Prailleok iñurri antzean, naiz-ta munduak bestera uste izan, etenbako lanari lotuak bizi oi gara beti. Ta areik be, barrutik, jainkozko bizitza gori sutsua eroien, kanpotiko ekintza aiztuta itxi barik. Karmeldar ordeneak, ain *zuzen*, jomuga edo elburu bi daukaz: barne-bizitza ta kanpotiko ekintza. Lenen, legeak eskatzen dauan barru-bizitza gartsua —Jainkoa ta norbere arimea noski— ta gero, barru-bizitza ixillean batu ta pillotua, kanpoko lanaren bitartez, besteai —arimai— emotea. Larra'ko aitak ba-ekien au, ta laster egaztu ziran erririk erri, jantzi zuridun, mixiolari; 1748'runtz, batez be entzute andiko egin ziran, euren eleizan eta ingurueta-koetan mixiñoak emoten asi ziralako. Garizuman ez-eze, urte barruko domeka ta jaietan be, mesede ikaragarria ekartsen ango ta emengo eleiztarrai. Ta oneik bai leiaz txalotu arein lan bizial

Gero ta aukerakoago egiña zan, Andra Maria'ren biran, jantzi zurizko koroia; pizkaka pizkaka ba-joian zabaldu ta nasaituz, goiz-erraiñu antzera, karmeldar semeen bizitz-argia. Bai etxez bai gogoz. Etziran gitxi arein jakituriak eta santu-usaiñak erakarrita Larra'ko ateetara etozanak. Alan be ez

**egoan** ordurarte, **oiñez** eroso ibilteko beiñik-bein, Zornotza'tik **Larra'rako** biderik. Patroiak ba-euken eurentzako **zaldurdi-bidea**, Ategorri'koa batez be. Orregaitik, karmeldarrak eskaturik eta euron **pentzutan**, **1765'garrean** egin **zan** oiñezko ta zaldizkoentzat, Zornotza'ko **plazatik** komentu **aurreraiño** el-tzen **zan** metro bat eta erdiko kaltzadea. Azkenez, Zornotza'tik Garaitondo'ra doan **zortzi** metro **zabalekoa** **1919'an** **ebagi** **zanetik**, antxiñako **zar** ori ber-tanbera gelditu **zan**.

Karmeldar ordeneak, bezpera, meza ta abar, eleizkizun asko eskatzen dauan legedia dauko. **Beraz**, naitaezko da organu bat **koruan**. 1790'rren ur-tean, **Aita Iñazio** bertoko **agintari zala**, **jarri** **zan** lenengoz organua **Larra'ko** eleizan; eta antxe **jarraitu** eban **1884'rarte**, **baiña** gero barri bat erosi **zan** **Paris'ko** **Cavalle-Coll** etxean. Onek ostera leku askotxo artzen **eban** koruan, eta otoitz-lekua **nasaiago** izteagaitik, **au** **Gazteiz'ko** karmeldarrai **saldu** **yaken** **1908'an**, aren orde **gaur** be koruan **daukaguna** **Barzelona'ko** **Lope** Alberdi organu-egilleari beste bat erosirik. Oraintxe, **1952'an**, **Juan** **Braun'ek** ederto **barrizaturik**, **Larra'ko** eleizarako **txit** egoki datorrena dogu.

Urteak aurrera **joiazala**, **Aita** Migel'ek, **1769'tik** **1772'ra** bitartean **nagusi** izan **zanak**, **arriko** orma **jagi-lodiz** **zarratu** eban ortu lez euken **lur-zatia**. **Geroago**, **1885'an**, beste **lur-sail** batzuk be erosi ziran, iparralderantza ta, **ortua** **nasaiago** egin **zedin**; **guztia** ormaz ingurratu ta **gaur** **daukaguna** **geratu** **zan**. **Garai** artan, **Aita** **Jeronimo** **nagusi** **zala**, egin ziran beste lan garrantzi andikoak be, eleizan eta komentuan: komentua **apurka** **apurka** **egiña** ta aton-dua da, **luze** ta **zabal** dotore landuta, larrain **bigaz**, **baiña** orduantxe **jaso** yakon **iparraldetik** eta eguzki-aldetik bigarren oin bat. Geure **egunotan**, **1951'an**, **jaso** yakon beste **pisu** bat **eguzki** aldetik eta bi iparraldetik; **1925'an** egin **zan** frontoia, ganeko egutera ikuskizun **zoragarriz** orniduz; **1959'an**, lerro oneik idazten **dauazana** **nagusi** **zala**, eleiaara etorren jentearentzat **aterpe** eroso bat bear **zala-ta**, arkuzko aterpe dotore bat osotu genduan komentuko

sarreran, ezkerretik; aurreragoko urtean, barriz, lengo ortu-lurrak gitxítxu bait-ziran, ogei milla metro lauki lur erosi genduzan, Zonotza aldetik. Olan polito biribilduta geratu dira Larrea'ko eleiza, komentu ta inguruak.

#### V.—Urte baltzak

Giza-edestiak, itxas-olatuak lez, bere aldizko gazi-gezak, goibeak eta aziorraziak daukaz. Larra'ko prailleak, emeretzigarren gizaldiaren asieraruntz, zintzo eroien euren lege burruko bizitza, baiña 1808'tik 1813'ra bitartea adubakoa izan yaken osoro.

GoragO aitatu danez, prantsesak Espaiña'ko lurraldeakaz jabetu ta euren erregea bertan ipiñi nairik ibilli ziranean, Euskalerrian be erakutsi eben euren asmo dongea. Zornotza alde au sarri samar izana da euren burruka leku. Arrotz oneik, su ta ke, aurrean kamustu oi eben dana; baita padar ixillen egontoki baketsuak be. Ta, jakiña, olako eretietan karmeldar prailleok, beste askoren antzera, geure etxea utsitu ta bertanbera itxi bear; arerioak, sartu ziran ondoren, aurkitu eben guztia ostu ta ler-azo euskuen.

An ta emen pitxi-egarria ito eziñik ebiltzan. Larra'ko komentuan ez eben areik uste aiñako diru ta bitxi-mordorik aurkitu, ta ames-egiñak uts-urten eutsela ikusirik, euren barren-sumin ta lotsarik-eza eleizako iduriak apurtu ta erreaz adierazo eben: emen jausi ziran asarre bizipean esku trebez egiñiko Juan Bateatzaillearen burua, Jose deunaren arpegia, erliki santuak, sakristiko ta eleizako ainbat gauza, prailleen gelak, lantegiak eta abar, komentuko leio ta atea. Triskantza onen ostean, bost urtez beintzat, prantsesak azpiratu ta espaiñar lurretik jaurti arte guztian, Bonaparte'ren jauntxoeren mende euki genduan Larra'ko txoko eder au.



Baiña ekaitz ostean laster zutitu oi da euri-jasak indarpean euki dauan zugatza. Era berean, erbestetar arrapakarien erpe artetik lur-puska au askatuaz batera, an-or sakabanaturik bizi ziran prailleak be, laster komenturatu ziran barriro. Eleiza ta komentu-zokondoak garbitu ta al giñoan apaindutakoan, 1813'ko garillaren 16'an, andikiro jaitu eben Karmen'go Amaren eguna, auzo-errietatik jente naikoa bertoratuaz.

Asiera ona. Ta Karmen'go Erregiñaren magalpean. Orrela prailleak be gero ta geiago ugariturik, beingoan asi ziran barriro, nor-geiagoka leiatsu baten lez lege barruko bizitza latzean. 1814'an Burgo de Osma'n ospatutako Batzar nagusian aita Jose, Muxika'ko seme argia, aurreko urte naasi zalapartarietan Markiña'n buru izana, Larra'ko nagusi aukeratu eben. Irurte onetan Moral-ikastetxe biurtu zan Larrea; eta, une gorri aretan zegaz bizi ugaririk etzan arren, agintari ta menpekoen gogo onez, ederto asko aurrera eroan zan abagune arek eskatzen eban lege barruko egun-jarduna.

Baiña ez luzaroan. Zori gaiztokoa izan zan Espaiña'n, prailleentzat, 1834' garren urtea. Oneik euren arloari lotuak, autortegian, pulpituan naiz geixokaz, ari ta oni laguntzen lanean ekioela, asmo txarrak axaturiko batzuk bala-bala zabaldu eben, Madrid'en iturriak, prailleak pozoitu ebezala. Ta ortatik sortu zan arein kontrako amorru biziak ilketa ikaragarria egin eban eleiz gizonen artean.

Ori zala-ta, gaiñera, Espaiña guztian —1835'ko urrillaren II'an— emendatuta, au da, galazota geratzen ziran gizezkoen komentu ta lekaretxeak, bearrizanean egozan umeai irakasten eta geixoi laguntzen ziardenak izan ezik. Espaiñar gobernuak emondako agindu zakar orregaitik be, Larra'ko karmeldarrak berton jarraitu eben oindiño, 1839'rarte. Urte ontako zezeillaren 19'tik 1846'ko zezeillaren 19'rarte, espaiñar gobernuak ipiñita, Arnaiz eritxon baten eskuetan egon ziran komentua ta eleizea. Ordezko au txakur andiATEGAZ bizi ei zan berton; baiña, ingurukoak ondo ikusia etzalako, gau baten ilda aurkitu ei zan; iltzaillea nor zanik ez ei zan sekula jakin.

Gobernuak, **prailleak** komentuetatik bota **ez-eze**, euren ondasunak **oro saltzea** be erabagi eban, **1836'an**. **Euskal** probintzietan etzan **ain arin bete agindu gaizto ori**, **baiña** azkenez, **anai** arteko gerra **amaitu zanean**, **Bizkaia'n** be naitaez bete bear **ziran** praille-etxeai **buruz** gobernuak arturiko **erabagiak**; **beraz**, **Bizkaia'n** ortarako izentaturik egoan batzordea danen **jabe** egin **zalako**, komentu **au** be gobernuaren eskuetan **gelditu zan**.

**Sei-zazpi** urte orrela egon ondoren, **Larra'ko jauregiaren jabe** ordun **zan** Diego **Felix Olaeta'k** beragandu **al izan ebazan** eleizea **ta** komentua eukezan **gauza** guztiekin; **auzitan luzaro samar** ibillita be, azkenik berak irabazi **eban**, 1846'an **Burgos'en** emoniko errege-epaitik **dakusgunez**. **Ortaz**, **Olaeta jauna** guztien **jabe** egin **zan**, **baiña** lendik karmeldar prailleai eskrituran **ipiñitako zor-zergak**, berak ontzat **artu ta** betetekotan. Orretarako, **Olaeta jaunak Larra'** tik **ur bizi ziran** karmeldar batzuei dei egin eutsen, komentuan bere **kapillau** lez **bizi** eitezan; onein **ardura ta pentzura egongo zan** Larrea'ko eleizea **ta** eurok beteko zituen aspalditik eukezan **meza-zor ta enparauak**.

**Esandako guztitik auxe** atera geinke: karmeldar prailleak, euren **bakar-tegi** maitea —**eleiza ta komentu**— bertanbera iztera beartuak **izan zirala 1839'ko** zezeillaren **19'an**; **egun** ortatik 1846'ko zezeillaren **19'arte**, **au da**, **zazpi** urtean, gobernuak ipiñitako ordezkari baten mendean egon **zirala** komentua **ta** eleizea; 1846'tik 1876'ko bagillaren **22'arte**, **au da**, ogetamar urtean, gobernuak komentutik botatako praille karmeldar **batzuk izan zirala** bertoko zaindari, **ta** 1876'ti **aurrera**, **gaur** arte, karmeldarrok baketsu **bizi gareala** berton.

Felix Olaeta'k, **1855'an**, bere **loba Fidela** Olaeta'ri itxi eutson emengo **ondasun guztien jabetza**. **Ta** andra itzalgarri onek gero, Gernika'n 1875'ko urrillaren **22'an** izenpeturiko agiri baten bitartez, baimena emon eutsen **Mar kiña'ko** karmeldarrai, **Larra'ko** komentuan, **Kuba ta** inguruetarako mixiola-riak azteko ikastetxe bat ipiñi egien. **Era** onetan, eleiz-barrutiko **Gotzaiñaren**

baímena, **Gobernuarena** ta **Karmeldarren Aita Nagusiarena** lortu ondoren, **ixillaldi luze** ostean **apurka-apurka zutituaz** joian; **euskal probintziko nagusi** zan **A. Pedro Jose**'k sei **praille** —**A. Manuel, Juan, Rafael, Agustin, Kamilo** ta **Buenabentura**— bialdu ebazan **Markiña**'ko komentutik, **Larra**'koaren **jabe egiñik**, bertoko **lege-bizitza asi** ta eroan egien. **Olan egin** zan **1876**'ko **bagi-**llaren **22**'an.

**Barriro** be, onantxerik, **zutik ezarria geratu** zan **Larrea**'n **praille** bizitza bedegarra. **Aurrerantzean**, orraitino, **Aztetxe** be **izango** zan komentu **au, ots, gazte-mintegi** ekarkorra. Ordutik **gaur** arte, urterik urte, **konta ezin alako** seme-erreskada emon **dautso** Karmel Ordeneari, len eta **orain** mundu **osora** zabaldua, **Eleiz Ama** deunari be **aintzarik** naiko ekarriaz.

**Karlisten** gerratean **etzan** emen gorabera andirik **izan**. **Inguruetan** bai, **Bilbao aldean** batez be. Ta **ango dinbili-dantza**, aldarketa ta **joanetorriak** bitarteko, **Larra**'ko **Andra Maria**'k eta bertoko **praille kapa zuridunak** ikustaldi pozkor bat euki eben: 1873'ko abenduaren azkenerantza, **Begoña**'ko **Ama or ibilli yakun** bidelari. **Liberalak Begoña**'ko eleizeaz **jabetu** ziranean, **karlistak artu ta Lekeitio**'ra eroan **nai izan** eben; **baiña** gero, ordukoz beintzat, **Santa Marina**'ko ermitara eroatea obeto eritxoan. Andik laster, **alan** be, **guda-oin a arriskutsua zala-ta**, karlisten **nagusi** zan **Andetxaga jaunaren aginduz**, **Larra**'ko eleizara aldatua **izan** zan. **Begoña** ta **Larrea**, **Andra Maria**'ren iduri eder bi, ona **aurrez-aurre**. **Guda-txinpartak itzali** ziran arte, ementxe egon zan **Begoña**'ko **Ama**, karmeldar lekaideak txera **biziz** ta biotz **samurrez** zainduta.

Azken-gerratean, **Aita Roman** zanaren eriotza **izan** ezik, **prailleak ez** eben askorik **sufridu**; **baiña** sei bat illabeterako euren etxe maitea **utsik lez itxi** bear **izan** eben, lenengo gobernuaren aldekoak **guda-premiñetarako eskatu** euskuelako ta gero, **nazionalak** ona urreratzean, **su** biren erdian aurkitzen **zalako**. **Aita Rafael** zan bertoko **nagusi** ta **Aita Jose Domingo**, gazteen **maixu**;

oneik biok eta Eujenio anaiak ementxe jarraitu eben 1937'ko maiatzaren 28'raño. Nazionalak sartu ziran orduan, eta zati batean komentu au izan eben euren gudaletxe. Bilbao nazionalen mende jausi zanean, laster itzuli ziran barrero or-emen sakabanaturik egozan prailleak; Aita Simon ta Tobias bagillaren 22'an eldu ziran, eta andik egun batzuetara Aita Jerman eta Juan Antonino.

Ekaitza joana zan, Zornotza ia guztiz ondatua itxirik. Larra'ko komentua be utsik, eta loi. Lau praille areik, alan be, etziran kikildu. Gain etorren Karmen'go Amaren jaia, ta Ari eskerrak emonaz, alik eta eztien ospatu bear zan. Ez ei zan jente askorik eleizaratu. Zornotza garai atan gaurko irutik bat lez zan, eta familirik geienak ortik zear, aterperik eta bakerik bage.

Bertatik dei egin yaken euren etxeetan aurkitzen ziran karmeldar gazteai. Aita Eladio nagusi ta Gillermo maixu, lengo praille-gai bizitza gogotik asi eben. Baiña txit beartsu etozan gazteok, gerra zakarrak erpakada latzak itxi nunbait. Eta komentu onek, ezeren laguntza barik, urte batzuetan beiñik bein, gorriak ikusi bear izan ebazan gazteentzat zer-jana ta zegaz jantzia eskuratzeko. Orduantxe, besterik eziñean edo, lurrera bota ta saldu bear izan zituen antxiñako patroien jauregiko arriak eta baratzeko zugatzak.

ft

#### VI.—Karmen'go Kofradikoak

Bakotxak izan oi dau bere ezaugarria. Karmen'go Lagundia Andra Maria'ri eskiña da gizaldiak zear. Arturiko bideari ezin errez ukorik egin. Eta Amak berak, semeon zintotasuna ikusirik, ekarri euskun beragazko maite suaren ezaugarri apartekoa: Karmeldar Kutuna (eskapularioa). «Karmen'go Ama on eta altsuak —diñosku Aita Pio'k— bere semerik maiteenak jazarpen gaizto ta éstuan txarto erabillezala ikusita, semeoen deiari erantzutea erabagi

eban, eta bere ardurapean eskier artzeko bere maitasun amakorrak asmotu, bere alortasun eskaleak indartu, ta bere eskuakaz josiriko ondasunik aberatsena ta kutunik ederrena ekarri ta emon eutsien».

Eta auxe da, 1251'ko garillaren 16'tik, gaur arte, karmeldarrontzat ondasunik bikaiñena, arimak Jaungoikoagana biurtzeko armarik onena. Gaur be bai? Oba ez! Batikano'ko Il'garren Batzar nagusiak, eta ondoren Paulo VI'garren Aita Santu agurgarriak, sarri adierazo dabenez, fede-bizitza arime-tan piztuazo ta indartu al izateko, batez be bide bi daukaguz, guztiz indart-suak: familiko errosarioa ta Karmen'go Amaren kutuna. Beraz, urteak joanar-ren, zeru-bizitza lortu nai baldin ba'dogu, betiko bideak bardin samarrak ditugu. Gauzak —erabat bideak— zarrera egin oi dabe; gauza zarroi, antxi-ñako bideoi, oso obeago batzuk asmatzea eziña yakun arte, indar barria txertatu bear dautsegu.

Euskalerrriak maite izan dauz karmeldarrak, eta berton sartu ziranetik maite izan be. Zergaitik ete? Karmen'go Amaren kutunagaitik, nik uste. Oso antxiña eguzki-izpia lez zabaldu zan kutuna eroateko oitura. Ezta edozelan be, Ama gizkarbiak seme onari eskatzen dautson lez baiño. Ta olantxe, kutuna aldean, guztiok karmeldar egiñik gabiltz. Zenbat direan, bai, bere anaiki-de egiñak, giza-barren otz au «Karmen'go Amaren biotzagaz Amaren ondoan berotu, bere maitasunean ixiotu, bultzada barriaz indartu, bere laztantasu-nak oartu, bere anditasunak aditu, bere on-egiteak eskartu, bere aintza go-raldu ta bere gorespenak abestu» naiean dabiltzanak!

Orrela, Larra'ko txoko onetan Karmen'go Amari kultua ta dizdiza, urteak urte, eskiñi ta emon izan dautsoen egilleen barri ekartera ezkeru, egoki ta zuzen da bertoko kofradia ta kofradikoak be aitatzea. Ez dakigu noiztik onakoa dan, baiña urriñean galtzen da antza bere asiera. Ziur samar, lenengo karmeldarrak ona eldukeran, laster artuko ebezan anaidian emen inguruan bizi ziran gazte-zar jainkozaleak, eta urriñagokoak gero; baiña itxarote luze

barik, bear-bearrez, karmeldarrak ba berezko bizikereak esaktzen dautsoenez, Kristo'ren itz-zabaltzaille izan yatzuz beti; ta orregaz batera biotzean ondo **su**straituta eroien Karmen'go **Amaren Kutunaganako** beroa be, naitaez, iragarri ta **zab**aldu bear. An eta emen, ainbat ariñen egingo ziran ba Karmen'go **Amaren magalpeko**, Aren **jantziak** eskintzen **eutsezan** mesede **ugariak** irabazi egiezan.

**Ezta ezagutzen** noiztik **asi** ziran kofrade **modura** artzen, **Larra'ko liburue-**tatik **ezpaita** agiri. **Alan** be, **aspalditik** etorren **kutuna jantzi ta** anaikide egiteko oitura. **Baiña Larra'n ba-zan**, orrez **gaiñera**, beste **anaitasun** berezi bat: **Espaiña'n** karmeldarren **nagusi Aita** Prantzisko **zala, 1776'ko** urrillaren **28'n** Kordoba'n izenpetuuriko agiri baten bitartez, **Larra'ko** komentuko **nagusiari baimen osoa** emon **eutsan Aita** onek, Karmen'go **Kutunareti Artxiko-**fradi aparteko bat **sortu ta** eratu **egian**. Orrela, Zornotza'ko ta Etxano'ko **abade-buruak** eurak be eskaturik, **Aita Nagusiaren** eta **Kalahorra'ko Gotzai-**ñaren on-eritxia lortu ondoren, **legez** ezarri **zan** emen Kofradi ori **1778'ko** maiatzaren **31'an**. Orduan Larrea'ko **nagusi zan Aita Manuei'ek**, **anaidiaren asi-agiria** idaztean, onela diño: «**Gaurtik** emen **daukagu** Karmen'go **Amaren** Kofradia, bai guztientzakoa **ta** bai aren barruan dagon bertorakoa be, **Etxano-Zornotza'n** eta **inguruan** Andra Maria'ren omenez **bizitza zintzoagoa** egin **gura** daben guztientzat».

**Legedi** berarizkoa **eukan** Kofradi onek. Legedi **au** etzan **bape gogorra**; **barru-bizitza eskatzen** yaken batez be. Kanpotik: 1 ) **Kutuna** artu, komentuko **nagusiaren** eskutik; 2) Andra Maria'ren **jaietan autortu ta jaunartu**; **Karmen'go** Amaren egunean, **Larra'n** bertan **burutu** bear **ziran balditza** biok, **arratsaldeko** eleiz-birara etorriaz; 3) **al** izanik, illaren irugarren domeketan eleizkizunera etorri; eleiz-biran, **gizonezkoak** gurutzearen atzetik ibilliko **ziran**, **abadeak prailleakaz** naste **ta andrazkoak** onein ostein; 4) anaikide **bakotzak** bere barruak **diñotsanez gauzak egingo dauz**, **ta iñok ez dautso** orren kontu-



Larra'ko karmeldarrak, 1924'an



Gerra aurreko aiuntamentua, eta beian euskal jai bat



rik artuko; 5) kofradikoai ez yake eskupekorik eskatuko, ez ixillean ez agi-  
rian; bakotxak nai dauana ortarako eukiko dan kutxatxo batera botako dau.  
Ta onela beste puntu batzuk.

Kofradian sartutako en izenak ortarako liburu baten idazten ziran. Olako  
lau liburu lodi dagoz Larrea'ko komentuan; 1778'an asi ta gaur arterako en  
izenak orreitan dagoz oar-erazota. Lenengo erreskada Zornotza'n eta Etxano'n  
apaiz-buru zan Derteano jaunak asten dau, ta ondoren Larrea'ko patroia zan  
Juan Bautista Larrea ta Arkaute dator. Izendegi bat baiño ezta, ez egunik  
ez lokirik ez bait-dakar; orrialde bakotxa, goitik beera, lerro-moltzo biñaka  
idatzita dago, ta batzuetan irunaka.

Lenengo liburuak 246 orrialde ditu foliotan; 1907'raiño eltzen da, ta  
40.500 bat kofradeen izenak dakaz. Bigarrena, bardin idatzita, 1927'raiñokoa  
da; 110 orrialde ditu foliotan, eta gitxi-gorabera 20.000 dira ezarritako izenak.  
Irugarrena 1927'ko azillaren 20'an asten yaku; 200 orrialde dauz zenbaki-  
tuta; 12.648 kofrade izen. Laugarrena ez dakigu noiz asia dan, baiña irugarre-  
naren jarraipena danik ezin daikegu ukatu; foli tankerakoa da, zenbakiz ta  
lerroz apaindua; eun da ogeta bi orrialde daroaz idatzita, abe bitan. Ba-da  
beste ingurrazti bat be, liburu nagusi ontara oindiñokarren bertako izenak  
aldatu bakoa. Liburu biok, guztira 10.000 kofradeen izen egiten dabez.

Onela, 83.000 bat anai daukaguz oraiñarte Karmen'go Kofradiko lau libu-  
ruotan ezarrita. Beste asko be ba-leiteke oraindik, edo izen-paperak eta  
liburuxkak galdu egin diralako, edo-ta kutun-ipinteak nozik beiñean aldraka  
osotu diralako, lau liburu orreitan ezarri barik geratu naiz galduak izatea.  
Oar, au be, gaiñera: Zornotza'k eta Etxano'k, orain berrogei bat urterarte,  
bi milla arima ozta-ozta eukiezan, eta izen-ezarte oneik asko beintzat albo  
errietako en artean egiñak dira. Lau liburuok, azkenez, biotz leialak urtez  
urte Andra Maria'ri eskiñi leikeo en maite-dedurik ederrenetarikoa dira.

## VII.—Beste kofradi batzuk

Suak beroa lez, jainkozko gizonak bere kautan daroan goi-irakia inguruan zabaldu ta ixio-azo bearra dauko. Berezko orri arnas emonik, Larra'ko prailleak, erririk erri izlari jardutean, nainun ixiotu oi eben Karmen'go Amari buruzko erretea. Agiri bat: Larrea'n ez-eze, Bizkaia'n ba-dira errietan be, Bermeo'n eta Maiñu'n adibidez, Karmen'go Amaren kofradiak.

Karmel mendia, alan be, ezta lora bakarreko ortua, era askotakoz jantzia baiño. Ez arritu, beraz, karmeldarrak euren biran, lora muskil antzera, beste anai-talderik naikoa ba-daukiez be. Ta orrela izentatu geinkez ainbat anaitzako ta kofradi txiki, karmel-zugatzak ekarriak: 1) Irugarren ordena; 2) «Semana Devota» deritxona; 3) Praga'ko Jesus Umearena; 4) Teresatxo deunarena, ta alkarte ortatik sorturiko Kristau-lkasbidea, ta 5) Isidro deunarena.

Irugarren ordenea berez, bere muiñera jo ezketiño, kofradi baiño geiago dala edonok daki. Pertsonak ba-dira, gizonezko ta andrazko, karmeldar ordeneaz artu-emon barrukoan bizi ta arek eskatzen dauan lez jainkozko bizimodu latza eroan gura dabenak, baiña praille edo moja, au da, lenengo ta bigarren ordenako izan ezin leitekezanak; oneintzat dauko Eleiz Amak irugarren mailla ta ordenea. Karmeldar komentuak jaso-ala agertzen dira onakoak, eta Karmen'go Amaren seme-alaba gartsuontzat da batez be irugarrena deritxogun bazkuna.

Larrea'n be, karmeldarrak bertoratu ziranetik agertzen yakuz irugarren ordenakoak. Bertokoak dira geienbat —Etxano'koak eta Zornotza'koak, iñoizka beste errietakoak be arein artean sartu arren. Gaur naiz antxiña, komentu ontan mordotxoa ezagutu izan da. Illaren bigarren igandez egin oi dabez euren eleizkizunak, goiz eta arratsalde, gaiñerako jai-domeketan be eleizkizunetara izan ta kristiñau zintzo agerturik. Legediak naiko eskatzen dautse: alkar-maitasunean bizi, Ofizio txikia errezau, bakotxak bere bizimoduari dagokion garbitasuna gorde, ta abar.

«Semana Devota» erderaz deritxona da beste anaidi berezi bat. Karmen'go kofradia dau oiñarri, bitzuetakoak kutuna legez artu ta eroan bear dabelako; baiña anaidi ontakoak kofraditar soillak baiño aurrerago doaz, ondotoz be. Kofradikoai beste antz bat ezarten bai dautse; areik daukezan bete-bearretaz gaiñ, astero ta bakotxari izentauriko egunean, Andra Maria'ri ikustaldi bat egin bear dautse oneik. Antolaketa erreza da; alkarte onen soiña, zelanbait esan, talde ta koruak osotzen dabe; koru bakotxean, gizon naiz emakume, zazpi sartzen dira, bakotxak izentauriko egunez Andra Maria'ri ikertzea itz-emon eta beregaiñ arturik.

Anaitasun au ezta antxiñakoa. Lendik be, Valladolid'en eta Valencia'n, onako zerbait egoanarren, Aita Juan Bizente'k, Berriz'ko seme argiak (1862-1943), Burgos'en nagusi zala, legez jarri eban 1898'garren urtean. Andik, beingoan zabaldu zan gure komentu guztietara, baita Larra'ra be. Emengo «Semana Devota» au be, ba, ez dogu atzo goizekoa. Koru asko dauz, eta pozgarria da egiaz, berton, egunero ta orduz-ordu, Karmen'go Amaren oiñetan, bakotxak bere ikustaldia egiten ikustea.

Onen luzapen bat lez dogu Karmen'go Amari «etxerik etxe» egiteko ikustaldea be. Aita Doroteo'k, bere Karmen'go Amaren Esku-liburua'n, onela: «Erri askotan Karmen'go Amaganako maitasuna geiago zabaldu ta ezague-razteko, etxerik etxe erabiltzen dute bere Irudia, era onetara: ogeitamar sendi edo etxe, au da, illak dauzkan egunak bezela, biltzen dira, egun bana izentatuaz Karmen'go Irudia egun ortan bere etxera eraman eta urrengo egun arte eukitzeko» (63'garren orrialdean). Irudi ori etxe bakotxean ogetalau orduan egoten da, illunabarretik illunabarrera; bere aurrean argi bat bizturik eukiten da egun guztian; baita, al dala, etxeko guztiak Jaunartzera saiatu be.

Praga'ko Jesus Umearen Kofradia. Praga'ko karmeldarren lekaidetxean, 1628'an, sortu zan jaiera eder au. Ango gudate gogor baten, giza-seme gaiztoak, erri osoa ta karmeldarrak euren komentuan biotz-beroz zaintzen eben

**Jesua Umea** be, **dana erre ta puskatu** eben. **Bost** urtean etziran euren **lekai-**detxera biurtu karmeldarrak, eta itzultzean, Zirilo **Aita** batez be, **Jesus Umea-**ren maitale **zintzoa**, gizon doillorrek zokondo **batera jaurti** eben iduri **billa asi zan**, **autsez** beterik eta eskutxoak **ausita** azkenez aurkiturik. Umetxoa onela **ikusita negarrak** emon eutsan; **baiña** laster **poztu yakon** biotza, **Jesus Umeak** onela itz **egin** eutsonean: «**Erruki** zaito **Nitzaz**, eta **Ni** be errukituko **naz zutzaz**; eskutxoak **biurtu egidazuz**, eta **Nik bakea emongo** dautzut; **goraltzen** nozuen neurrian lagunduko dautzuet'. **Ona Praga**'ko **Jesus** Umetxoaren iru eskintzak.

**Jesus**'ek bete ebezan bere berbak, **Austria**'ko erreñu **guztian** bere **ezau-**gera zabaldu. **Eta** ondoren, **Europa** **guztira**. Ementxe berton, **Iruña**'n, Donosti'n, **Gaiztez**'en, **Begoña**'n, **Markiña**'n, eta **alde** guztietan edatuta **dago** aspaldiko urtetan. **Larra**'n, koñradi berezi **lez**, **1916**'an jarri **zan**, **Aita** Pedro Zelestino'ren biotz-berotasun eta **lanai** milla esker. **Eta jarri zanez** geroztik, **bere** goraberak **izan dauzan** arren, beti ikusi dogu **zoragarri**. Anaidi ontan, **naiz umeak naiz nagusiak** edozein urtetan **sartu** leitekez; **baiña** talde bi **egitea** txit egoki **da**: bat txikienez, **au da**, jaioten diranetik **amalau** urterarte, **ta** bestea, **nagusiagoentzat**. **Parkapen** eta **irabazi** andiak **daukez anaidi** ontakoak; eginbearrak, ostera, oso errezak.

Teresatxo deunaren **Alkartea**. Teresa **gaztea**, **zeru-lurrak** —aldikada **ba-**ten— **lilluratu** ebazan lora **mardula da**, mundu **osoa** zerutar **lurrunez usain-**du **ebalako**, bere **lorratzai jarraika arima** txiki **asko** gogozko bizitzara **era-**karri ditun **Jesus**'en Loratxo **guria**. Lontzi **abak** onela abesten **dau** bertsotan aren eragin zorakorra: «**Zorunez agertu da/ gure** egunetan/ **izar argi** eder **bat/ zeru** goietan/, **adiñak argituaz/ illun** unetan/ biotzak ipinteko/ **garrez** erretan».

**Izar** onen **izpiak** nainora **eldu** ziran, Eleizeak —**1925**'an— altaretara **jaso** ebanean **alan** be, **ta mundu osoa** aren atzetik **ibillia dogu**. **Garai** atan **Larra**'ra **erromes** etorri **ziranak**, **konta ezin-alan izan yakuzan**. Oindiño **gogotan** dot,

berton **ikasle** nintzala, **zelako arduraz** lan egin genduan **inguruok apaindu ta** dotore **jarten**; Donosti'tik, Bilbao'tik, Markiña'tik eta albo-errietatik ona **etozan** ume ta **nagusiai** arrera txeratsua egin bear, derrigor. **Egun zoragariak areik!**

**Eta** orduantxe edo **sortua da Larra'n** urterik **urte ain** indartsu bizi izan dan Teresatxo deunaren Alkartea, erderaz «**Pía Unión**». Urrengo urtean —**1926'an**— beintzat, **altara** barri bi ipiñi **ziran** eleiza ontan, **bata Praga'ko Jesus** Umeari eskiñia ta bestea Teresatxo deunari. Altarok, **baiña**, eleizan **leku larregi** artzen ebela-ta, **Jesus** Umearena —**altara nagusiaren** oiñetan eskumatik **egoana**— **1952'an**, eta Teresatxo deunarena —**altara nagusiaren ezker** aldekoa **1964'an** kendu **ziran**. Teresatxoren alkarreak urte txalogarriak **ezagutu dauz** Zornotza'n; **1947'an** esate baterako, Teresa deunaren eriotzatik berrogetamargarren urtea **zala-ta, jai** bete-beteak **ospatu** ziran komentu ontan; orduantxe erabarritu **zan, Aita Jose Luis** zuzendari zalarik, eta orduantxe **sortu zan**, Alkarte orren erraietatik, **gaur** be oso **loratua** dagon **Larra'ko Kristau-lkasbidea: ainbat** eta ainbat **umek** bertan ikasten **dabez, ogei** urteotan, **gizonok Jainkoaz** ditugun betebearrak.

**Azkenez, ba-da** beste alkarte bat, Isidro deunarena; an, **1919'an ospatu zan** lenengoz **emen** inguruko baserritar guztion **artean**, eta arrezkero, utsik egiteke, **ospatu izan da**, bere egunean mezea, itzaldia ta eliz-bira egiñik.



## AMARI OIUKA

Airea: Bilintx'en Loriak

Lore artean larrosa eder,  
eguzki pitxiz betea;  
amas etenak narabil larri  
barne oiñaze tristea.  
Zure ondoan naukazu orain  
biotza penaz asean;  
neure samiña esaten no'a,  
Larrdiko Ama maitea.

Zu eder zara baratz onetan,  
muiño zurian jarria;  
zelaiak aundi, mendiak orlei,  
dana maite-suz josia.  
Karmeldar seme biotz zabalen  
lurrunkai leunez ornia,  
otoitz beroa goiz eta arrasti  
ioatzu eten bagia.

Ostoa nózu bira-biraka  
nora-ezean noana,  
lurreko lokatz zikin artean  
ustege jausten nazana',  
arria nozu, oso txikia,  
urak oldez daroana.  
Zelan nik esan, bertso zimelez,  
barruan jazo yatana?

Zu baizen ona banintza, Maite,  
ez legoke, ez, samiñik;  
ez biotzetan arantz-eztenik,  
ez begietan negarririk.  
Zu Erregiña áltsu zara-ta,  
zegaitik gabiltz tristerik?  
Erri bat dozu gartsuki maite,  
samiñez **berau zegaitik?**

lez Ezta protesta, ezta asarre  
nire agoak diñona:  
gizadiaren biurkeria  
ezesten dogu lenena;  
argia dogu beti maitatzen,  
ez dogu nai asperena',  
egia dogu ziñez autortzen,  
egirik lau **ederrena.**

Zugatz ta muiñoz inguratua,  
eder da zure aulkia,  
baiña praillegai gazteok dira  
zuretzat aintza bizia;  
zure deiari erantzun dautse  
beterik zure antsia,  
i'emen dituzu izan gurarik  
betikoz zure koroia.

Zu emen zara —noiztik ez jakin—  
Ama t'Erregiñ batera.  
Zure magalpe bigun ez-tian  
modurik asko ta era  
zure semeak asmatu dabez  
emon naiz zuri jaiera:  
ezin, ez, neurtu onein oiuen  
sakona, ezta luzera.

Zure buru-gaiñ kóroi bikaiña  
jarri guraz gu gabiltza;  
ezpedi arro-puzkerizkoa,  
ezpei pitxiz be arrotza;  
biotz-ikaraz, erruki-oiuz,  
barren-miñez aberatsa,  
izan bedi bai, Ama laztana,  
**gure** biotzen **otoitza.**

*Argin ta lugin, lurtar ta itxastar,  
txiro ta áberats artean,  
zar eta gazte egiña bedi  
guztiok esku artean.  
Euskaldun seme jatorrak gara,  
ba-dogu indarra fedean;  
orrela beitez gure semeak  
ameska beti ortzean.*

*Len bere gaur lez, biar be gaur lez.  
zure oiñetan jausirik,  
mordoka beti argi-lókarritz  
ikusi beitez gaztiak.*

*Begi dizdiza goiz eta arrasti  
zabal, noranai argiak,  
ta usain eztitan ixurka begoz  
zure koroian loriak.*

*Biotz-larrosa, egurats urdin,  
guztia bedi zurean.  
Gazte leialok lurbira dana  
pizt-azo beie maitean.  
Zomotza dana, euskal erria,  
bebil Jainkozko legean;  
eta gerora, egun aunditan,  
ar gaizuz danok pozean.*

J. Luis Markaida



## Larrea, zeru-arnas jarioka

I.—Urterik urte ñirñir

Besteak beste, gure karmeldar Probintziko komentuetatik Larra'koa dala esan geinke eragimenik biziena bere inguruan zabaldu dauana. Ta aldikada batzuetan auxe izan da —ta gaur be bai, nik esango neuke— Bizkai barru ontan Andra Maria'ren santutegirik aurrenentzat joa; naiz Durango, Arrati, Gernika aldera begiratu, naiz Asua ta Galdakano bailleretara, urte askotan beintzat, bizkaitarrak Larra'ko eleiza auxe izan dabe euren gogozko batzar-leku ta igestoki zoragarria. Nok biztua ete da on-gose ta irakitaldi ori? Karmeldarren ardura biziak emoniko frutua da nunbait; ez ukatu, otoi. Gure aurretikoak emen daroezan berreun eta berrogetamar urteotan, egin izan daben ereintza-lanari ezarri bear dautsagu ale-ekarte au.

Bertoko patroien egape ta laguntzaz, 1712'an gure lenengo prailleak Larra'ko muiño ikusgarri onetara eldu ziran ezkeroztik, emen izan gara karmeldarrok; egundo be palta barik, esan geinke. 1808'tik laster prantsesak emen sartu yakuzanean, utsarte txiki bat, barriro be 1813'an len baizen gogotsu karmeldar bizitza asteko; geroago be, gobernuak emondako lege gaizto bat zala-ta, 1835'an beste etenaldi labur bat; laburra bai, zorionez, gorago aitatu dogun Diego Felix Olaeta, komentu ta eleizearen jabe egin zanari esker-rak, ba, prailleak komentuan jarraitu eben, aren kapellau lez, eleizako ta kanpoko arima-zerbitzu guztiak egiñaz.

Komentuko kroniketan naikoa zeatz emoten da prailleen lan gomutagarria, au da, karmeldarrak bertan bizitzen asi ziranetik aurrera egindakoa. 1713'an bertan, kondaira liburuan au idazten zan: «Larra'n karmeldar ortozak egozala jakin zanetik jente asko etorten zan bertora, autortu ta arein irakatsi onak artzera; eta prailleok on ikaragarria egien arimetan, il-zorian egozanai lagundu ta gaixoai euren neke-premiñetan bear ebena eskiñi ta emonik».

Urte batzuk geroago, 1748-51 bitarteko kronikan, komentu onen oiñarriak osoz buru emonda egozala, lenengo urteetako burruka, ezezko ta oker-etorrien ostean, au lerropetzen da: «Iurte oneitan asi ziran etxe onek urte guztietan emon bear dabezan mixiño-lanak. Oneik zirala-ta, ainbat jente bertortatu zan, eleiztarrak eurotatik atera eben frutua txit ugaria izanik, eta au lurralde ontan somatu dan gauzarik arrigarriena lez euki geinke, bear bada. Etzan, baiña, onetan geratu urteotako nagusiaren jainkozko ataza, gogo-nai ta barren-sua; garizuman alboetako errietara izlari ta predikadoreak bialdurik, ba, Eleiza katolikuaren mastegian frutu-batze galanta egin eben; erritarrak alkarren leian jarraitzen eutsen, euren sermoe ta autortegi-lanakaz artzen eben guztizko mesede aintzagarria bero-bero txaloturik. Etzan gero gar eskasagoa etxean geratzen ziran langilleak euren egitekoan ezarten ebena;

domeka ta jai guztietan goizeko bostetan asi ta arratsaldeko ordu biak jota be taldeka ona etozan eleiztarrak autortu ta arima-janariz alikatzen era-goioen».

Urrengo irurtekoan au jarten zan: «Entzute andiko mixiñoak emon ziran, eleiztarren artean ikusi zan gogo bero ta frutu ugariagaitik batez be». Kronika oneik urterik urte idazten ziran, baiña batez be iru urtetik iru urtera aukeratu ta aldatzen zan nagusiaren lanen zertzelada ta barriak emoten ziran.

Urrengoan (1754-57) au diño: «Garizuman izlariak bialdu ebazan albo errietara, arima katolikuen artean mesede andia egiñaz. Iurte oneitan, bes-teetan legez emon ziran etxe onek bere gaiñ daukazan mixiñoak. Jente asko eleizaratu zan, eta iñoiz ezautu eztan lakoxea izan zan mixiño oneitatik eleiztarrak eurentzat jaritxi eben irabazia».

Urrengo irurtetako kronikeak be bardin dakar garizuma sermoe ta zeregiñen buruz. Eta 1760-63 bitartekoan argitasun aparteko bat damosku, au da, Gogo Jardunak aitatzen dauskuz. Orduko nagusiagaitik au diño: «Langille amorratu agertu zan, eta erri-gizonak lez apaizak be, onenatarikoak etorri yakozan gogo-jardun orreitara».

Zertzelada au, barriz, geituta irakurten dogu urrengo irurteko (1763-66) kronikan: «Norbere arazoari ondo loturik ibilte onek ekartson usain onak izaera ta mailla askotako gizonak eta emakumeak ekarten zituan Garizumaz, urterik urte geiago, euren arima jardunak egitera etxe santu ontara baztertuaz. Nagusiak ardura osoa ipiñi oi eban arima orrei berak edo besteren batek lagundu egien, ez lur ontako gauzetan bakarrik, batez be arimakoetan baizen; eta orrela, guztiak onera eragiñak eta bestelakoturik andik urten oi ziran. Tankera ontan eltzen ziran asko etxe santu ontara euren arimen eta gorputzen osasun billa, ta prailleak danai lagundu oi eutsen, nai autortegian

nai bedekaziñoak emonaz. Nagusia etzan onegaz be naikotu, ta garizuma aldian beste praille batzuk be bialdu ebazan alboko errietara Jainkoaren itza aldarrikatzen. Azkenengo urtean mixiñoak egin ebezan aginduta dagoanez, eta, etorteko urteetan izlarien lana zerbait arindutearren, praille aukeratu batek amaika itzaldiko mixiño bat osotu egiala legez agindu eban; ontatik frutu ederra jaritxi dabe arimak, eta jaritxiko be bai, uste danez».

Urrengo sei urteetako (1766-69 ta 1769-72) kronikeak barrero zeaztu daroa garizuman, gogo-jardunetan eta urte barruko igande-jaietan Larra'ko prailleak aspertu barik egiñiko lana. Gaiñerakoetan, arako 1808'ko prantses-burrukararte, au diño labur-labur: «Arima arazoetan, gauza jakiña danez, ondo lagundu eutsen eleiztarrai».

Prantses-eraso aldiaren ondoko urteetan, 1835'garrenean prailleak komentuetatik bota ebezan arteraiño, kroniketan ez dogu berarizko gauzarik aurkitzen, baiña legezko sermoiak egitea ta beti lez arimai laguntzea ondo egin zan, antza danez. Ori atera daikegu beintzat kronikeak bein ta barriz diñoskun esakune ontatik: «Arima arazoetan, jakiña danez, ondo lagundu eutsen eleiztarrai».

Eta era onetan, egundo be nekea zer zan ez ekiela, nagusia menpekoen berogarri zalarik, lan egiten eben praille zintzoak. Orrelaxe amaitu zan Larra'ko prailleentzat lenengo eunkada au, naikoa luzatua; santutegi ontan bizi izan ziran, beti langille, baiña oraingoan euri-jasa baltz baten menpean ziran, eta jakin ez zelan urtengo ziran bertatik. Eta egia esan, berrogei urteko ixillaldian latz samar zirikatu ta oldartuak izan ziran, dudarik barik. Gero, alan be, euren komentu ta eleizeaz, barrero eurenear gogortu ziranetik, argi-urrazte eder antzera zabaldu zan Bizkai'ko lurralde nasaietara arein jainkozko eragin bete-betekoa.

## II.—1876'tik aurrera

Berrogei urte luzeok olan igarota gero, 1876'ko bagillaren 22'an, Markiña'ko gure komentutik sei praille eldu ziran Larra'ra, berton bizi izateko. Urte-buru barri bat geunkan dizdizka, bai Larra'ko komentuentzat bai Ordena osoarentzat: lengoak eta oraingoak, nor-geiagoka lez jokatuko eben dizdizloratze ortan.

Larra'ko kronika, esan dogunez, urte orretan asi ta aurrerantzean, liburu barri batean idatzi zan; baiña zeaztasunetan ezta aurrekoa baizen arduratsu, ta prailleen arima-jarduketan goraberak jarten ebazan zertzelada asko, emen eztira agiri. Baiña, emen be, aurkitu geinke gauza ederrik.

Gaiñera ez dago zetan nekaturik Markiña'tik etorritako sei prailleak, len-dik emen bizi ziranakaz batera, euren egikizunak zintzoro beteko ebezala esaten. Eta egiteko orreitan bat, gora andikoa, Kristo'ren fedea errietan erein ta zabalduaz, arimak zeruratzea zan. Eta gai au guk karmeldarrok bigarren izate bat legez dogu-ta, orretan etziran alperrik ibilliko ziur-asko.

Komentuko liburuetan argibide askorik aurkitu ezagaitik be, ba-dogu orretan ikasbide bizia emon euskun karmeldar bat, Euskalerra osoan entzute zabalekoa: Aita Jeronimo Garaitagoitia Agirre; Zornotza'ko semea berau, 1846'ko irailaren 30'an jaioa. Karmeldarrak Prantzia'tik etorri ondoren, laster jantzi eban Markiña'n karmeldar soiñekoa. Ta denpora gitxi barru ospetsu egin zan sermolari lez; Elias igarlearen ideko, garra erion agotik. Inguruko jairik eta jazokunik zaratatsuenetan Jeronimo Aita agertzen zan izlari: Begoña'ko Andra Maria'ren koroatze jaietan, Berriotxoaren azurrak ekarkeran, eta abar. Mixiolari lagun Dima'ko seme, Saturnino Ozerin Aita erabilten eban; eta Kastilla errietako komentuk barriztatzen ebiltzala be, Euskalerra'ra eíorten ziran biak garizumako sermoiak egiten. Erroma'n be sei urtez egon zan, baiña amesik gozoena Euskalerra'n lan egitea, nunbait.

Larra'ko nagusi izan zan 1880-85 bitartean. Komentua apaindu ta jazten ainbat lan egin eban: 1884'an, esan dogunez, organu barria jarri, Paris'ko Cavaille-Coll etxetik ekarrita; 1885'an, komentu inguruan lur-zati barriak erosi, ortua ipar aldetik batez be nasaitu ta ormaz inguratu. Orrezaz gaiñera, autortegian eta pulpituan be oso langille ebillen, etzan iñoiz nekatu arima zeregiñetan. Baita, nagusiaren egitekorik beiñena danez, menpekoai, bera aurrelari zala, lan egiten erakutsi be. Bizkaia'n erri gitxi geldituko yakozan itzaldiren bat egin barik. Izatez biotz-samur ta bero; euskera gozokoa. 75 urteko, oindiño sermogintzan ebilkigula, ementxe Larra'n il yakun 1921'ko azillaren 21'an.

«Larrea —diño idazle batek— edo umetatik euskeraz esan eta entzun dogun lez, Larra, arimen larra dala esan geinke. Izan be, arimak Jaungoikoz iarratzen alegiñak egin dabez bertoko karmeldarrak. Andaparak, errotarako urak batuta daukaz, arto ta gari-garauak eioz ainbestentzako janari indartsu izan daitezcan. Karmeldar prailleak olantxe, Karmen'go Amaren magalpean arimak Jainkoz bete ta azkortzen ekin dautse urterik urte, berton diran epe luzean, sekula be aspertu barik. Labea gori, opillak guri. Ikusgarria benetan, orain eun urte ta gero, kapa zuria besapean artu ta erririk erri, antxiña beintzat oiñez geienetan, karmeldar predikadoreak ebiltzanean. Eta, egia esateko, Larra'n bizi izan diran mezako praille guztiak izan yakuz, gitxi-asko, mixiolari. Au Larra'n eta albo erri danetan edonok daki».

Larra'n beti, garizuman, Gogo-jardunetan, Aste santuz, Kristo'ren, Andra Maria'ren eta Jose doatsuaren jaietan, Domusantuz eta abar ez-ezik, beste Santu askoren jai-egunetan be lan asko dagokigu bertoko prailleoi: zenbat erri jai ta ermita-jai diran berton eta ingururetako errietan; orreitera, eurrez deituak gara gaur be. Origaitik, emen nainoz izan dira zazpi-zortzi sermolari, dei guztioi erantzun al izateko. Sermoiok geienbat euskeraz izan oi dira, naiz-ta erderaz be iñoiz jardun. Izlariotatik batzuen zarraparrak aitatuaz iñor ez dogu sasipean itxiko.

Onetariko bat dogu, **gutziz izen** andikoa, **Aita Martin Uriarte Odriozola**, 1879'ko **bagillaren 27'n** Zeanuri'n **jaioa**. Umetatik ekarren **amaren uगत ar-tean ikasi eban** euskeraganako **grña** bizia, **ta bere** bizitza **gutziko arazo bi-kaiña auxe izan zan**: idatzi, orraztu **ta ikasi**. Ainbat urtetan **izan zan Larrea'ko nagusi**, baita **Begoña'koa ta Markiña'koa** be. **Ementxe, Larra'n**, bizi **izan zan** berrogetamar bat urtean, **naiz-ta jarraian lez**, **ta ementxe il zan 1962'an**, **larogeta bi urteko zala**. «Karmen'go **Argia**»-ren **zuzendari izan zan** aldikada baten, baita **1908'tik 1917'ra** komentu ontan **euki** genduan latin-eskolako **Irakasle** be, **aurrerago. Baiña** aren arlorik **beñena** sermogintza **zan**. «**Burua** argi, **samea garbi ta zer-esan ugari**» lelotzat ebala, or ibilli **yakun**, **sekula gogaitu** barik, Bizkai'ko **pulpitu guztietan**. **Esan daiela**, bai, **Aita Martin'en** sermoien barri eleizetatik oraintsu kendu dabezan **makiña** bat **pulpituk**. Bere **zartzaroan esan** oi eban: batez beste, berak **uste** ebanez, emeretzi **milla sermoi lez** predikau **ebazala**. Sermoiok Bizkai'ko lurraldeetan **izan ziran**, **batez** be.

**Gu gazte giñala A.** Polentzi Kortazar Intxaurbe, 1882'ko **bagillaren 28'n** Zeanuri'n **jaioa** be, oso entzute betekoa **zan**. **Arantzazu'ko** komentuan **ikasurteak osotu ta gero**, karmeldar egin **ta urte mordoan emen ibilli yakun au** be, **Bizkaia'n** eta **Gipuzkoa'n** sermolari. Gizon **jaioa zan** itzaldi ederretarako; **sama gozo**, biotz andi, **esaera atsegingarrilcoa**; ba-eban iñundik be **gatza ta berakatza**. Bere bizitzako azkenengoan, **ia ogetamar urtez**, Ameriketan bizi **izan zan**, **Euskalerri'ra** begira beti, **ta atzenez**, **larogeta** bi urteko, **Peru'n** il **yakun 1963'ko azillaren 14'an**.

Beste bat, **euskal izlari punterengoa au** be, **A. Apolinar Ibaibarriaga** Oregi dogu, 1882'ko maiatzaren **5'an**, **Garai'n jaioa**. **Luze**, sendo, **eder gorputzez**; **abeslari ta sermolari**, erririk erri amaikatxo zorabiatu ebazan! Sarri **szan** **zan gure** komentuetan **nagusi**, **ta izlaritzan berak egiana** besteak be egitea eder **yakon**. **Tamalez**, gazterik **makaldu yakun**, eta biotzeko miñez gorriak **ikusi** ondoren, Jainkoak berera eroan **euskun**, oraindik guztiontzat itxaropen eder **zala**. **Euskera gozo**, **arin**, barrukoia **zan** berak erabillena.

Gizaldi onen asieratik onuntz Larra'n izan doguzan izlari bikaiñen izenzerrenda, olako neke andi bagarik, luzatu geinke. Asko izan dira, gaiñera, bertan arima arloan asi ta Ameriketara ta India'ra mixiolari joan bearrez, emengo zeregiñak itxi dabezanak. Eta emen, askotxo illak izan arren, gure erritarrak aitzu barik daukiez Berriz'ko seme argi AA. Jazinto, Ijini, Kerman; Igorre'ko Juan Gabriel Arrieta Aita, Zeanuri'ko A. Zipriano Emaldi, Lemoa'ko A. Ermenejildo ta A. Urbano Manzisidor, Etxano'ko A. Jeremias Perea eta Ormaetxea'tar Lontzi A., Zornotza'ko A. Ebaristo Astobitza ta gaiñerakoak. Eta onen guztion gaiñetik Juan Antonino Irubiarte A., Orozko'ko Olarte'n eta Billaro'n arimazain bizi ondoren, karmeldar egin zana. 89 urterarte sermolari ibilli yakun, oso maitatua ta ederretsia. Errietan, Aita Kili-mako iñotsen.

Gure komentuko kronikara barriz itzulirik, 1927-30'ra bitartean —A. iVlartin zan nagusi— au irakurten dogu: «Kondairarako bidezkoa da emen jarrea Larra'ko praille-etxeak Euskalerrri'ko jenteen aurrean eukan izen goragarria, bertoko euskal sermolari argiai eskerrak batez be. Andik eta emendik oso billatuak ziran emengo Aitak; mixiñoak, irurrenak, santuen sermoiak eta abar egiteko, eurokana jo oi eben inguruetakoko parroku jaunak. Noraiño entzute ta on-ereste eukun prailleok jakiteko, naikoa da 1930'ko garizuman bakarrik aste guztiko lau mixiño emon zirala, amabi irurren edo lauurren eta beste arrats-itzaldi batzuk; amaika parrokitan egin ziran Aste Santuko itzaldiak aitatu ezta be, garizuma ontako sermoi ta itzaldiak berreunetik gora izan zirean».

Urrengo urtean argiago daukagu karmeldar prailleak emen egindako garizuma-lana. Bertan, sei urteko bizitza (1931-36) izan eban, euskaldunen artean, naiz Bizkaia'n naiz Gipuzkoa'n guztiz begiko eben Karmen'go Argia eritxon aldizkariak. 1937ko garizuma-lanaren barri onela dakar: «Dima'n, epaila asikeran mixiño santua emon dabe Apolinar eta Errapael karmeldar Abak. Egunoro gizozte aundia elezaratu da, eta onura ugarirako izango dala





Zornotza'ko Ikastetxea. Urrin, Etxano ta Oiz tontorra



Zornotza'ko eleiz nagusia, Zelaieta'ko iturri zarra ta ibildeun bat

entzun dogu. **Amoroto'n**, epaila **6'tik 15'ra**, belguntza deuna **ospatu** dabe **Martin** eta Lontzi **Aba** karmeldarrak. Amoroto'ko kristau zintzoak mixiño egun **orrei** ondo baiño obeto erantzun dautse. **Erri osoa goiz ta** atsalde **gogotsu** ele-xan biltzen **zan ta albo** errietatik be **asko** etozan. **Lezama'n**, epaila **22'g. asita**, **tnixiño santua ospatu** dabe **Aita Martin** eta **Errapael** karmeldarrak. An bai batzen **zala gizoztea!** Bertokoakaz etozan **osoan Larrabetzu**, Zamudio, **Derio**, **Sondika**, **baita** Galdakano'tik be **asko**. **Gabíka'n**, irurren bat mixiño antzera emon dau **A. Martin**'ek. **Ispaster**'en, **bosturren** bat **Aita Juan Antonino** karmeldarrak, erri **osoa** etorten **zala**. Elantxobe'n **Jose** deunaren aurreko bost egunetan itzaldi ederrak egin **dauz A. Errapael** karmeldarrak. Mundaka'n **Jose** Deuna'ren irurrena **A. Martin**'ek. **Garai**'ko ele-xan laurrena **A. Juan Antonino**, **K. O.'ak**, **Jose** deun **egunean asita**. **Bedia'n**, irurrena **A. Errapael**, **K. O.'ak**, **Abar-egunean asita**. Eskoriatza'n, irurrena **A. Doroteo**, **K. O.'ak**, **Jose** deun aurreko egunetan eta **bere jai**an. Aonez **gaiñera** **Aba** karmeldarrak **garizuma** igandeetako itzaldiak egin dituez **Arratzu'n**, **Durango'n**, **Larra'n** eta **Lekeitio'n**. **Aste** Gureneko txonitzak, **barriz**, egin dabez Amorebieta'n, **Etxano'n**, **Bernagoiti'n**, **Durango'n**, **Artea'n**, **Bedia'n**, **Zaratamo'n**, **Basauri'n**, **Etxebarri'n**, **Larrabetzu'n**, **Lezama'n**, **Arratzu'n**, **Ea'n**, **Bermeo'n**, **Lekeitio'n**, **Otxandio'n**, **Mon-dragoe'n** eta beste erri batzuetan».

**Gorago aitatu** dogu emen Larrea'n, Ixidor Deunaren eguna, **1919'tik asita aurrera**, ospetan egin **izan dala** beti. **Urte** orretan bertan, **bagillean**, **aurreko illean** izandako **jaiak gogoratzean**, **au dirakurgu** aldizkarian: «**Lugiñen** zaindari maite dan **Ixidor Deunaren jai**a, beste urtietan **lez**, andikiro **ospatu** da **Larra**'ko eleiz **ospetsuan**. **Meza nagusira** inguru **guztia** batu **zan** txun-txun eta **txistu** eta **zipunpa soñura**. **Gorespena** **Errapael** **Abak** ederto egin eban. **Meza** ondoren **Ixidor Deun** irudi ederragaz **eleiz-ingurua** landa **ta** bitxabaletik **zear** egin **zan**, geralditan **soloen** onespina egiñik. Abestiak erri **osoak gogotsu** abestu zituan. **Eleizkizun ostean**, **goiz ta** arratsalde, **euzko dantza garbia ugari egon zan**».

Jai onetan **gure prailleak naikoa** zeregin **izaten** dabe eskabide **guztai erantzuten**. «**Egun berean —diño aldizkariak— Deun onen itzaldia egin eben: Di-ma'n Aita Martin'ek, Gaztelu-Elexabeitia'n Lontzi Abak, Zaratamo'n Adiren Abak, Ajuria'n A. Juan Antonino'k eta Arantzazu'n Jazinto Abak**». Urrengo urteko **jaiagaitik au diño**: «**Larra'ko eleizara egun orretan sekulako notintza eldu zan goiz eta arratsalde, gizonezkoetan batez be. Zornotza'ko Sindikato-koak eta Aberedun Alkartasunekoak erabagi eben batera jai ori Larra'n, aurreko urtietan lez, albait ondoen ospatutea, ta olantxe ospatu be egin zan**». **Ta** arrezkero **guztian** be bardin. Nik ogeta bi urte daroadaz **Larra'ko komentu ontan** eta ba-dakit orren barri; iñoiz iru itzaldiraño egin bear **izan** dodaz **egun orretan, ango ta emengo lugiñak** euren zaindari Ixidor deuna goratzera deituta. Aurten bertan, **meza, itzaldi, eleiz-bira, txapliu ta bazkari, jai zoragarria!**

Urrengo urteko (1932) **garizuma-lanak**: «**Larra'tik egin dabez Durango'n, Abadiño'n, Arratzu'n eta Larrea'n. Gogo iñarkunak edo mixiñoak: Lontzi Abak** Arrankudiaga'n; **Aita Juan Antonino'k Mañari'n; Aita Martin'ek Garai'n, Elantxobe'n eta Getxo'n. Aste gurenako itzaldiak: Arratzu, Bedia, Arrankudiaga, Bernagoiti, Etxano, Larrabetzu, Lezama, Garai ta Getxo'n**». **Bagillekoak aita-tuaz, onela**: «**Bagillan Larra'ko karmeldarrak or-emen edozenbat itzaldi izan ciituez. Ona batzuk: Aita Juan Antonino'k: Jesus'en Biotza Fruniz'en eta Ibarruri'n; Andoni deuna Larrabetzu'n, eta Etxano'n, Juan deuna, Ergoien'en. Lontzi Abak: Gaztelu-Elexabeitia'n Jesus'en Biotza, Gokaxuena ta Andoni deuna; Gorozika'n eta Arrankudiaga'n, Jesus'en Biotza; Larra alboko basilizan, Juan deuna, ta Elantxobe'n Kepa deuna. Adiran Abak: Andoni deuna, Euba'n. Jose Inazio Abak: Arratzu'n Jesus'en Biotza ta Andoni deuna; Albiz'en, Jesus'en Biotza. Simon Abak: Jesus'en Biotza, Euba'n; Andoni deuna, Lemona'n. Aita Martin,ek: J. B. irurrena Arrieta'n; Jesus'en Biotza Urduliz'en eta Getxo'n; Juan deuna ta Gokaxuena Ubide'n; Kepa deuna Lemona'n**».

Eta orrelaxe urte guztietan. Udabarri, uda ta udazkenean, gelditu barik ebiltzan lanean Larra'ko prailleak. Teresatxo ta Teresa Amaren jaiak bederatzi-urren eta itzaldiakaz ospatzen dira beti, jente asko baturik. Baiña Karmen'go Amaren eguna ta urrengo domekea dira guretzat jairik ederrenak. Urtero egin izan dira andikiro. 1936'garren urteko jaiak aitutuaz, au dakar «Karmen'go Argia»-k: «Larra'ko txoko ederrera oste edo jente andia etorri zan; batez be Karmel'go Amaren egunean eta urrengo domekan. Jai eder-begiragarriak izan be karmeldarrak euren Amaren omen eta deduz egin oi dabezanak. Bederatzi-urrena 7'garrenean asi zan; eta goiz eta arratsalde eleizea bete-bete egiñik egoan. Abeslariek, nai goxeakoak nai arratsaldekoak, gozoz gozo abestu eben».

Bere egunekoa be ba-dakar. Onela: «Bere egunean, illaren 16'an, toki asko ta urrindik jentetza andia Larra'ratu zan; batez be meza nagusitan. Ravello'rena abestu zan. Itzaldia Iriarte josulagun azkarrak egin eban. Arratsaldean, Agurtza, itzaldia Aita Lon'ek, eta Aita Santuaren Onespenaren ostean ibildeuna ta abar. Jai ederra, egitan! Urrengo igandean be Aste-Zalekoak jai begikoa egin eben. Goizean, seiretan, Jaunartze nagusia, amarretan mezea abestua, Goikotxea'rena. Itzaldia, Simon Abak. Arratsaldean, beste urteetan lez, iñozkorik geien batu zan. Agurtza ondoren, itzaldia Aita Jagoba Onaindia'k eta gero ibildeuna ta Onespena, abesti eder ta guzti. Jai txalogarriak karmeldarrak Larra'ko txadonan eratuak!».

### III.—1936'ko gerra ostean

Eta, urteak joan urteak etorri, olan aspertu barik. Anai arteko gerra, Larra inguruan beintzat, amaitu edo zerbait gitxitu 1937'ko maiatzaren azkeneko egin zan. Eta urte orretan, gorago esan dogu, naikoa ondo jaitu zan Karmen'go Amaren eguna. Baita urrengo urte bietan be, etxeko kronikeak diñoanez, ederto samar, garai artako giroak izten ebanari jarraituaz. Goiz

**ta** arratsalde, jente naikoa, batez **be urrengo** domekan. Urte oneitako **izlari gartsua A.** Simon dogu, **Markiña**'ko **semea**. **1940**'an be erabat egin **zan**, **bede**-ratzi-urrenean itzaldiak goizean **euskeraz** eta arratsaldean erderaz eukirik. Karmen'go **Amaren eguna etzan**, orraitino, ain ederra izan, **euria zalako**; **goi**-zeko **itzaldia Bonifazio Orbe apaizak** egin eban eta arratsaldekoa **A.** Tirso karmeldarrak, Bernagoiti'ko seme **ta euskal** sermolari oso **bikaiñak**. **Urrengo** domekaz, eguraldi ederrak **lagunduta**, **jai** andia egin **zan**, Arrati aldetik batez be jentetza ikaragarria bertoraturik.

**Eta** edu onetan, gerra **zala-ta** makalalditxoren bat **izan** ba'eben **jaiok**, barriro be laster **biurtu** ziran lengo edertasunera. Obeto **esan**: len **baiño** be barru-irakin **geiagoz ospatzen asi** ziran. Lengo izlariak, **egia**, **batzuk illak ziran** eta beste **batzuk** —gudaren **frutua!**— **Prantzi'ra**, Ameriketara **ta itzal**-pera **sakabanatuak**. **Luzarorako? Ez**, demontre! **1950**'tik **aurrera**, len baizen edo adoretuago euren **arazoan**, **sermogintzan jardunak dira Larra'ko prai**-lleak. Gazteen artean **izlari** barriak **agertu yakuzan**, eta **zar** eta **gazte**, alkarren **leian**, erriz **erri** ibilliak **gara ogei** bat urtetan. **Bizkaia**'n ezta erririk, **ez andi ez** txikirik, **karmeldar kapa zuria sarri ikusi ez** danik.

**Eta** lan izugarri onen **koroia** lez, **1960-63** bitarteko kronikeak **au diñosku**: «Lekaretxe **ontako** Aitak, Santuen itzaldiak, mixiñoak, **Gogo-iñarkunak**, iru-**rrenak Pazko**-aldirako, **ta abar**, **urrengo** parroki **oneitan** egin dabez: **Amore**-bieta, **Etxano**, **Durango**, **Mañaria**, Otxandiano, **Gaztelu-Elexabeitia**, **Muxika**, **Arratzu**, **Arrazola**, **Igorre**, **Zeanuri**, **Ipiña**, **Undurraga**, **Usansolo**, **Urduliz**, **Albiz**, **Bermeo**, **Bilbao**'ko **San Anton**, **Begoña**, **Zamudio**, **Lezama**, **Arrieta**, **Errigoiti**, **Belendiz**, **Ibarruri**, **Ereño**, **Larrabetzu** **Beko** **ta Goiko**, **Urkiola**, **Meñaka**, **So**-pelana, **Ajuria**, **Axangiz**, **Mendata**, **Dima**, **Gatika**, **Markina**, **Berriatua**, **Goro**-zika, **Munitibar**, **Zaldibar**, **Berriz**, **Bengoetxe**, **Galdakano**, **Lemona**, **Ispaster**, **Areatza**, **Bedia**, **Eibar**, **Aramaio**, **Aretxabafeta**'n. **Aldikada** batzuetan parrokuen ordez egon **gara Etxano**'n, **Erlaxetan**, **Urkiola**'n, **Arrazola**'n, **Zuazo**'n, **Bengoe**-

txe'n, Durango'ko San Fausto'n, eta abar. Baita eten barik joan, udaldian, Gorbea'ra, Belatxikieta'ra, Urkiola'ra ta Bekea'ra be domeka ta jaietan».

Goazen aurrera. Lan orri dagokion barri emoten ezta gitxiago 1963-66 bitarteko komentu-kondaira. Irakur: «Larra'ko komentua, bere arima-arlo zarrari ekiñik, barru-bizitzaren argi-erdia lez dogu, baita emen inguruko parrroku ta arimazaiñak laguntzaille billa jo oi daben tokia be. Nozean beingo itzaldiak, irurrenak eta bederatzi-urrenak alde batera itxita, ona emen erakusgarritzat irurte onetako lenengo garizuma bietako lanak». Eta pizkat laburturik aitatu daiguzan, naikoa da-ta, garizuma bi areitan predikau ziran txandak: 1964'gko. garizuman, mixiño, Gogo-iñarkun, irurren eta Aste santu, guztira ogeta bi txanda edo ekitaldi luze; 1965'garrenean be, era berean, beste ogei txandaren barri emoten dausku. Ta orrela 1966'n eta 1967'n be.

Aurtengoak, barriz —1968—, besteak baiño askoz ots andiagokoak izan dirala, nok ez daki? Karmen'go Amaren koroatzea dala bitarteko, Gabon ostean batzar bat euki genduan prailleok. Koroatze egun andirako berotu egin bear zan jentea, ta ortarako garizuman mixiño ta irurrenak emotea begitandu yakun erarik egoki ta onurakorrena. Orduko berbak etziran berbaro uts izan. Erabagi ta egin. Orren lan andia aurrera eroateko bertoko meza-prailleok bakarrik ez gintzazala naikoa ikusirik, beste komentuetako izlari punterengo batzuei be dei egin geuntsen, eta geure artean izan genduzan laguntzaille Altzo'tik etorrita A. Leon Aranguren, Aita Jenaro ta Onorio Markiña'tik etorrita, ta Aita Jose Luis Eibar'tik ona etorrita. Bertokuok eta kanpokuok, danok nastean, batzuk orain eta gero besteak, alboetako errietara mixiolari jo genduan.

Erririk errizko mixiño zabal oni aurtengo Auts-egun biaramonean, au da, zezeillaren 29'an emon yakon asiera. Lenengo irurrena, zezeillaren 29'tik epailaren 3'ra, iru tokitan: Garai'n, A. Eusebio Etxebarria'k; Mendata'n, A. Luki Agirre'k, eta Arratzu'n, A. Pedro M. Duñabeitia'k. Garizumako lenengo astea

—epaillaren 3'tik 10'ra— zortzi tokitan egin zan: Dima'n, A. Pedro Mari'k; Artaun'en, A. Eusebio'k; Oba'n, A. Onorio Gerenabarrena'k; Igorre'n, A. Jose Luis Beobide'k euskeraz ta A. Jesus Ormaza'k erderaz; San Kristobal'en, A. Luki'k; Urkizu'n, A. Jagoba Onaindia'k; Zeanuri'n, A. Jenaro Larruskain'ek, eta Arteaga'n, A. Leon'ek.

Garizumako bigarren astean —epaiñlaren 10'tik 17'ra— lau erritan egin ziran itzaldiak: Bedia'n, A. Pedro Mari'k eta A. Luki'k; Abadiño'n, A. Jenaro'k; Berriz'en, Aita Onaindia'k eta A. Eusebio'k; Gernika'n erderaz, A. Jose Luis'ek. Irugarren astean —epaillaren 17'tik 24'ra— lau erritan: Gautegiz-Arteaga'n, A. Eusebio'k; Zornotza'n, A. Jose Luis'ek; Abadino'n, A. Jenaro'k; Kortezubi'n, A. Luki'k. Laugarren astean —epaillaren 24'tik 31'ra— bosi erritan: Lezama'n, A. Jenaro'k euskeraz ta A. Pedro Mari'k irurrena erderaz; Zamudio'n, A. Pedro Mari'k irurrena erderaz; Gernika'n, Aita Onaindia'k euskeraz; Zaldibar'en, A. Jose Luis'ek; Larrabetzu Goiko'n, A. Eusebio'k. Pasiño astean —epaillaren 31'tik aprillaren 7,ra— bost tokitan: Zaldibar'en, A. Jenaro'k euskeraz; Arantzazu'n, A. Jose Luis'ek; Zamudio'n, A. Eusebio'k euskeraz; Zornotza'n, A. Jesus Ormaza'k erderaz; Gatika'n, A. Leon'ek. Aste santuz —aprillaren 7'tik 14'ra— Bedarona'n eta Otxandio'n, A. Eusebio'k; Munitibar'en eta Bermeo'n, A. Luki'k; Sopelana'n, Aita Onaindia'k; Undurraga'n, Aita Mariano Agirre'k; Etxano'n, Gernika'n eta Bedia'n, A. Pedro Mari'k; Errigoiti'n, A. Benito'k; Gatika'n, A. Leon'ek; Zeberio'n eta Durango'n zazpi berbak, A. Jenaro'k; Zornotza'n, A. Sebastian Lejartza'k.

#### IV.—Kapa zuria aizetan

Bai, onela ikusi izan da nainun, berreun ta berrotemar urte oneitan, Karmen'go Amaren kapa zuria, Aren dei samurra zabaltzen, Aren kutun mirariz astunduak dauan barru-kemen bizia iragarten. Aita mixiolariok —ba ekian erriak— mixiño egunetako momenturik egokiena artu oi eben karmeldar



eskapularioaren jainkozko mandatu eleiztarrai iragarteko, **zelan jantzi ta frutuz** eroan eurai **azaltzeko**. **Au** ez diñoskue komentuetako kronikak, **baiña** errietako **zarrak** ao batez **diño**.

**Onek argitu** daikegu bakar-bakarrik fenomenu **au**: Bizkai'ko **lurren** **zabalean**, Karmen'go **Amaganako** deboziñoak, oraintxe be, **barru-barruraino sartuta** daukaz **tantai** sendo batek **lez** bere **susterrak**. **Zoaz** itxasaldera, **ta Ondarru'tik** Santurtze'ra, **gauza** arrigarri **au** aurkituko dozu; **zoaz** Arrati aldera, **ta Ubiea'n, Zeanuri'n, Dima'n, Igorre'n, Castillo'n, Areatza'n, Zeberio'n, Orozko'n, gauza** bardiña; **zoaz Durango'rantza, ta** Elorrio'n, **Arrazola'n, Axpe'n, Abadiño'n, Zaldibar'en, Berriz'en, Garai'n, Mañari'n, Izurtza'n, Orozketa'n, gauza** bardiña; **zoaz Lemona, Kolaziño, Usansolo, Galdakano, Basauri, Larra-betzu, Morga, Mungi, Lezama, Zamudio, Sondika, Asua** aldera, **ta** oribera. **Gaurko** giro **zantarra** gorabera, **erri** oneitakoak bai **eraspentsu** eroan karmel-dar **kutuna!** **Ez** eroan bakarrik, baita **ezaugarri** orri barnetik dagokion **biotz-sua** eguneroko bizi-moduan erakutsi be!

**Ibargutxi, euskal** idazle bikaiñak, «**Otoia**» deritxon **bere** liburuan, **au** diñosku: «Gure gaztearoan, **emen Bizkaia'n** beintzat, unetaraino **sartuta** eroian erriak Karmel'go **Amagazko** maitasun **ta zaletasuna**. **Gazte-gaztetxo giñala** eroan ginduezan **gure gurasoak Larra'ko** Karmel-etxera, **ta an kutuna** ezarri, Anaidian **sartu, gure** buruak Karmel'go Amari eskiñi **ta onespina artu** ondoren, **pozez gaiñezka** biurtu **giñan geure** etxera; **ez** gero orain legez autoetan, **oiñez baiño**» (168'garren orrialdean). **Eta**, urrengo orrialdean, onela darrai: «Eleiza beti **gazte da**. **Baita** eleizkizunak bere. Siñesmena zabaltzeko **era** barri **ta** bide barriak erabili **geinkez**. **Baiña zarrak** baztertu bearrik **ez dogu**. **Len** baizen naro, jori **ta** emankor **dogu** orain bere Karmel'go **Amazko** eraspina. **Ta** len, alako **zitu ta** arnari **ugari ta umatuak** sortu **ebazan** legez, baita orain **bere** sortuko ditu **zugatz guri ta mardul** onek».

**Begoz** ba jakitun **gure apaiz** **ta** erritar barri-zaleak. Kondaira bakotxak **dagigu**, **baiña** kondaira lekua dan mundu **zabala** beti **dogu** bardiña, **azalez**

beintzat; Japondarrak Japon dabe ta guk euskaldunok Euskalerria, ta berton itxi bearra daukagu geure-geurea dan zerbait, kondaira, edestia, istoria. Baiña lur zati onetan gure aurretikoak egin eben kondaira —oitura, lege, izkuntza, dantza, musika, erlejiño, pentsakera— zarra albora itxirik, andik onako zer barriak artu ta bertoratu nairik jardutea ezta jokabide zuzena. Ez! Guztiok daukagu erri bat, Jainkoak emona, aitaturiko gai danokaz maminduía, ta erri ori zaindu ta jagon gura ba'dogu, erri ortan gure asabak itxi eus-kuezan zer guztiok be —erriaren nortasuna orretzek bai dagie— zaindu ta jagoten saiatu bear gara. Eleiz barruan urte askuetan arimak zeruratzeko daukaguzan gauzak ezin daikeguz bertanbera itxi, gaurko era ta indar barriakin eurai kemen biziagoa ezarri baiño. Auxe da Eleizearen gurari beroa, Batikano'ko Il'garren Batzar nagusiaren ostean batez be.

Eta ba-dira mundu guztiak, eta guk, arimak eta familiak santututeko erabillitako era bi: Errosario santua ta Karmen'go Amaren Eskapularioa. Geuk ezagutu doguz —eta gaur ez ete?— Bizkai'ko erri ta famili asko errosarioa cgunero esan eta Karmen'go kutuna eroatea gauzarik ederrenetarikotzat euki izan dabenak; kristiñau osoak bai ziran, ez erdizkakoak. Ama ta etxeko andre asko ezagutu doguz eskapulario pilloak gorderik eukiezanak, bat apurtu edo galtzean bsste bat seme-alabai jantzi al izateko. Oraiñarte eskean ibilli diran gure anaiak be, moltzo andiak eroiezan, zerbait emonaz egiten eutsen mese-dea zelanbait gure baserritarrai ordaintzearren. Gure mixiolariak, barriz, oso arduraz egin daroe Karmen'go Amari eskiñitako sermoia. Geuk bakarrik dakigu olakoetan zenbat eskapulario banandu doguzan.

#### V.—Erromes-taldeak Larra'ra

Larra'ko muiño au lorontzi eder dogu, beti usain-jarioka. Baita argi-mutil apaiña be, gizarteko gauan dizditsu. Eguzkiaren goiz-erraiñu pareko, esan geinke. Argi-jario bizia, izan be, Larra'ko santutegitik urtenda Bizkai'ko erri

**guztietara zabaltzen dana. Bai, eguzkiak argitan bere bero-erdia dauan lez, goitiko bizitza jatorrak Larra'ko txokoa dau erdi-une bikain. Ez, Larrako eleizeak eta komentuak ixuri dauan zeru-arnasa, ezta makala, ez iñolakoz!**

Aurreko gizaldietan **Begoña'**ko Amarena baizen ospetsua izan genduan bertoko iduria. **Ezaguna, ta maitatua? Oba ez! Maitasuna ezta gorderik** barruan eukitekoa: kanpora urten oi **dausku** igarri barik. **Ikusi, otoi, Karmen'go eguneko ta urrengo domekako lagun-aldrak. Eleiz aurreko zelaia ta atzera-gokoa zabalak dirala** be, **ez dozuz** naikoa sarri danai **lekua** emoteko. Zerk ekarrita ete datoz? **Batzuk** Karmen'go Amari eskerrak emon eta mesede bariak eskatzera, beste **batzuk** Karmen'go Amari maitasuna erakutsi ta bere ondoan egun **alaitu** bat **igarotera. Gazte ta zar, makiña** bat pekatari be eldu **izan da Larra'ko** Amaren oiñetara. **Ta, Amak, bere altara** erdiko Erregiñ-aulkitik guztientzat **izan dau —ta dau—** irribarre gozo bat.

**Eta** beste egun berezi batzuetan bertora **egin** diran peregrinaziñoak? **Orreik** be asko izan dira, zurririk asko, liburuetan ainbeste **zeaztasun** aurkitu ez arren. **Aita Doroteo'k, 1925'an** egiñiko **Larra'ko** monografian, **au** jarri **eus-**kun: «**Santutegi** onek ditun berreun urte **luzeotan** peregrinaziño **asko ta** entzutetsuak **egin izan** dira ona, zenbatu-ezin **ala** erri Karmen'go Amaren oiñetan **auspezturik; baiña** noiz **ta zelakoak izan** ziran diñoskun **zeaztasunik ez daukagun** ezker, **naiz-ta gurari** bizia itorik, **ixillean itxi bear eurak**».

**Baiña, ez** ikaratu. Gorabera ortan be, **gizaldi** oni begira beintzat, **eztogu** orren motza **Larra'ko** kondaira **liburua**. Mende **onen asieratik** ba-dira kronika **batzuk** oso **jakingarriak. 1904'an,** esate baterako, **Andra Maria'ren Sorkunde Garbia siñistu** bearrekoa **zala** erabagi zanetik berrogetamargarren urtea **bete-**ten **zala-ta, Larra'ra** egin ziran erromes-egun andi **batzuk** aitatzen ditu. **Iru** batez be; **Durango** aldetik, Arrati'tik eta Bilbao'tik **egiñak** irurok.

**Lenengoa, Pazko-maiatzeko**z edo Pentekoste bigarrenez egin **zan, Durango** inguruko **txaunburuak** eratuta. **Egun** atako zertzeiak emotean, **au** jarten

dau kronikeak: «Zornotza'ko eleizatik **Larra'ko** komenturaino **luzetzen zan Durango aldeko** jentetza **ikaragarria**, balkoi **guztiak** dotoretzen **ebezan** zintzilikari, **apaindura**, **jai-jantzi ta** edergarriak; **komentuko** aurrekaldea edertzen eben orri berdezko **ustaiak** eta ikurrinxoak; **eleiz** barruan eta kanpoan egin ziran itzaldi **zoragarriak...**, guzti oneik, bai, **asko** be **asko goratu ta** dirdir-azo eben Andra **Maria'ren** omenezko peregrinaziño **au**; **ta** txalo beroak eta esker **ona** egoki **yatorkez Larra'ko** prailleai, artzipreste **ta parroku jaunai** ta siñismenaren erakuste **au** egi biurtu zeiten **lan** egin eben beste **guztai**».

Arratia'tik **egin zana** be, urte orretan, **garillaren 4'an** gertatu **zan**. **Ortarako etziran** lo egon baillera eder **atakoak**: Ubidea'tik eta etorri bear **izanda** be, goizeko zortziretarako Zornotza'ko parrokian **egozan**. Andik **Larra'ra** eratu **zan prozesiño** ederra! Bederatzi errik osotzen eben, eta erri baktxaren **buruan**, **txaunburu ta laguntzailleak**, aiuntamentua **ta** kofradiak etozan, euren ikurrin **liraiñakaz**. **Arei** bidera **urten** eutsen Etxano'ko **abade**, aiuntamentu **ta** erriak. Komentu ondoko **zelai zabalera** eldukera, **A.** Karmeldar batek ondo etorria egin eutsen erromes **guztai**. **Meza** bitartean, abade bik **itz egin** eben **batera**, eleizan eta aurreko **landan**. Arratsaldeko elizkizunean barrero **agertu zan**, ondo **agerto** be, **Arrati'ko** seme **leialak** Karmen'go **Amari** eutsen **maitasun** beroa.

**1904'garreneko urte** ortan, **garillaren 24'an**, Bilbao'tik egin **zan irugarrena**. Kronikeak **andia** deitzen **dautso**. Bilbo'tik **Zornotza'ra**, goiz-goizetik, sei tren aparteko atondu **ziran**, Bilbo'tik **Durango'ra** Zornotza'tik **zear** egunero ebiltzan tranbiak kontatu **barik**. Karmen'go **kutuna** agirian **ebela** etozan **erromesak**. Azillona **ta** Urkixo aldunak etozan erromesen **buru lez**. Zornotza'ko **plazan** danak **batu** ondoren, **amabi** bat milla **guztiz**, **Larra'rantza** «eratu **zan** ez diñot **prozesiñoa**, garaipenezko **joatea baiño**», dakar kronikeak. Eleizako ateetan **zain** eukiezan karmeldar lekaideak eta Etxano'ko eleiz-gizon eta aiuntamentua. **Eleiz** barruan **esan zan meza nagusia**, **ta** kanpoan geratu ziranentzat aurreko **landan** beste ixil **batzuk**. Karmeldar Aitak autortu **gura** eben

erromes guztiak autortzen ebezan, eleizan eta zelaian. Arratsaldean be, etenbako otoitzean, amaika errosario, kanta ta gora izan zan Andra Mariaren aintzaz.

Urte beraren azkeneruntz gertatu ziran beste erromes-aldi bi be: Zornotza'ko ta Etxano'ko gazteak ziran oraingoan. Urte atan ainbeste gazte ta zar Larra'ko Amaren oiñetan auspez ikusirik, eurak be —ikasbidearen indarra!— onantza zuzendu ziran talde berezietan, eta birritan zuzendu be, euren eleizgizonak buru ebezala. Biotz pozez ta begiak negar-tantoz, ementxe eskiñi eutsoezan euren bizitzak, euren egiteko ta zeregiñak, Karmen'go Ama maiteari. Gazteok!, zatoze gaur be Ama samur onen oiñetara. Berak leunduko dautzuez daukazuezan penak, ezin-egon eta kezkek!

1925'an, peregrinaziño bi egon ziran. Lenengoa, bete-betea, udan, Bilbao'ko ta Donosti'ko Karmen'go kofradikoak osotu eben. Makiña bat lan egin genduan guk —ni ikasle gazte nintzan berton— inguruok albait eta ondotxoan apaintzen! Guk bai zugatz-adarretan ekarri inguruko beresietatik, Oka trokatik batez be; gure poza bazterrok dotoretzen! Azkenbako erreskadetan etorri yakun jentea, txaloka ta abeska. A eguna! Bigarrena, udazkenean, Donostia'ko, Markiña'ko ta beste erri batzuetako umetxoakaz atondua izan zan. Tren berezietan etorri yakuzan umetxo mosu gorri areik, millaka kolorezko jantziz apainduta.

Urrengo urtean, au da, 1926'garreneko udan, beste olako bat Gernika, Durango ta Arratia aldetik. Berrogetamar urte ziran, nunbait, Larra'ko komentua ta eleizea karmeldarrok barriro artu genduzanetik, eta jazokun ori ospatu nairik eratu eben peregrinaziño bat; garai atan be lagun-aldra ederrak batu ziran Larra'ko eleiz inguruetan. Komentuan barriz, gertaera ari merezi eban anditasuna ezarteko, bagillaren 22'an, Probintzi ontako karmeldarren. A. Nagusia bere Aolkulariakaz eta Bizkai'ko komentuetako praille asko tarteko zirala, itzaldi ta musika arrats-jai bikain bat atondu zan. Aita Doroteo zan bertoko **buru**.

Gerra amaituta laster, 1939'an, Kristo'ren Igokunde egunez, Bilbao'ko San Anton'go Eukaristi-gurtzailleak etorri ziran, erromes-antzera. Etziran bakarrak be, Zornotza'n Durango'koak alkartu yakezan eta. Andik eta emendik etozanai Larra'ko prailleak, kapa zuriz jantzita, Zornotza'ko trenera urten eutsen, eta parrokitik Larra'ra, danak batera, joataldi ikusgarria egin eben, Gure Jauna agirian eroanez. Egun atan Durango'ko artzipreste zan Benzeslao Maiora jaunak —erromes bera be— itz egin eban Larra'ko eleizan.

Beste jai eder bat. 1947'ko maiatzean, Teresatxo deunaren eriotz osteko berrogei ta amargarren urtea ospatzen zala-ta, inguruetakori erri askotatik be, jazokun ari berea emon naiez, arrigarriri Larra'ratu zan jentea. Etziran edozelango gertaketak egin aurretik, mixiño-itxurea jaiari ezarri gura-ta. Ibildeun ikusteko bat osotu zan, karrotza eder ta guzti, Larra'tik Zornotza'ko eleiz nagusira; au arratsaldean. Goizean, ainbat jenterentzat eleizea oso txiki zalako, aurreko zelaian, oltza apain baten gaiñean esan zan mezea. Egun atan Teresatxo deunak biotzik asko beretu ebazan, eta biotzok —Aita Jose Luis ta Libino buru zirala—, miiñez barik barruz daroagun sua erakutsi bear dogula-ta, orduantxe eratu eben batez be Larrea'n arrezkero umez ugari ta ikasi-naiez ugariago agertu yakun Kristiñau-lkasbidea.

1951'an be, Karmen'go eskapularioaren zazpireungarren urtean gengoza-lako, eleizkizun miresgarriak egin genduzan. Bertoko nagusi nintzan garai artan, eta ondo dakit noraiñoko arima-min bizia sentiduten zan ordun Larra inguru guztian. Urte barruan ainbat «Kutun-egun» euki genduzan errietan. Karmen'go Amaren bederatzi-urrena, eguna ta urrengo domekea oi zan baiño ospetsuago igaro genduzan. Baiña eun urteburu a jaituteko Larra'n egin zan gauzarik ederrena, zemendiaren erdiruntz, 16, 17 ta 18'an euki genduan irurren **beroa izan zan. 17'an**, illunabarrean, argi ta maitalez inguraturik, Larra'tik parrokira eroan genduan Karmen'go Amaren irudia. Nik neuk ez dot Zornotza'ko eleiz zabalean ainbeste lagunik iñoiz ikusi. Iduria an egon zan gau osoan, biotz leialak zainduta. Urrengo goizean parrokitik Larra'ra, bere

**aulki apaiñera, ta emen meza nagusia, Aita Seberino, Andikona'ko seme argiak emonda. Bertoko ta kanpoko, amaika lagun auspez jarri zan Larra'ko Amaren oiñetan!**

Eta, azkenez, **1963'garren** urtean, Karmen'go bederatzi-urren bitartean **izan zan** emen **zarata, gogo bero ta zorimenik** naiko, **Teresa Ama** deunaren besoa **genduala** bide. **Garillaren** amaikan, eguendirantza, **eldu yakun** Bilbao'tik **Zornotza'ra, ta arratsaldean** egin geuntson arrera **ziñez** biozkorra; lenengo udal-etxean, gero **parrokian**, eta andik **Larra'ra**. Emen **giñean** guztiok, **praille, abade, erri-agintari, moja, bertoko ta kanpoko** guztiok **maitasun** eta **gar berberak** korapillotuta: danok Teresa Amari otoika ta txaloka. **12'garren** eguna **osorik Larra'n** emon eban **Euskalerrian zear ospe** andiz ebillen beso **miresgarriak**. **Ez asi** kontaketak egin **naita**: Jainkoak eta berak **(Teresa'k)** dakie **bakarrik** Zornotza'n zenbat belaunikatu **yakezan** orduan.

## VI.—Aztetxea

Lenago, euskal Probintzia ontako karmeldarrak **Gipuzkoa'ko Lazkau'n** eukien euren **praillegai** etxea, eta **gazteak** an egiten eben euren **saio-urtea**. **Baiña** exklaustraziño ostean a ezin eskuratu **izan zan**. **Eta 1876'an**, ementxe **Larra'n jarri** eben **dalako Aztetxea**. Ta ordutik ona, **loratsu ta bizi**, emen **daukagu**. Zenbat **gazte** lerden ikusi ditugun oroteotan be Karmen'go **Amari eskintzen!**

**Zelai, erreka ta menditxo**z inguratuta komentua **agiri da, ta** komentuan Amaren semeak, erle **langille** antzera, **lanari lotuak gau ta egun**. **Auxe** baita Andra **Maria'ren baratz** eder. Korutik **gelara, gelatik** korura, **bizitza ixil barrukoian daroaz** urteak eta urteak **baratz jator** onek.

Jainkoak beti **onetsi oi dauz bere** aintzarako diran **lanak**. **Baita praille-gaitegi au** be. Urtetik urtera **geituaz lez joiazan** emen Karmen'go **Amaren**

jantzia eskatzen eben **gazteak**. **1896'an** ogeta zortzi **ziran**, ogeta **zazpi urren-goan**; **1898'an** ogetamarrera eltzen dira. **Ta** olantxe urte **guztietan**. **1966'ra-ño Larra'n** karmeldar abitua artu daben **praillegaiak 2.804 izan** dira.

**Egia da: gauza** eder **asko** ezin **daikeguz** berbaz adierazo. **Ezta gazte** onein **bizitz bero ixilla** be; **ez**, ezin daikegu **esan** onein penitentzi-bizitzatik **pizkat** be. **Oso** misterioz betea **baita**, urtez urte Karmen'go Amaren oiñetan **loratua: bizitza mardula, joria, oparotsua**.

**Alan** be, **autortu daigun argi**, emendik urtenak dira eundaka gizon argi, **Bizkaia** ez-ezik, **Euskalerrri osoa ta mundu zabala** be euren **argitasun zoragarriagaz** arritu dauenak. **Iru** artzobispu, **A. Balentin Zubizarreta, Markiña-Etxebarria**'ko semea, **Kuba'n**; **A. Arginzoniz, Zornotza**'ko semea, **India'n**; **A. Anjel Maria Perez**, **India'n**. **Eta lau obispu: A. Buenabentura Arana**, Berriz'ko semea, **India'n**; **A. Anbrosio Abasolo**, Zornotza'ko semea, **India'n**; **A. Irizar**, Ormaiztegi'ko semea, **Kolonbia'n**, eta **A. Rafael Lekunberri, Arazuri**'ko semea, **Tumako'n**.

**Baita** bost **apostoluar Buruzagi** be: **A. Joakin Arteaga, A. Seberino Agirrebeitia, A. Pazifiko Cembranos, A. Hieroteo Valbuena ta A. Benzeslao Gomez**. **Apostoluar Bikari** bat: **A. Biktor San Migel**, Lekeitio'ko semea. **Ordena guzti**-ko iru **Aita Nagusi: A. Ezekiel Bilbao**, Zornotza'ko semea; **A. Silberio, ta A. Migel Anjel Batiz, gaur Nagusi doguna**. **Altaretarako bidean dagozan** otsein **santu** bi: **A. Juan Bizente berriztarra ta A. Balbino**. **Mixiolari argi** oneik: **A. Juan Jose Bilbao**, zornotzarra, **A. Juan Damaszeno** zornotzarra, **A. Juan Manuel** markiñarra, **A. Fulgentzio** dimostarra, **A. Aureliano basauritarra, A. Zakarias Salterain** abadiñotarra, **A. Salustiano** zornotzarra, **A. Diego Zabala** markiñarra, **A. Felizisimo Orue** morgarra, **A. Mariano Agirre** abadiñotarra, ta abar...

**Era** ontan millaka. **Guztiak** urten dabe emendik, Karmen'go Amaren **baratz** eder ontatik. **Ikaragarria dogu**, beraz, **Larra**'ko **santutegi** onek dauan **garrantzia**. **Ikaragarria** baita berak **gizaldiz gizaldi** barraiatu dauan **zeruko arnas** beroa.



## VII.—Euskal idazleak

Lumaren bitartez apostolutza egin dabena be eztira gitxi Larra'ko prai-  
lleon artean. **Len**, anai arteko **guda aurretik ez eben gitxi** egin, eta orain ez  
dabiltz **nagiago**. **Liburu oso jakingarria** osotu daikegu karmeldar oneik da-  
gien **alderdi ortako lanari** begiratuta be.

**Ona erakusgarri batzuk.**

**Aita Martin**. **Izlari lez** ez bakarrik, idazle **gisan** be **lan asko** egin eban  
euskera ta **euskal** erriaren alde. **Liburu askorik ez euskun argitara** emon,  
**baiña** liburutxo ta idazlan **ugariak eginda joan yakun**. «Karmen'go **Argia**»-ren  
**zuzendaria izan zan zati batean**, eta an idatzi zituan «**Baseri-gaiak**» eta «**Ergi**  
**Biribillak**» ez dira edozer **gauza**. «Maiatzeko **IIla**» ta berak errietan egiñiko  
itzaldi meta bat **argitaratu** barik itxi euskuzan. **Euskera gartsu ta jatorra**  
erabillen beti.

**Aita Zelestino Gorrotxategi**. **Berriz'ko seme au, gaur** be **Eibar'en bizi** da.  
1886'ko urtean **jaioa**. 1904'an **praille** eskintzak eta 1910'an **lenengo meza**.  
**Larrea'n Praga'ko Jesus Umearen Kofradiko zuzendari zala**, eskuliburu dotore  
bat idatzi ta **argitara** emon euskun: «**Karmeldar Lorategia**» (**Bilbao, 1918**).  
327 orrialde ditu. **Euskera apaiñean idatzita dago**, ta **auxe izan zan urte** asko-  
tan **karmeldar eleizetan erabilli zana**.

**Aita Doroteo**. **Euskeraz ta erderaz liburutxo politak itxi zituan**. **Batzuk**:  
«**Aurtxo Jesus Praga'koaren Jaiera liburua**» (**Donostia, 1915**); «**Karmen'go**  
**Amaren esku-liburua**» (**Zornotza, 1931**). Eta «**Karmen'go Argia**»-n ainbat  
**lan, «Aita Gurea» ta «Praga'ko Jesus Aurraren edestia» azalduaz** batez be.  
Ondo ekian euskeraz, eta beti errikoi **jarduna dogu**.

**Lontzi Aba**. Bere egunetan, **eten barik**, nok **jakin zenbat** itzaldi egin eba-  
zan? **Baiña** idazteari be ekin eutson, eta **gutziz gogotsu** ekin be, bai **euskal**

errian bizi zala bai erbestean. «Jaungoiko-Zale»-n, «Karmen'go Argia»-n eta «Ekin»-en, 1920'tik 1936'ra, makiña bat olerki ta lan argitaratu zitun. Izenordez izenpetu oi eban geienez: Ormalda, Ormetxe, Ormaetxea'tar Kepa, Lontzi Aba, ta abar. Txile'n aurkitzen zala, ipuin-idazti bi azaldu ebazan: «Lontzi Abaren Ipuintxuak» (Santiago, 1947) eta «Bigarren Ipuintxuak» (Viña del Mar, 1948). Idazle lez ez dogu txarra; garbizale izan arren, gaurko asko baiño erritik urrago dabilkigu.

Aita Pio Etxebarria. Gorozika'n jaio zan 1898'an. 1922'an mezakotu ondo-  
ren, Kolonbia'ra joan zan, urte mordoa an egiñik. 1936'ko gerra aurretik «Karmen'go Argia»-ren zuzendari zan ementxe, Zornotza'n. Gero, igeska, Peru'ra aldatu ta an il yakun 1945'garren urtean.

Erbestetik ibillita be, ez ebán umetan artutako euskaltzaletasuna galdu. Eta Peru'n egoala, Granada'ren «Obendien Zuzentzaillea» ta Salles'ko Frantzisko deunaren «Bizitza eraspentsurako Sarrera» euskeraz ebazan ipiñi. Aurrrerago, «Kisto'ren Antz-bidea» be emon euskun, iru aldiz argitaratua. Lan guztiok sakon eta gizonki egiñak dagoz, euskera gozo errezean beti.

Aita Gabriel eta A. Gotzon Jauregi. Aramaio'ko anai biok emen bizi izan ziran aldikada baten, gaur Gabriel illa ta Gotzon Txile'n aurkitu arren. Oso euskaltzaleak biok, eta langille porrokatuak. Gabriel'ek «Pisia' ta «Kimia» argitaratu zitun. Gotzon'ek, barriz, ainbat idazlan txiki or-emen zabalduak; beti zorrotz eta jakingarri. Euskal idazle biok merezi dabez gure txalo beroak.

Aiat Antonio Goiria. Kortederra'ko semea, antxe bai zan jaio 1908'n. 1925' an egin eban profesia, Larra'ko komentu ontan. Azken ikas-urteak Kolonbia'n egin zitun, 1933'an Medellin'en apaiz egiñik. Gero, bertan ibilli zan mixiolari urte pilloan; baiña iñundik ez yakon itzali barruan eroian euskaltzaletasuna, piztuagotu baiño. Gaur Eibar'en aurkitzen dan arren, Ameriketatik itzuli ostean, emen bizi izan zan urte batzuetan.



Zomotssa'ko prailletgia. Batxiller irakasten da



Zornotza'ko karmeldar Ikastetxean batxiller ikasten daberen gazteak  
Gatzelugatx'en eta bertoko jolastokian

Asko idatzi dau. «Karmen'go Argia»-n, «Jaungoiko-Zale»-n, «Egan»-en, «Karmel»-en, eta abar. Lau liburu be argitara emon dauz: «Berrio-Otxoa'ren Bizitza» (Bilbao, 1952), «Karmen'go Amaren Eskapularioa» (Bilbao, 1952), «Fatima'ko Ama Birjiña» (Gazteiz, 1955) ta «Goi-bidez» (Bilbao, 1968). Liburu ederrak, azkenengo au batez be: 423 orrialde ditu, ta euskera arin errikoian egiña dago.

Aita Onaindia. Emen daroaz amazapi bat urte jarraian, beti euskerari ta euskal erriari osorik emona. Oso gaitz dala diñoie bere lanaren zeaztasunak emotea, batez be kritika beresian sartu ezkerro. Baiña bego emen bere liburuen zerrenda soil bat.

Santander'ko Hoz de Anero'n etxeko nagusi zala, besteak beste, «Karmen'go Amaren Egutegia», gero «Karmel» izango zana, argitaratzen asi zan. Andik iru urtera, Larra'ko nagusi zala «Milla Euskal Olerki Eder» (Zarautz, 1954) emon euskun. Eta Olantxe urtero lez arrezkeroko liburuak.

«Goi-zale», A. Pio'ren «Kisto'ren Antz-bidea» bera, otoitzez eta eraspenez orniduta, 1956'an; Arrese-Beitia'ren «Olerkiak», 1956'an; «Bertso barri ta Kanta zar», bilduma bi, 1957'an; «Xabiertxo, bizkaieraz, 1960'an; «Olerti», olerki-poesi aldizkaria sortu eban 1959'an, amar urtez bizkor jarraitu dauana; «**70 meza fitxa**», 1960'n; «**Iru poema**», R. Tagore India'ko olerkari aundiaren «Illargi barri», «Baratze-zaiña» ta «Liriku eskintza» euskeraz, 1962'an; «Eguneroko Meza», Kerexeta jaunarekin batera, 1963'an; «Onbidea», Santa Teresa'ren «Camino de Perfeccion» euskeraz, A. Lino Akesolo'gaz batera, 1963'an; «Gure Bertsolariak», Agirre-Sariz sarizatua, 1964'an; «Ondarrak», Txomin Agirre zanaren idazlan txatalak batuta, 1964'an; «Jolasketa», 1965'an; «Abarrak», Kirikiño'ren ipuin bilduma, 1966'an; Bergili'ren «Enearena», euskeraz, 1967'an; «Enbeita Oleskaria», 1967'an; «Kolonbiar Olerki-sorta», euskeraz ta erderaz, 1968'an. Itzulpen asko be egiñak ditu: Horatio'ren «Odak», Dante'ren «Su-leza» ta «Olerti'n ainbat olerkariren lanak.

**Ba eben** nun idatzi be oneik, eta beste **askok**. Berton argitaratzen ziran «Karmen'go **Argia**» (1931-36), «Karmen'go Emaren **Egutegia**» (1951-56), «Karmel» (1956-62) ta «**Olerti**» (1959'tik aurrera).

**Eta aldizkari** onein bitartez ixilleko **lan** ederra egin eben karmeldar **gazte ta zar askok**. **Euren** izenak eta **lanak aitatzea** egoki **litzakigun arren**, orain eztot astirik, ez lekurik. **Bioaz, alan** be, onein **izenak**: **A.** Ipolito Larrakoetxea, **A.** Ambrosio Abasolo, **A. Isidro Maguna**, **Segundo**, Modesto, Elorrieta, **Atutxa**, **Garate**, **Luki**, **Libino**, Pedro Mari, Akesolo, **Juaristi**, **Zubizarreta**, **Borda**, **Goia**, Mitxelena, **Batiz**, Etxebarria...

*Euzkalerri'n zabaleran  
agertzen nonai aukeran  
atxuntxur eta mendi garaiak  
artzain zaindarien eran;  
auzo politak arein gerizan,  
beste batzuk eguberan.*

*Itz oneik ozen esanda  
zeñeri emon gaur txanda?  
Bazter maite bat goraldu gura  
neunke, Larredko landa,  
baita bertako eleizatxoa,  
solo artean ollanda.*

*Zokondo géldi, apala,  
bakea datzan magala;  
ez dau ezagun errietako  
zoramen eta astrapala  
zarratakoa yantzian baizen  
eukiarren bitxabala.*

*Baserri artan arrotzak  
Durango eta Zomotzdk  
olagizonai dei egiteko  
darabiltzen adar motzak;  
goizean soillik entzuten dira  
zotinka kanpaien otsak.*

*Dei samur eta eleizkoia,  
nagia kentzeko doia;  
iñor ba-doa laster arantza  
itxita berorik oia  
billatu guraz kistarrarentzat  
beroagoa dan goia.*

*Bero baiño beroago  
aspáldi antxe baitago*

*Karmengo Ama, maitasunaren  
iturburu eta arrago.  
Aren oiñetan aldia oi da  
igarri barik irago.*

*Eskurakói usapala,  
a'ni artan dagoála,  
maitetasunez zabalik dauka  
bere zurizko egala.  
Nok bizitzako atsekabetan  
billa ez aren magala?*

*Ez da zetan iragarri  
ez dalako gauza barri:  
arako Amdk bere ondora  
lagun asko dauz ekarri  
eta goiargiz asetu euren  
gogoetáko egarri.*

*Baiña oraingo jaietan  
iñoz ez aiña bestetan  
agertuko da eleizatxoa  
arren eta abestietan;  
Karmen'go Ama barriz, dizditsu  
koroaturik goietan.*

*Baita orrezaz gamera  
usapal aren aldera  
txorikumeak urtero eltzen  
berari lagun eitera,  
zokondo gorde artan baitago  
karmeldarren asiera.*

*Gero, tamalez, lumatu  
baiño len andik egatu.  
Batzuk alan be ábi ondoan  
irabioka geratu;*

*baiña norbaitzuk alabearrez  
erbesteraíño aldatu.*

*Ene! Auxe aitatuta  
ezin dot miña ezkuta:  
aberi maite ta beste Ama  
maiteagoren gomuta,  
atzerrri ontan negarra baiño  
garratzago dan zurruta.*

*Begiratu aldamera  
ta illunpetan siñesmena;  
mendiak barriz, ba-leukie lez  
Jaungoikodren aiñena,  
izugarvvo legor ta gorri,  
lurbira onen azkena.*

*Ta emengo lurraldetan  
ogei ta amasei urtetan,  
iñoz amaitzen ez diran bide  
ta ekite narrazetan,  
nor ibilli ez arako txoko  
maiteagaz amesetan?*

*Orkoak ezin igarri  
erbestetuaren larri,  
ta sorlekutik atzerrira iges  
egin gura dabe sarri.  
Emen daukie ori luzaro  
txasta dauan baten barri.*

*Larrea, toki begikó,  
ez aut ausaz ikusiko  
neure bizian. Ori barruan  
izan yoadan zimiko.  
Igaitik emen dagon guztia  
errez naieunkek itxiko.*

*Begiztatu ire bazterrak,  
solo ta mune muskerrak,  
orko Amdren arpegi mazal  
ta eleizkizun ederrak...  
Baña gurari oneik oraingo  
dira niretzat alperrak.*

*Alderantziz zoriona  
orko biztanle askona,  
baitabe ango joaleari  
erantzuteko mugona  
eta Karmen'go Amdrentzako  
biotzean eskerrona.*

*Gemika'rantz txangoan  
iradu sarritan oan  
bultzia, ez az iñoz gelditzen  
ordoki orren alboan?  
Ona etorri adi ta laster  
jakingo zer galtzen doan.*

*Sakonean urrumeka  
bide dagikan erreka,  
ez dok entzuten éleiza órta  
dagieng otoi ixiltzeka?  
Eure surmurra batu aregaz,  
geldi ta ez adi neka.*

*Ni beintzat une batean  
gelditu ein nok bidean,  
urte luze ta motz oneitako  
ibilte amai bagean  
gomuta oneik neuregan batu  
ta urloa egin gurean.*

*Auxe nire atsedona.  
Ta Larredko txadona,  
Karmen'go gure Ama babesten  
aspaldidanik agona,  
urgeldi ontan agertuko bdintz  
ori nvre zóriona.*

*Euzkeraz ta neurtitzean  
iregana zuzentzean  
soiñu onegaz lillura edo  
iku nai aut biotzean;  
beste elerik ez, Larrea, sortu  
ta i bertan jaio intzanean.*

Emaldiko



# 5

## Larra'ko Karmen'go Ama Koroatu nai

I.—Zer da koroatzea?

Koroatzeak, bere barne-izatera jo ezker, **auxe esan gura dau**: norbaiti **buruan ustai** edo **ailla** bat jartea; koroia **naiz ustai au** era askotarikoa **izan** daiteke: **urrezkoa**, **zidarrezkoa ta abar**. **Eta koroia** daroan **au** adierazten **dausku**: **Erregetza**, **nagusitza**, **agintaritza**; itz batean, gorengo **dagoala**. **Baita**, **erabat**, norbait indartsu, **trebe**, **jakitun**, jokalaria andi **naiz soin-eder danean**, **olakoa**, **iñoiz koroia** buruan ezarriaz be **bai**, **txalotu egin** oi dogu. **Aita santuak**, **erregeak** eta **abar** koroatzen dira, geienbat.

**Eleizan**, Kristo **arantzaz** koroatua **agertzen yaku**; Andra Marria, barriz, Erregiñ **koroiaz**. Onen izenik ederrena **auxe** da, **izan** be: **guztien Erregiña**.

**Zeruan** eta lurrean **Berak dau Erregiñatza**. Ta, batez be, lurretik **zerura gorputz** eta **arima jaso izan zanean**, **Aita** betikoak, **bere Semeak**, **Espiritu Santuak** eta **aingeruak**, **guztiak** batera, **goi-aintza** ta dirdira artean, zoragarririk zoragarrien koroatu eben. Arrezkero, **Erregiña buruntzaz** agertzen **yaku** iduri guztietan.

**Baiña Eleiz Amak** be Andra **Maria**'ren iduri **batzuk** koroatzen ditu, **naita** askorik ez. **Mundu** guztiko Andra **Maria**'ren idurien **artean**, **Karmen**'go **Ama**rena **izan da** geien koroatua. Onakoak berarizko egitez eta **jai-ospez** osotu oi **dira**, ta era ontako koroatzeai eleiz-koroatzea deritxogu.

Omenaldi goresgarri **au**, **Eleiz Amak**, Andra **Maria**'ren iduri batzuei **ba**karririk egiten **dautse**. Euskalerrian **da-doguz**, onetara koroatuta, Andra **Maria**'ren iduri **banakak**. Txit **atsegin yakuz** izen oneik: **Begoña**, **Arantzazu**, **Itziar**, Arrate, **Orduña**'n eta Lekietio'n **Antigua**'ko **Ama**, **Durango**'n **Uribarri**'koa, ta **abar**.

Laster, egun **batzuk** barru, il onen **23'an**, **Larra**'n **Karmen**'go **Amaren** iduria be, **Euskalerriko** Andra **Mari** Iduri koroatuen **artean** sartuko da.

## II.—Koroatzeak noiztik?

**Eztira gaur** goizekoak be. **Bengoetxea**'tar **Ismael** aitak, **Zornotza**'ko seme ta **karmeldar argi danak**, an **Sevilla**'n orren egoki **argitara** emoten dauan **MIRIAM** aldizkarian, koroatzeak dirala-ta, **auxe** diñosku: «**Egikizun eder** onetan lenengo **asi zana** Forli'ko **Jeronimo Aita (1552-1620)** izan **yakun**. **Ba-zan** beste aberats bat, benetan Andra **Maria**'ren **maitale gartsua**, **Alejandro Sforza**; onek, bizi **zala**, ainbat koro, urre gorritzkoak ez gitxi, Andra **Maria**'ren idurientzat emon ebazan. **1616**'ko **garagarillaren 3'an** be **Batikano**'ko **Kapituluari** diru ta bitxi **asko** emon eutsozan, eskupeko lez. **Dan-dana** Andra **Ma-**

ria'ren koroitarako, batez be **antxiñatez** eta **mirariz** entzute andikoak dirarentzat. Andik **ona**, koroatze goraberetan, berezko eskubidea **dau** Batikano'ko **Kapitulu** onek; eta nun-edo-nun Andra **Maria'ren** iduriren bat burestundu nai danean, **eleiz-agintariak** eta erri-nagusiak **eskatu ta** eskabide ori ondo **aztertu ta** gero, aitaturiko **Batzar** orrek **emon oi dau** ortarako bear dan **Aita** Santuaren agiria.

«Iru eratakoak dira koroatzeok: 1 ) **Aita Santuak** berberak egiten dabe **zanak**. **Onela** egindakoak **15** dira **gutziz**, batez be **Aita Santuak** erbeste **zear** ibilli diranean egiñak; 2) **Aita** Santuaren izenean —nomine Pontificis—, bere ordezkoren baten bitartez; **150** iduri ba-dira **gisa** onetan **koroatuak**; euren artean, bederatzi iduri **Karmen'go** Amarenak, **1951'an**, **Eskapularioaren zazpigarren eunurte burua zala-ta**; 3) **Batikano'ko Kapituluaren erabagiz**; **geienetan onexek emon oi dau** iduri bat **koroatzeko baimena**» (**Miriam, 1953, 178 orr.**). **Larrea'ko** Andra Maria'ren **koroatzea, gero** ikusiko **dogunez, bigarren** erara **etorri yaku, au da, Aita** Santuaren **aginduz** eta izenean, Berberak **egin oi dauzan** Koroatzeen urrengo maillan etorri be.

**Andra Maria'k ditun** izen eta deikunetatik **Karmen'goa dogu** berez ta **izatez koroatua**. Kondairari **jarraituaz**, beti agertzen **yaku Erregiña lez**; eleizki-zunetan, **Karmen'go** Ederra ta **Erregiña** deitzen **dautsagu**; idurietan, naiz **Elias'en** odeitxoan, naiz **kutuna** emotean, beti **daukagu Erregiña aulkian**; **eleizoituraz, esan dogu, Karmen'go Ama izan da** sarrien koroatua. Zenbat dira onek? Aitaturiko **MIRIAM** aldizkariak, **1960'garren** urtean, **194-197'garren** orrialdeetan, irurogeta seiren **zeaztasunak** damoskuz; eta oneik, 1641'an **asi ta 1960'rarte** koroatuak. **Onela: Italia'n, 35; Mexiko'n, 9; Espaiña'n eta Polonia'n, 3; Prantzia'n eta Kolonbia'n, 2; Argentina'n, Bolibia'n, Brasil'en, Txile'n, Palestina'n, Kuweit'en, Malta'n, Peru'n eta Portugal'en, 1. Ba-dira** beste **batzuk** eleiz-barrutiko Gotzaiñaren erabagi ta **aginduz** koroatuak. Orre-lakoa dozu, **esaterako, Begoña'n** Karmen'go Amarena.

### III.—Larra'ko Iduria koroatu nai

Andra Maria'ren iduri bat koroatzeko, **jakiña**, olako omenez **jantzi nai** dan iduriak kondiziño batzuk izan bear **dauz**. **Oneik** irurok **bai**, beñik-bein: **1) Urtez**, **antxiña** samarrekoa izan dedilla; Larra'koak, **gorago esan danez**, zein eleizeak zein iduriak, baldintza **au** beteten dau, **gure ustez**; **2) inguruko** errietan **eraspen** biziz eta berarizko **maitasunez** goratua izan **dala**; Bizkai ontan, oso antxiñatik, **ezaguna** ta maitatua da Karmen'go **Ama**, **bere** kutuna dala-ta batez be; **3) iduri orren** bitartez lorturiko mirari ta mesede **ugariz ezaguna dala**; **millaka ta millaka auspeztu izan dira** Larra'ko eleizan, **Karmen'go** Amagandik **artutako** esker, mesede ta goitar **doaien** orde **eskertsu** agertu naita.

Iru kondiziño oneik osorik beteten dira Larra'ko **Karmen'go Amaren** idurian, eta **ezta** arrigarri berau koroatzea **guri gogoak** emon eta iduritzea. **Ainbat praille**, gazte ta zar, ainbat euskaldun belaunikotu dira emen berreun urte **oneitan**. Eta guztion maite-miñaren **eskea** bete naian, berau koroatzeko **amesa** gozoro barrendu ta **sendoro** indartu **yakun**. Lendik be —**zelan ez?**—, koroatua **ziñan**, **Larra'ko Ama** maite, maitasun beroz, Bizkai'ko lurraldetako seme-alaben koroiz **dizditsuz**. Onan be, **zure maitez gareanok ez daukagu bakterik**, **Zu** Erregiñ-koroiz txit zoragarri ikusi arte.

Orain **amazazpi** urte —**1951'an**—, Karmen'go **Eskapularioaren zazpigarren gizaldia** ospatutean, jai eder areik **ikusiaz**, zarrada eragikor batek Ama koroatzeko **sugar** bizia biztu-azo euskun **guztiori**. **Baiña**, ordukoz, **nagusi** aldaketak eta egin **ziralako**, bertanbera itxi genduan **asmo** txalogarri ori. **Sugarra itzali zan**, ez ostera **auts-azpiko** txingarra.

**Urte** batzuk igaro ostean, **1966'an**, karmeldarren Batzarra Urberuaga'n **ospatu zanean**, **ango** batzarkideak **gogora** ekarri zituen **1968'garren** urtean —aurten— Karmel Ortozak jaituko ebazan eunurte-buru gogoangarri bi. Bata,

**1568'**ko azillaren **28'an**, Gurutzeko **Juan** deunak, **Duruelo'n**, **Karmeldar Ordenea**, **Teresa** deunak **eraginda**, gizonezkoen **artean** barriztuten **asi** zanetiko **laugarren** **gizaldia**; ta bestea, **1968'**ko **agostuaren** **14'an**, **karmeldarrak**, **33** urte —**1835-1868**— komentuatetik botata egin **ondoren**, barrero komentue-taratzeko baimena Madrid'eko gobernuagandik lortu ta **Markiña'**ko komen-tuaren **jabe** egin zireanekoa. **Eunurte-buru** biok **albait** ondoen **jaituteko gogoratu yakun**, ain **zuzen**, urte **barru** onetan **Larra'**ko **Karmen'go Ama** burestun ederrez **apaintzea** be. Zergaitik ori?

**Karmeldarrak**, **Markiña'n sartu ziran** lenengoz, etxetik landa **luzaro ogi-**koskor latzari **agiñak** ezarrita gero. **Baiña** andik zortzi urtera, baita **Larra'n** be komentu **au** Aztetxe edo nobizidu-etxe karmeldar gazteentzat izentaturik. **Arik** onakoan, iru milla **inguru** dira berton karmeldar soiñekoa **jantzi ta Jaun-goikoagaz**, **Karmen'go Amaren** iduri onen **babespean**, zin-eskintzaz lotu dira-nak. **Praille** gazteok gero, lengo komentuak barriz **artu**, **al** ziranak **beintzat**, eta karmeldar **bizitza** ostera be asteko **asmu leialez**, **España guztira zabaldu yakuzan**; baita, geroago, Ameriketan, **Portugal'en**, **India'n**, **Afrika'n** eta beste lurralde askotan **Jainko-arloan** lan egin dabe, ta egiten diardue.

**Augaitik**, **Larra'ko** komentua mintegi **oparotsu izan da eun** urte oneitan; eta berton, urterik urte, **Karmen'go Amaren** iduri beneragarri onek, ainbeste **praille** gazteren biotz-nai bizi ta **gartsu** bedeinkatu dauz. **Beraz**, bidezko **da**, **eder** da, Andra **Maria** irudi onen bidez **goratu guraz** bere semeak **aurkitzea eun** urteburu **au** beteterakoan.

#### IV.—Ortarako eskabideak

**1966'**ko bagillaren **10'an**, **Larra'ko** lekaideak euren komentu-batzar **nagu-**sian **Karmen'go Amaren** iduria koroatzeko bear diran baimenak lortzeko **iza-**pideak **astea** erabagi eben. **Lenen**, Ordenako **Nagusiai** eskatu bear yaken **asmo**

onen on-eritxia, ta orrelaxe egin zan gure euskal probintziko nagusi ta aolkulariai agiri bat bialdurik; eta oneik, Donosti'n, 1966'ko bagillaren 14'an, oso pozik onartu eben guk bialdutako eginai ta burubidea.

Ondoren Bilbao'ko Gotzain jaunak be pozik entzun eban zelako asmotan genbiltzan, berenetik aalak al egingo ebazala Andra Maria goralduteko agindurik. Eta etziran gogo onean geratu aren itzak, 1966'ko urrillaren 18'an ba Aita Santuari bialdutako eskabideaz dokumentua izenpetu euskun. Eskabide ontan argi ta garbi adierazten yakoz Aita Santuari, Larra'ko Karmen'go Amaren iduria koroatzeko daukaguzan errazoi ta bultzagai guztiak. Baiña oindiño be zergaitiok agiri ta indartsuagoak izan eitezan, Gotzaiñaz gaiñera, beste eleiz-gizon eta erritar askok, agintariak batez be, euren eskabideak Erroma'ra zuzentzea egoki dala-ta, orretara egiten saiatu giñan.

Onela, Gotzaiñaren eskabideari dautsela, Probintzi ontako karmeldar Nagusiarena ta Zornotza'ko lau karmeldar etxeetakoak —praillenak bi ta mojeenak beste bi— izenpetuta bialdu ziran. Zornotza'ko ta Etxano'ko txauburuak be bakotxak berea izenpetu eben; eta onein aretan, 96 urte ditun Derteano'tar Felipe apaiz jaunak, Zornotza'ko seme argiak. Orrezaz gaiñera, Durango, Arratia, Gernika ta Asua'ko Arzipreste jaunak, parroku guztiekin, pozik osotu eben euren eskabidea. Bizkai'ko erri-agintariak eta Zornotza'k» aiuntamentuak beste orrenbeste egin eben; eta gisa orretan, karmeldar, eleiz-gizon eta erri-agintarien artean, beste amaseiraiño ezarri yakozañ Gotzaiñaren eskabideari.

Eskabide oneitatik agiri batzuk naikoa dozuz koroatze onen zergaiti ta oiñarriak argi ikusteko. Ona emen iru.

\* \* \*

Bilbao'ko Gotzaiñarena. «Aita Santu ori: Bilbao (España)'ko Gotzain dan Paulo'k, bere zainpean ditun eleiz-gizon eta Jainko-erriagaz, Karmeldar lekai-de ortozakaz batera, Zure aurrean belaunikotu ta apal-apalaik agertzen dautzu:

«Nire artzain-ardurapean jarritako eleiz-barruti onen mugak agatzen di-tuen eleizarik bikaiñenen artean, zuzen eta mereziz jarri bear da, Larrea'n (Zornotza-Etxano'n), Juan Bateatzaillari eskiñiriko santutegia. Lenengotan er-mita bat jaso zan an; urteak joan urteak etorri, eleizatxo ori jausi zan, eta gero, 1695'an asi ta 1705'an amaitu, beste askozaz ederrago bat egin zan. 1713'an, karmeldar Aitak artu eben eleiza onen ardurea, laster eleizeari dau-sola komentu bat euren pentzutara eregirik.

»Egikeraz oso ederra ta betea dan Santutegi onetan, 1767'garren urtean, Karmen'go Amaren iduria jarri eben, bere-bere altaran eta bere zerbitzurako anaidi bategaz orniduta jarri be. Iduri au, gero eleiz-besoko altaran jarria, azkenez, 1882'an, Juan Bateatzaillaren iduria gorako nitxoan ipiñi ondoren, altara nagusiko ganbara dizditsuan jarria izan zan. Onela, Kristo'ren Aurre-lari santuak Jaungoikoaren Amari be bidea gertau eutsala esan gengike, Andra Maria altara-erdian agiriago agertuaz, bera bigarren lez geratzeko; orrela, len bere zaindaripean egoan eleizea, Karmen'go Amarena lez agertzen da guztien uste ta eritxiz.

»1882'garrena ezkerre, altara nagusian dagon iduri au, bizi, legun ta mai-tagarria dogu, zurez egiña, Karmen'go Amaren iduriak España'n oi diran lez taiutua, Ordenako jantzi ta kapa zuriagaz, ezkerreko besoan Jesus Umea daukala, eskumakoan luze Eskapulario santua opatuaz. Ondopetik goiraiño 150 zentimetro daukaz, luzean.

»!duri au zala-ta, Andra Maria'ganako eraspen bizia zabaltzen asi zan an ta emen, karmeldarren lan gogotsuari eskerrak geienbat; oneik, ba, maitasun

beroz ta bulartsu ekin **eutsen** beti **eraspen au** gero ta **geiago** errietan **ereiten**, kristauai batez be Karmen'go Kofraditar egiñik **Eskapulario santua** itzal eta duintasun benetakoz eroaten **erakutsiaz**.

»Karmen'go Kofradi **au**, bear dan lez **1776'**garrenean eratu **zan Larra'**ko **eleizan**, eta lenen-lenengotik indartsu be indartsu **etorren**, eta urtez urte inguruetako sendi **guztiak** berton izenak emoten **nor-geiagoka** lez ebiltzan. Kofradiko liburuetan agertzen diranen izenak **larogei** millatik **gora** dira. **Kofradi** onen **elburua** Andra Maria'ren goralpena ta kristiñauen **santutasuna zan**, bere lege-arauetatik agiri **danez**. Kofraditarra, onela, iduri **au** dagon **altara aurrean** kutun **santuaz** jantzirik, kristiñau zintzoari dagokionez bizi izatera beartzen **zan**, **bere** egite on **guztiak** Jainkoari ta Andra **Maria'**ri egunero **eskintzera**, izentauriko otoiak egin eta sakramentuak sarri **artzera**. **Dan-danau**, bakotxak bere barruak agintzen eutsonez.

»**Eta** eskapulario **santu au** erabiltea, **izan** be, **guztiz** onurakor egiñik, inguruetako guztien artean **zabaldu zan**; **jantzi au** aldean eroan eta errosarioa **egunero esatea**, zeruko **Amaganako gauzarik** beiñena ta **semekoiena lez** euken.

«**Maria'ganako** eraspen ta ixurtze **bero** onen **ardatza** Larra'ko Santutegian, iduri **gurgari** onen oiñetan aurkitu bear da. **Onela uste izan** dabe **eleiztar** zintzoak **eurak** be; ori **darakusgue**, bai, Karmen'go ta **Santa** Teresa'ren jaietan batez be, eleiza onetara etorri oi diran atertu bako jentetzak, eta erromeriak eta peregrinaziñoak eta errogatiba **ospatsuak**.

Agirikoa **da** erromes-jentetza oneik eta kristiñau-alkartzeak, kistar **bitzita** sendotu egin dabela; erromesak, **izan** be, gero ta **geiago santutu** naiez, autortzak eta **jaunartzeak sarri** egin daroez, Jainko-Amaren iduri aurrean **euren eskariak** duinkiro egitearren, mezak entzun eta beste eleizkizun guztietan **esku** arturik.



»**Baita** agirikoa da beste **au be**: Andra **Maria**'k, bere **altara** aurrean ainbesteko **garraz eskatu izan** dautsen **seme-alabai** mesede **ugari ta amakorrez** erantzun **dautsela, gizaldiak zear**. **Ama onen** bitartekotasun altsuaren bitartez zenbatek oker ibilli **ta bide zuzena** aurkitu daben, zenbat saminduk **poza ta** nekeen aringarria, zenbat larrituk argiaren **bakea**, eta zenbat, **azkenez, Jaungoikoagana** ekarriago sentidu **diran!** Esker oneko biotzak **egiz** emoten dabe argibide ederra.

»**Bat-banatu** ezinbesteko mesede **ta** laguntzok **asko** dirala, beste errazoi **bat be ba-da** oindiño iduri **au eleiz-goralpenik** bikaiñenez omentuteko. **Karmeldar Ortozak eunurte-buru bat ospatu** nai dabe **1968'an: Espaiña'n, 1868'an**, barriro komentuetan bizi izaten **asi ziranekoa**. **Ta Larra**'ko komentu **au, ia** lenengo bir-artze urteetatik gazteen mintegi **ta** aztetxe biurturik, **ama etnokor** lez **izan** da, ainbat praille **azi ta** ezi ondoren, Euskalerriko etxeak eta **Espaiña**'ko komentuak be, **eskuratu ala**, seme langillez beteten **ebazana**. **Eun** urte oneitan, **karmeldar** izateko **asmuz** iduri **agurgarri** onen **aurrean** **karmeldar** soiñekoz **jantzi** diranak, **2.804'raiño** eltzen dira. **Orain**, eungarren urteburua **gogora** ekartean, seme zintzoai dagokien esker onez, **Ama onen** aurrean **Karmel-soiñekoa jaztean** beronen besarkada **samurraz** oartu ziranak, eta **Aren laguntasunaz saio-urtea amaitu ta** zin-eskintzak bere eskuetan egin **ebezanak**, garrik bizienaz **auxe gura** dabe: ainbeste **gomuta** eztizko iduri **au**, eleiz-bureskunderz koroatua **izan** daitela.

»**Onan** **ba**, errazoi guztiok **gogoratuaz**, **Karmeldar Ortozak**, eleiz-barruti ontako **apaiz**, kristau **ta agintariakaz** batera, **Neugana** jo dabe, arren eta arren iduri **agurgarri au** eleizaz koroatzeko bear diran neurriak **artu ta** zuzemenak egin **dagidazala** eskatuaz. **Eta** **Nik** ontzat **daukadaz** euren gurariok, **Neuk** be **Jaungoikaoren Amari** dautsodan **jaiera ta** deboziñoak, eta **Jainkoaren eta Eleizearen Ama'ganako maitasuna gero ta** **geiago** eleiztarren artean **zabald**u daiteneko artzain-ardureak ortara **bultz-eragiñaz**.

»Eta Zerorrek be, Batzarrean gengozanoi agertu zeuskuzun guraria lagundu nairik, biziro gura dot, baita alegin guztiak egin be, Mariaren izena ta ospea kristiñau errian goraldutea, Aren egin-lorratzai jarraituaz, Maria'ren aintza ta jaiera, Batikano'ko Il'garren Batzarraren irakatsiz egi argitsua izanik, guztiok Jainkoaren Ama samur-ederrari izsn bear dautsagun maitasun bero biurtu dedin; Ama au, bada, Kristo'ren Ama izanaz, Artzaiñen eta kristauen Ama be ba-da, esan nai dot, Eleiza osoarena.

»Ondo jakiñik, gaiñera, Zuri oso atsegin yatzula onako eleiz-koroatzeak egiteko baimena, bear diran errazoiak egon ezkeru, Andra Maria'gazko kultoa biztu-azo ta Arenganako zaletasuna indartzearren, eta Ari bere esku amakorretatik arturiko mesedeakaitik esker beroak emoteko: nire ustez, onako ontan kondiziño guztiok dagozan ezkeru; izenpetzen dauan au, Aita Santu orri eskatzen ausartzen da, Karmen'go izen eta deikunez Larrea'ko eleizako altara nagusian dagoan Andra Maria'ren iduria eleiz-arauz koroatzea onartu daizula, ortarako baiezkoa emonaz.

»Auxe eskatzen dautzu erreguz, bere ta eleiz-barruti ontako kristauen izenean, eta Kristo'gan oso maite dodazan Karmeldar Ortozen izenean, zure morroi apal ta seme zintzo dan Paulo, Bilbao'ko Gotzaiñak. Bilbao'n, 1966'ko urrillaren 18'an.»

\* \* \*

Euskalerriko karmeldarren Nagusiarena. «Aita Santu ori: Sortzez Garbiaren Fidel Aitak, Naparra'ko Joakin deunaren Probintziko karmeldar ortozen nagusiak, bere Erki-Batzar agurgarriaz eta menpeko lekaideakaz batean, eleiz-barrutiko Gotzain txit itzaltsuaren azalpen eta eskabideagaz oso alkarturik, Aita Santu orren oiñetan auspez, bere erreguak zuzentzen dautzuz, Karmen'go izen ta deikunez Larrea'n, gure Aztetxeko eleizan, altara nagusian aurkitzen dan Andra Maria'ren iduria, eleiz-arauz aintzaldua izan daitela eskatuaz.

**Gure** Ordenea, **1835'an**, indarrez **sakabanatua izan zan Espaiña'n**; orain —**1968'an**—, **barriro** komentu batzuen **jabe** egin eta **bizi** izaten **asi** ziranetik eungarren urteburua **ospatuko dogu**. **Eta Larra'ko** komentu **onek**, lenen-lenengotik, karmeldar gazteen mintegi gertaturik, **ama zabal ta** emokor batek lez, eun urte oneitan **ainbat** seme **azi ta** eratu **dautsoz** Karmel-sendiari. **Ta** eleizako **altara nagusian daukagun** Karmen'go iduri bedeinkatu onek, **bere aulkitik**, **ama** maitale baten antzera, **bere** seme **barrien** lenengo **amesak** eta **gurariak txeratsu artu dauz**. **Guzi** oneik, ba, lenengo beronen oiñetan **abitu santua** artu, **ta gero** saio-urte osoan zerutar **Erregiñaren** inguruan zaintzaille lez ernai **egonik**, azkenez bere **altara** aurrean **auspeztu** ziran, ziñeskintza (**profesa**) egiteko.

»Bere **magalpe** gozoan, gizaldi ontan, **lekaide** bizi **asi** dabenak **2.804'tik** gora dira. **Asi-barri ta profesa** egindako onein artean, onexek **dozuz gomutagarrien**: **artobispu** bi, **lau** gotzain, apostolotar Eratzaille bat, bost **apostolotar buruzagi**, iru Ordena guztiko **nagusi**, Jaungoikoaren otsein bi **laster** altaretarako bidean, eta beste **sail** ez txikia jakituriz **ta santutasunez andi izan** diranena, mixiño-lanetan eta aginpidean Eleizearentzat eta **Ordenearentzat** oso bikaiña.

»**Orain**, bada, Karmeldarrak **Espaiña'n** barrien barri lekaide-lanetan **asi** ziranetik **eungarren urtea**, Andra **Maria**'k bere besoetan **artu ta** azitako **famili aintzatsu** onen **asiera joria** gogora ekarriaz, guztiontzat oso **pozgarri ta atsegingarri** litzakigu bene-benetan, **Aita Santu** orrek, eungarren urtebetetze ontako **jai** onei azken zoriotsua **emonik**, Karmen'go Andra Maria'ren iduri **au** eleiz-**arauz** koroatu **ta** goramenik ederrenez andietsiko **ba'zendu**.

»**Au** **daskatzu**, bere **Erki-Batzar agurgarriagaz** eta **Naparra'ko Joakin** deunaren karmeldar Probintziko lekaide **guztiakaz** batera, **zure** zerbitzari **apal** eta **esan** osoko seme onek. Sortzez **Garbiaren Aita Fidel, Lekaideburua.**»

\* \* \*

Larrea'ko karmeldarrena. «Aita Santu ori: Jose deunaren Pedro Mari aitak, Larra'ko karmeldar ortozen nagusiak, bere menpeko lekaide guztiakaz bat egiñik, zure oiñetan auspez, eleiz-barruti ontako Gotzain agurgarriaren eta gure Nagusien eritxi ta eskabideak ontzat arturik, arren be arren eskatzen dautzugu: gure komentuko eleizako altara nagusian, Karmen'go izenez, bera-rizko jaiera ta eraspengaz goratua dan iduri bedeinkatua eleiz-oitura danez koroatua izan dedilla.

»Guk, komentu onetan Ama orren babespean bizi gareanok, eraspen osasungarri au geure aurretikoak aiñako gar ta bizitasunez zabaltzen jarraitu gura dogunok, pozarren ikusiko geunke iduri onek, Zuk *zeure* Apostolu- indarrez omenduta, kristauen artean eraspenezko argi barri bat ixuriko ba'leu.

»Olantxe eskatzen dautzu, bere lekaideakaz batera, zure zerbitzari ta seme onek. Jose Deunaren Pedro Mari Aita, nagusi.»

#### V.—Aita Santuaren baimena

Bilbao'ko Gotzaiñaren eta Bizkai'ko erri-agintarien dokumentuak gertu egozan. Larra'ko karmeldarren etxean, Andra Maria'ren kondaira ta edestia, labur ta argi idatzirik; Karmen'go Amak, bere semeen bidez, inguruetan egin-dako ona diztikor agertzen zan. Dana batu, liburutxo bat osotu, narru zuriz josi, «Ballido» argazki-etxeko apaingarriz edertu ta, txukun ta ikusgarri, bial-du zan Erroma'ra. 1967'ko epaillaren 12 zan.

Il ontan bertan, 17'garrenerako, Erroma'n egoan; eta karmeldar Nagusiak, eskuratu ta ikusi ondorean, Rituzko Kongragaziñora eroan eben, 20'garrean. Onako gauzak Erroma'n iñoizka, miin txarrak esan oi dabenez, loak artuta geratzen dira. Baiña oingoan ez, etzan lo-galerik izan. Aita Santuak,



Plazako Kalbario zarra, oindino be zutik dagoana



Kortederra'ko bidean Tantorta etxea, ta Ixar aldean gari-ebaten

epaillaren 30'an, Idazki edo **Breve** baten bitartez, **Larrea'**ko karmeldarren **eleizako altara nagusian dagoan** Karmen'go Amaren iduria **eleiz-oituraz koroatze**-ko baimena emon eban.

**Aita** Santuaren **agiria**, **Breve** deritxonetarikoa **dogu**. **Beraz**, **ez da** edoze-**lako**. **Bulda** batek beste garrantzi **ez** dauko euki; **baiña**, orraitino, karta batek baiño arreta **andiagoa dau**. **Bulden antzera**, bere lenengo **itzakaz de-ritxo**; **gure au** itz oneikaz asten da: «Nobilissima **Sedes**».

**Larra'**ko **Ama** zegaitik koroatzen dan **dakar** lenengo. **1) Bilbao'ke** eleiz eta erri-agintarien nai **bizia ta eskabide sutsua** agertzen da aurrenik; **2) Ama** oni buruzko maitasunaren «**Aulki oso ospetsua**» **dala** diño eleiza **au**, bost arrazoi oneikaitik: **a)** berreun **urte dira** karmeldarrak iduri **au** bertan **ipiñi** ebela; **b)** Karmen'go Anaidia eratu **eben** urte aretan bertan; **d)** Andra **Ma-ria'**ren oiñetara egiten diran erromeri **ta eleiz-txango ugariak**; **e)** Andra **Ma-ria'**gandik **arturiko** mesede **ta doaiak**, eta **g)** **Larra'**ko komentua, karmeldarren mintegi **dalako**.

Errazoi guztiokaitik, **ba**, **arlo** onen ardurea daben **kardinalak** ontzat **ar-tzen** dabe, **bialdu** diran dokumentuetan **agertzen** dan **koroatu-naia**; **Aita San-tuak bere** baiezkoa emoten **dau**; Bilbao'ko **Gotzaiña izentatzen** **dau** bere ordezko. Onek, **ba**, **Aita** Santuaren **izenean** koroatuko **dau**, **Jauna lagun**, **La-rra'**ko Karmen'go Amaren iduria. **Ona Aita** Santuaren baimena, latiñetik **eus-keraz jarrita**.

«**Paulus PP. VI**

**Ad futuram** rei memoriam.

«Karmen'go Amari eskiñitako maite-leku edertzat **eukia da**, **ta olan da izan** be, **Larrea'**n aurkitzen dan **Juan Beteatzaillearen Santutegia**, Bilbao'ko eleiz-barrutian onenetarikoa **doguna** nunbait. **Orain** berreun bat urte **asi zan**

baita **Andra Maria'ganako gurtza** ta deboziñoa be; **eleiz au**, ba, orduantxe **izan zan karmeldar** ortozen **ardurapean jarria**, ta oneik Karmen'go **Amaren** irudia bere Erregin **aulkian lez** bertan ipiñi eben; baita, gero, izen **zorgarri** orren **azpian** Kofradi berezi bat eratu eben, inguruko **ia** sendi ta **eleiztar guztiak**, txit eder **eritxirik**, **euren izenak** bertan emonaz. Urte gitxi barru, ortik etorri ziran ainbat peregrinaziño Jainkoaren Amaren bizitegi eder **ontara**; **bere** omenez egiñdako errogatibak be ainbat **izan** ziran; eta, bitartean, Karmen'go **Amak** bere aldetik mesedezko euri **ugaria** ixurtzen eban bere seme maiteen **alderako**.

»Ortik, **erritarren biotz-su ta jaiera onegaz** batera, Karmeldarren **artean geituaz joian**, txit arrigarriri, euren barruko **on-zaletasuna**. Eleizeari **dautsola** dagon komentu **au**, ba, karmeldar Ordeneak **España'n izan eban lurartze** barri ostean, beste Probintzi guztien **ama lez izango yakun** berau; ementxe **egiten** eben karmeldar **gazteak** euren **saio-urtea**, ta azkenez **ementxe**, **Karmen'go** Amaren **altara** aurrean, sendotzen ebezan euren eskintzak.

»**Beraz**, lekaide ta erritar, guztion **guraria** da Karmen'go Amaren **irudi guztiz** maitagarri **au**, dedu ta omenik andienakaz **izan** daiten; eta, **asmo au** erakutsirik, eleiz-barruti ortako **Gotzaiñak** berak, **gure anai Paulo** Gurpide **Beobe agurgarriak** erregu egin **dausku**, goramenik andienaren **ezaugarritzat**, koroï eder bat irudi orren **buru-giltzetan jartea** onartu daigula.

»**Guk**, beraz, eleiz-gizon eta karmeldarren izenean, erri-agintari ta **Larrea'**ko **auzune** osoaren izenean **aurkeztu dauskuezan eskariok gogo** beroz onarturik, Erroma'ko **Eleizako kardinala**, ad **Catinarios** deritxon **Blas** ta **Karlos santueneko diakonua** ta **Eleiz-jaietako Bazkun nagusiko Buru** dan **gure** seme maite Arkadio **Larraona'gaz** artutako **erabagia** beatu ta aztertu ondoren, **idazki** onen bitartez eta geure **apostolutar Aginpidez**, Bilbao-goterkiko **Gotzain jaunari** izten **dautsagu** egitego ori; berak, **berari** ondoen deritxon egunean,



Larra'ko **Juan Bateatzaillearen** eleizan **biziro gurtua** dan Karmen'go **Andra Mari** doatsuaren **iduriari**, geure izenean eta geure **aginduz**, **URREZKO KOROIA** ipiñi **dagion**.

»**Eta jai ospetsu oneik, uste dogu, erlejiñoaren onerako ta erritarren barne-bizitzea onurakortzeko bide izango dirala; baita, era berean, inguru ontako kristiñau** eleiztarrak eta Bilbao-goterki osokoak, **gero ta geiago, Jainko-Amagazko** biotz-bero maitetsuan **azkortu ta** indartzeko be.

»**Ez** bego **ezer onen aurka**.

«**Erroma'n** emona, **Kepa** deunaren ondoan, **Arrantzalearen** eraztunpean, **1967'ko** epaillaren **30'an**, **gure Aitasuntutzako IV'garren** urtean.

«**Ikurratz:**

»**Paul VI, Doipuru**.

**Izenpetu:**

**H. P. Cicognani** Kardinala,

**Eleiz-Arazo Agirietako**

**Arduradun.»**

#### **VI.—Andra Maria'ren urte santua**

**Baimenak** lorturik, **egun** andia be **laster** etorkigun, **antza**. Bilbao'ko **Gotzain jaunak** bereala iragari eban karmeldarrok **geunkan asmoa**, Erroma'tik **artu zan Aita Santuaren** agiriaren **barri** be emonik. **1967'garren urtea, Andra Maria'ri** oso-osoan eskiñitakoa **izango zan**. Urte **santu** ori, berak edegiko eban **Larrea'n**, Karmen'go **Amaren** egunean. **Eta** orrelaxe egin eban.

**Ona**, Karmengo **jai-arratsaldeko** seiretan, urte **santuari asiera** emokeran, **Gotzain jaunak euskeraz** egiñiko itzaldia:

«Nere seme maiteak: Ama Birjiñak, egun onetan, eleiz onetara ekarri gaituz. Eta gaur, eleiz onetan, Ama Birjiñaren mantupean, pozez beterik batu gara, zeuen gurasoak egiten eben lez.

Amaren menpean bizi zarelako, zuen arimen sinismena zintzua da. Mundua, okertua dago; munduko gauzak, ez dabilz zuzen; baiña, Jaungoikoari eskerrak, gure sinismenak, argi bizia, eta indar beroa, emongo dauskuz, Maria'ren bitartez.

Gaur egun aundia da, ez Karmelitendako bakarrik, baita ere Karmen'go Ama Birjiñaren semeendako. Gaur Maria'ren urte santua zabaltzen da, ta Jaunaren (aguntasunaz irudi au koroatua izango da datorren urtean. Eskerrak emon daioguzan Aita Santuari eta zorionak Aita Karmelitai.

Gure biotzak alegin guztiakin gertu bear doguz egun onetarako. Sinismenaren urte barruan gagoz eta sinismen au, gure biotzetan gorde eta indartu bear dogu. Ama Birjiñari otoitz egiñaz eta bera gure iruditzat artuaz.

Baiña sinismen au ezin lei ondo gorde biotzean, Eleiz Amaren erakutsiak jarraitu barik, kristau benetakuak bezela. Aita Santua eta Gotzaia, Jaunaren izenean ipiñiak, biotz-biotzez mite izan bear dozuez, eurakaitik erregutuaz eta erakutsiak jarraituaz.

Konzilioko denpora ostean bizi gara, ta Eleiz-Batzar Nagusi onek, bizitza santua, eta maitasun beroa danondako nai dauz. Baiña au, Eleizeari esana egiñaz, bakarrik arkituko dogu.

Eta zer eskatuko deutsagu Ama Birjiñari?

Ara emen nire otoitza:

«Guztioi begiratu eiguzu, Birjiña maitea.

**Etxean** edo **kanpoan** lan egiten dabena.

**Itxasoan** dabilzen **seme kutunai**, **zu** «itxasoko **izar argia**» zeralako.

**Arima** edo **gorputzean** gaixorik **dagozanai**, **osatu** daitez.

Emen **dagozenai ta** etorri ez **diranai**; ba, danon **Ama zera zu**.

**Gure** biotzak **artu egizuz**; **zureak gera** eta **zureak izan** nai **dogu**. **Zure ondoan**, **dana argia** da; **zu barik**, **illuntasuna**. **Zurekin**, **gure bizitza**, **pozez** beterik **izango** da; **zu gabe**, **negargarria**. **Gure eta zaindari nagusia** beti **izan zaitez**».

**Danon** artian, **seme maiteak**, **koroia** gertu bear **dozue**. **Koroia** danona **izango** da. **Guztion otoi eta laguntasunakin** **Koronaziñoko eguna guztiz ikusgarria izango** da».

## VII.—Guztion koroia

Koroi **au**, ain **zuzen**, **ezta** pertsona bat-batek **egiña** izango; **ezta** alkarte betek be. **Danona izango** da. «**lñoiz** bere **ez** nunbait, **urrea**, egiazko **arripitxiak** eta **zidar-lan** bikaiñak, **Jaungoikoaren Amaren buru-giltz agurgarriak** koroatzen **erabiltea** baiño ederragorik». **Olantxe** da. **Arrokerizko**, **lizun-bidezko ta** pekatuzko **mundu orreitan** ainbat **urre-pitxi ta** olako erakusten **diran bitarteai**, **guk**, geure **Ama**, **Andra Maria**'ri bere bururako **eskiñiko dautsagu** **alík** eta **koroirik ederrena**.

**Andra Maria** koroatzen **dauana**, **Berak** be **koroatuko dau**. **Ez dago** **dudamudarik**. **Alkarreganako esker onean** **sustraituriko bardin-izate au** errez **ulerzen dogu**: **Maitatu maitatua** izan; **koroatu koroatua izan**. **Ainbateko bardin-**

tzñirik ezta izango, bear bada, Andra **Maria guztiz aberatsa ta altsua dalako, ta gu** oso ez-euki **ta eziñak, kaskarrak. Baiña** maitezko bardintza, bai, **izango dogu; zuk, bada,** zeure eskuarte **ta ondasunak** emoten **dozuz** Aren aintzarako **ta** Arek be bere doe **ta ondasunak eskintzen dautzuz zu** koroatzeko. **Eskiñi** txiroa egiten **dauan** ez-eukiaren **maitasuna ta** emoi orri erantzuten dautson zeruko Erregiñaren esker ona dituzu emen, **Arek daukan guztian zu** erdikide egiñik.

Koroia, danona **izango da. Auxe** da, **izan** be, eleiz-koroatze guztien **ezaugarri**rik beiñena. Koroe ori **ez** dedilla **izan** pertsona batek bakarrik emona; bestelan, eroan **dagiala** guztion **pitxi-aletxo**a. Karmeldar **Lagundiak** ipiñiko **dau** geiena, **baiña** Karmen'go **Amaren maitale** askok eta askok be **lagunduko dauskue: seguru gagoz** orretan. **Eskupeko** biozti **oparotsua,** bitxirik **laztanena,** barru-barruko **gomutakia,** zeure-zeure dan zerbait..., Andra **Maria**'k eroan **dagiala,** ta zeure **izenean** dizdiz egin **dagiala Aren buru-gaiñ agurgarrian.**

Arlo onetara dei **dagitzugu.**

**Eta** koroatze **goiza** eltzean, Andra Mariaren **buru-gain** koroe bikain ori jarten biotz-ikarai ikusterakoan, **zuzendu daikeozula** zeure otoitzik ederrena:

—**Ba-dakizu, Ama,** or, zeure koroa orretan **naukazu** ni be, biotz eta **adimen,** osorik.

## LARREA'RANTZ

Udako aroaren larre usaintsuetan  
Eresi-egoz dabil, euskaldunen fede.  
Bake-zaleen gogoak goi-adorez, bide,  
Karmel'go Amagana, pozezko ibilketan.

Asmu onen xedeak, barru-baltzaz, pozez,  
Lurraren zikiñetik indar dagi, gora,  
Maitasunez eskintzen buruntza ta lora:  
Biozkada guztiak Amaren omenez.

Zintzóen maitasunak malko, otoitz, abesti,  
Larredrantz urratsak buru, biotz, zentzun,  
Amari eskintzera Erregin burestum:  
Olako jai-aldiak guztientzat ezti.

Maitasuna ezta itz uts, kristiñau onentzat:  
Arimák lotzen ditu goitar lókarriaz.  
Barrunbeak argitu itxaropen zuziaz:  
Tokirik ez dau isten, pekatuarentzat.

Mundu nekatuaren zidor ausietaz  
Hits eta motel dábil, gizarte urratua.  
Zelai ukakorretan gálduta zentzua  
IUun dakuse, oro, argi bako maldaz.

Larrdiko elizatik Zuk, baiña, Ama, gurt  
Zerutar bakea ta poza damoskuzuz.  
Stok'i egindako agintzari indartsuz,  
Zeure Kutuna gure urratsen zuzendari.

Kizi-indar aróaren bultzakadak-arren  
Zeure gaituzu, Ama, lehen lez orain be.  
(Belaunik-belaun eldu-oneraspen-jabe).  
Zu bage ezta, munduan, bakerik izanen.

Artu, ba, abegi onez, Ama laztan orrek,  
Euskaldunen jedeák dagitzun opari.  
Ez itxi amilduten EuskaJ erriari:  
Geure izatea galdu ez dagiskun ezek.

Aurraitz

## AMAREN BURUAN KOROIA

Larra ondotik errekatxo bat  
Eten bageko katean,  
Gizaldietan murmur kantari  
Asperu bako nekean,  
Itxasorantza agurka doa  
Bere amaren eskean,  
Eta itxasoak laztanduagaz  
Pozik artzen dau berean.

Uren ameak errekatxoak  
Maitero artzen bdditu,  
Karmen'go Amak giza-semeak  
Zelan artuko ez ditu?  
Gizadiaren Ama da eta  
Gu bere semeak gaitu,  
Bere errukizkó biotz zabala  
Semeai ezin ukatu.

iLarra» izenak adirazten dau  
Lora mardulen zelaia.  
Lora guztien loria Larrdn  
Karmen'go Ama Maria:  
Bere burestun apaingarri or  
Karmeldarren gaztedia.  
Amen beroak indarturiko  
Larrdko lorategia.

Burestunaren jaube zarela  
Ziñez ezin lei ukatu.  
Diran guztiak jantzita bere  
Ama ezin lei ornitu:  
Garbitasunan eder-gaillurrL  
Goteunak zinduzan sortu,  
Jaungoiko eta gizadiaren  
Betiko Amatzat autu.


Sortu zanetik Karmen'go Ama  
Dogu burestunan jaube.  
Irutasunak jarria dauka,  
Misterioa bdda be.  
Giza-sumeak lora lirioz  
Burestundu nai bddabe,  
Loren frutuak eskatzen ditu,  
Eztau nai **fruttirik gabe**.

Zure koroiak bardinik ezta,  
Ezta biotzak neurririk.  
Ez da munduan misterio au  
Azalduko daun argirik.  
Jainko-Semea zure odolez  
Gizon egiña dalarik,  
Ezin leiteke zure Koroian  
Duin dan beste amarik.

Euskalerrria siñismendun da,  
Baiña bai obendun bere.  
Gure idarretam ikusten dira  
Dizdiraz ainbeste lore.  
Zure beroak emon begie  
Indar bizien kolore,  
Izan dagien edertasun au  
Garbi zaintzeko adore.

Egi-zale dan Erri gaxoa  
Guzurrez dabe astindu.  
Eta errien borondatea  
gura ddbie zapaldu.  
Illunpe ontan argian billa  
Doiana ez dedin galdu,  
Zure koroian argi-dizdira  
Euskal errian zabaldu.

B. Enbeita



Biar edo etzi mixiolari izango diran gazteak



Lopene baserria gaurko Zelaieta'n, andra-gizonen batzarra ta andrak kartetan